Hezkuntza Ikuskaritzako Koadernoak

Sistemaren ebaluazioa

# KOMUNIKAZIO GAITASUNA: TESTU IDATZIEN EKOIZPENA

## Zuzenketarako orientabideak

7

Ebaluazio diagnostikoa
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

# KOMUNIKAZIO GAITASUNA:
# TESTU IDATZIEN EKOIZPENA

Zuzenketarako orientabideak

Ebaluazio diagnostikoa
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

# KOMUNIKAZIO GAITASUNA: TESTU IDATZIEN EKOIZPENA

Zuzenketarako orientabideak

Ebaluazio diagnostikoa
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza Departamentua

Titulua:
Komunikazio gaitasuna: Testu idatzien ekoizpena.
Zuzenketarako orientabideak

Egileak:
Ane Apezetxea Eskudero
Bakarne Ruiz Jaso

Koordinazioa:
Ebaluazio Atala
Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzua

© NAFARROAKO GOBERNUA
Hezkuntza Departamentua

Diseinua eta maketazioa: Ana Cobo · Óscar Munárriz
Inprimaketa:
Lege gordailua:

# Aurkezpena

Oinarrizko gaitasunak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean sartzea eta ebaluazio diagnostikoa gaitasunen arabera ezarri beharra direla medio, Hezkuntza Administrazioek eginahala egin behar dute irakasle taldeei material eta tresna zehatzak emateko, ikastetxeei eginbide horietan laguntzeko modukoak.

Ideiak modu antolatu eta eragingarrian adierazteko, komunikazio gaitasuna oinarri funtsezkoenetako bat da. Beste bat, mezu bat ulertzeko gaitasuna da. Edozein hezkuntza sistemaren helburuetan nagusietako bat da ikasleek ahozko mezuak eta testu idatziak ulertzeko eta bere pentsamenduak ahoz zein idatziz adierazteko gai izan dadin lortzea: zer sentitzen duten, bizitza nola ulertzen duten… helburu horiek, jakina, Hizkuntza eta literatura arloaz askoz haratago joaten dira eta ikastetxe batean bizitasuna duten jarduera guztiak barne hartzen dituzte.

Ebaluazioaren inguruko bilduma honetan gaur irakasleentzat interes bizikoa izanen den materiala aurkezten dugu. Lan honen egileek, Ane Apezetxeak eta Bakarne Ruizek beren irakaslanetik ateratako hainbat gogoeta eta orientabide aportatzen dituzte hain egunerokoa eta halere hain konplexua den ataza hau hobeki burutan ateratzeko: ikasleek idatzitako testuak baloratu eta zuzentzea.

Hezkuntza Departamentuak beretzat hartu duen ebaluazio diagnostiko ereduak bai testuak irakurtzea eta bai idaztea ere sartzen ditu komunikazio gaitasunaren barrenean. Ohart gara zeinen zaila den idazlanak zuzentzeko sistema homogeneo eta balio unibertsalekoa lortzea; hala ere, orientabide hauek eta irakaslan errealeko zenbait adibide eskaintzen dizkiegu irakasleei. Etorriko ahal zaizkigu beste ikuspen eta proposamen asko, ebaluazio lan hau aberastuko dutenak.

Gaur arte ez da aurkitu ikasleen testuak baloratzeko sistema erabat fidagarririk, modu azkar, eragingarri eta orokortuan erabiltzeko modukorik. Hala ere, gaur bertan irakasle guztientzako zenbait ebaluazio irizpide ezar ditzakegu egoera errealei aplikatzeko.

Espezialistek diotenez testu gramatikaren eta hizkuntza irakasteko hurbilbideen gainean literatura ugari dago; gutxi da, ordea –eransten dute– testu idatziak baloratzearen gainean. Eta galdera batzuk sortzen dira. Zer da garrantzitsuagoa: ortografia edo estilo pertsonala?, testuaren barne koherentzia edo sormena? Galdera horiei erantzuna emateko, ezinbestekoa da testuen ekoizpenean inplikaturik dauden alderdi guztiak bateratzen duen eredu bat izatea.

Argitalpen honen helburu galdera horiei erantzun bat ematea da. Baliteke hemendik urte batzuetara Bigarren Hezkuntzako irakasleek halako eredu bat adostea. Gaurko lana, ordea, besterik da: proposamenak eta planteamenduak konpartitzea, ohartzen garelarik testu baten balioa agian baloratzeko erabiltzen ditugun sare eta plantilla korapilatsuak baino handiagoa izan daitekeela.

Esperantza dugu argitalpen honek balioko duela hizkuntza irakasten duten departamentuek irizpideak komuntzeko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek idatzitako testuak baloratu eta kalifikatzerakoan haien aplikazioa homogeneizatzeko, ikasleen komunikazio gaitasuna handituz. Lerro hauek idatzi bidenabar, gonbidatu nahi ditut irakasleak segi dezaten alor honetan ikertzen eta beren lankideekin bere laneko aurkikundeak eta berrikuntzak partekatzen.

Alberto Catalán Higueras
Hezkuntza kontseilaria

# Aurkibidea


I. Aitzin-solasa ........ 9

II. Narrazio testua ........ 19

III. Deskripzio testua ........ 51

IV. Azalpen testua ........ 81

V. Argudio testua ........ 117

VI. Gibel-solasa ........ 147

VII. Bibliografia ........ 153

# I. Aitzin-solasa

Hizkuntza eta literaturako irakasleok egin beharreko lanen artean zailenetakoa da ikasleek idatzitako testuen zuzenketa. Argi dago, ordea, adierazpen idatzia hizkuntzaren alderdi garrantzitsuenetakoa izateaz gain, hezkuntza etapa guztietako helburu orokorretako bat dela. Hortaz, gela barruan egoki lantzeko eta ebaluatzeko zailtasunak badira ere, ezin dugu ezinezkotzat jo.

Ikasleek hainbat motatako testuak ekoizten dituzte euren eskola jardunean, eta irakasleon egitekoa hezitzailea izan beharko luke testu hauen zuzenketari ekiten diogunean. Ostera, ikasleen testuak zuzendutakoan, gure sentsazioa nahikoa ezkorra izaten da gehienetan: *"notari begiratzen diote eta ez dituzte egindako oharrak irakurtzen ere", "ez dakit zertarako zuzentzen ditugun idatziak, behin eta berriro egiten dituzte akats berberak"...*

Horretaz gain, irakasleok zalantzak ere izaten ditugu zuzenketa prozesuan. Batzuetan, dena zuzentzen saiatzen gara, baina, bestetik, zuzenketaz betetako testu batetik ikasleak ezer gutxi ikas dezakeela ere pentsatzen dugu. Beste batzuetan, zuzendu beharrekoa zer den mugatzeko zailtasunak ere izaten ditugu. Azken batean, ezinbestekoa da *ongi idaztea* zer den argi izatea. Honi dagokionez, Hizkuntza eta literaturako curriculumak argiro azaltzen du zer den ongi idaztea: *zuzentasunez, kohesioz, koherentziaz eta egokitasunez hainbat motatako testuak ekoizteko gaitasuna izatea. Idazmen konpetentziaren beste alderdi bat ere izango litzateke honakoa: gizarteko hainbat eremutako testu-generoak idaztea, helburu pertsonalei, sozialei eta akademikoei modu eraginkorrean erantzuteko*.

Alegia, testu bat ongi idatzita dagoela esango dugu ortografia arauak eta perpaus mailako gramatika arauak betetzen dituenean; ongi kohesionatua dagoenean (hau da, gehiegizko errepikapenak saihestu, erreferentzia ongi

gorde eta perpausaz gaineko elementuak ongi lotuta eta antolatuta daudenean); koherentea denean, alegia, esanahi orokorra erraz jasotzen denean, kontraesanik ez duenean eta nahikoa informazio ematen duenean; eta, azkenik, komunikazio egoera jakin bati modu egokian lotzen zaionean, asmoa, hartzaile mota, gaia, testuingurua... aintzat hartuz.

Ez da, beraz, lan erraza. Ez dago, gainera, komunikazio egoera guztietarako baliagarria izango den eredurik, egoera bakoitzak testu mota jakin bat eskatzen baitu, testu genero jakina, hizkera, igorlearen jarrera... Ikasleari eskatutakoaren arabera, gainera, testuaren propietateek ere berariazko tratamendua izango dute eta, honela, kasu batzuetan nahikotzat joko dena beste batzuetan ez da onargarri izango.

Hortaz, bai idazketa bai eta zuzenketa ere konplexutasun handiko jarduerak dira. Baina horrek ez du esan nahi idazten ikaste-irakastea edo zuzenketa objektibizatzea ezinezkoa denik. Ildo horretatik, honako materialaren helburua irakasleei idatzizko testuen zuzenketan laguntzea da, bai eguneroko jardunean baliabide didaktiko gisa, bai eta DBH 2. mailako kanpo ebaluazio diagnostikoa ikasleekin prestatzeko edota zuzentzeko ere.

## 1. Idaztearen oinarrizko ikuskerak. Ikuskera soziokognitiboa

Arestian esan dugunez, idaztea ez da irakasten erraza, ezta ikasten ere. Aitzitik, hainbat gaitasun kognitibo erabiltzea eskatzen duen prozesu konplexua da, komunikazio egoerako baldintzek zehazten dutena.

Gainditutzat jo dezakegu, jada, tradizionalki gailendu izan den “produktuan oinarritutako ikuskera”. Bertan idaztea prozesu mekanikotzat jotzen zen, eta testua elementu estatikotzat, azaleko adierazleek berresten zutena: ortografia, puntuazioa, sintaxia... Ikuskera honen oinarrian zegoen arrazonamendua garbia da: hizkuntza-sistemaren gramatika ikasita eta menderatuta ikasten da idazten. Metodologiaren funtsa, hortaz, arauak azaltzea, arau horien adibideak ematea eta esaldi mailako ariketak egitea zen batik bat. Horrexegatik, idazketaren lanketa erabat deskontestualizatua ageri zen, arauen aplikazio soil gisa. Zuzenketa, horrenbestez, alderdi ortografiko, lexiko, morfologiko eta sintaktikoan oinarritzen zen.

Baina azken urteotan erabateko norabide aldaketa izan da idazmenaren irakaskuntzan, ikuskera soziokognitiboaren bidetik bereziki. Alde batetik, komunikazio egoerako elementuek idazte-ekintza bera baldintzatzen dutela

argi dago. Bestetik, idazteak eskatzen dituen prozesu kognitiboak bere baitan biltzen dituzten prozedurak dira ikasleei irakatsi beharrekoak. Prozesu hauek honako urratsetan bereiz daitezke:

- **Planifikazioa:**
  - Testuak edukiko dituen informazioak irudikatzen dira.
  - Idazte-ekintza gidatuko duten helburuak formulatzen dira.
- **Testualizazioa:**
  - Irakurleak uler dezakeen hitzezko diskurtso bilakatzen da aurretiko eskema edo irudi semantikoa.
- **Berrikusketa:**
  - Egindako idazkia eta planifikatutako helburuak alderatzea, eta idazkiari ukituak ematea, helburuetara egokitzeko eta hobetzeko.

Ikuspegi honetatik, gure eguneroko jardunean, hasteko, ezinbestekoa da idazte-ekintza bat abian jartzen dugunean ikasleak zeregina oso zehaztua izatea, gure kontsignak komunikazio egoera argi adieraztea. Bestetik, idazte prozesuan ikasleak eman beharreko urratsak bideratzea ezinbesteko dugu. Batik bat, bere lanaren berrikusketa egiteko gaitasuna baloratu beharko genuke, aurretik emandako kontrol zerrenda baten arabera, honen bidez behin betiko testura iristeko. Azken batean, gure helburu nagusia ikasleek beraien konposizio-prozesua erregulatzea izango da.

Hau guztia esanda, argi dago ebaluazio irizpideetan pentsatu aurretik, testu idatziak lantzerakoan darabiltzagun helburu, jarduera, metodologia eta estrategiei erreparatzea ezinbesteko dugula. Idazten idatziz ikasten da, baina ez da kantitate kontua soilik. Idaztarau, prozedura eta estrategia jakin batzuk esplizituki irakatsi behar dira.

## 2. Ebaluazioaz. Testu idatziak ebaluatzearen garrantzia

Hezkuntzan ebaluatzea pertsonaren gaitasunak epaitzea da. Horrela, irakaste eta ikaste-prozesua hobetzeko informazioa lortzen da, eta modu egokian justifikatutako curriculum-diseinu edo programazio zehatz baten barruan hezkuntza-sisteman egin beharreko ibilbidean gidatzen dira ikasleak.

Irakaste eta ikaste-prozesuetan, irakasleak etengabe jasotzen eta ematen du ikasleak eginiko ibilbideari buruzko informazioa: “halako hau hobetu behar duzu”, “beste hura ongi dago”, etab. Hau da, epai horrek aurrez ezarritako eta mailakatutako balioak izaten ditu kontuan.

Idatziari dagokionez ere gauza bera gertatzen da. Ebaluatzen ez denak garrantzia galtzen duela esan genezake. Izan ere, ikuspegi hezitzaile batetik esanguratsua den alor bat ebaluatzeak horretan arreta berezia eta etengabea jartzea ahalbidetzen du. Honako arrazoiak aipa genitzake ikasleek ekoiztutako testu idatziak ebaluatzeko:

1. **Idatziak eta ahozkoak elkar indartzen dute.** Hizkuntzaren bi erabilpen nagusiak ahozkoa eta idatzizkoa dira. Bakoitzean erabiltzen diren kodeak eta beste hainbat ezaugarri alda daitezke, baina, funtsean, hizkuntzaren alderdi idatzia lantzeak ahozkoa garatzen laguntzen du, bai eta alderantziz ere.

2. **Pentsamendua hobeto antolatzen laguntzen du (ikasten ikasi).** Idazten ikastea pentsatzen ikastea da, pentsamendua hizkuntzaren bidez antolatzen ikastea. Ebaluazioaren bidez ikasleak alor honetan nolako bidea egiten duen errazago antzemango dugu, idazteari ekiten dionean nolako zailtasunak dituen, batik bat.

3. **Ikasle talde baten (eta ikastetxe baten) indarguneak eta ahuleziak islatzen ditu.** Irakasleok, ebaluazioaren bidez, gure ikasleen idazteko moduaz ideia orokorra lortzen dugu. Testu idatzien ekoizpenarekin lotuta landutako helburuak zein mailatan lortu dituzten azter dezakegu. Hortaz, programazioa eta jarduerak berrikusteko aukera izango dugu.

4. **Irakasleen artean idatziari dagozkion helburuak partekatzeko aukera ematen du.** Idatziaren ebaluazioak zuzenketa-irizpideak bateratzen laguntzen du, baina helburua ez litzateke ebaluazio edo zuzenketa soila koordinatzea, irakaste-prozesu osoa baizik.

5. **Irakasleek eta ikasleek hiztegi bera erabil dezaten laguntzen du.** Irakasleen artean ez ezik, ikasleekin ere kontzeptu eta hiztegi bera partekatzea ezinbestekoa da. Alegia, idazketaren prozesua eta zuzenketa-irizpideak berak neurri batean esplizitatzea.

6. **Ebaluazio diagnostikoaren bitartez ebaluazio jarraia ere indartzen da.** Idatziaren ebaluazio diagnostikoak eta ebaluazio jarraiak erabat osagarriak izan beharko lukete. Horretarako, bi ebaluazio motek ikuspegi bera eta ebaluazio irizpide berdintsuak izan ditzaten ezinbestekoa da.

7. **Arlo guztietan ekoizpen idatzia sustatzen da.** Idazketa curriculumaren arlo guztietan lantzen den gaitasuna da. Testu mota jakin batzuk arlo jakin batzuekin lotzeko joera badago ere, arlo guztietan askotariko testuak lan daitezke.

## 3. Geure proposamena

Geure planteamenduak, erabilgarritasunaren mesedetan, bi ardatz dituela esan daiteke: testu tipologiaren araberakoa da, alde batetik, eta zuzenketarako adierazleak berariaz adierazita daude, bestetik.

Testu tipologiari dagokionez, banaka landu ditugu lau testu mota edo sekuentzia nagusiak: **narraziozkoak, deskribapenezkoak, azalpenezkoak eta argudiozkoak**. Ezinbestez, errepikapenak agertuko dira, testu mota guztiek parteka ditzaketen ezaugarrien kasuan. Hala ere, testu mota bakoitzean berariazko ezaugarriak agertuko dira eta, lagungarri suertatuko delakoan, testu mota bakoitzari dagokion zuzenketarako txantiloia[1] eta eredu zuzenduak erantsi ditugu. Gainera, testu mota bakoitzaren atalean, DBH 2 eta 3ko hainbat testuren benetako adibideak ere txertatu ditugu, irakurketa arindu eta aplikagarritasuna antzemateko asmoz.

[1] Testu mota bakoitzean zuzenketarako adierazle sorta eta txantiloi **osoa** eman dugu, batetik bestera aldaketa nagusiak testu mailako hainbat ataletan soilik ematen diren arren (kohesion eta koherentzian, bereziki). Hortaz, txantiloiaren zati gehiena berdina da testu mota guztietan. Errepikakorregi suerta daitekeela jakinda ere, irakurleari testu mota bakar bat bere osotasunean lantzeko aukera ematen diola uste dugu.

Beste aldetik, zuzenketa adierazleak bi multzo nagusitan bereizi ditugu: testuaren planifikazioa, batetik, eta testuaren beraren zuzenketa, bestetik. Bigarren atal honetan ere bi azpimultzo egin ditugu, hitz eta perpaus maila eta testu maila. Hauxe izango litzateke testu mota guztiak aztertzeko jarraitutako eskema:

**1.** PLANIFIKAZIOA[2]

**2.** TESTUAREN BERAREN ZUZENKETA

- **2.1.** HITZ ETA PERPAUS MAILA
  - 2.1.1. Ortografia
  - 2.1.2. Lexikoa
  - 2.1.3. Morfosintaxia
- **2.2.** TESTU MAILA
  - 2.2.1. Aurkezpena
  - 2.2.2. Kohesioa
    - 2.2.2.1. Erreferentzia eta konexioa
    - 2.2.2.2. Puntuazioa
  - 2.2.3. Koherentzia
  - 2.2.4. Egokitasuna
  - 2.2.5. Estiloa

Honako egitura erabiltzeak, alde batetik, zuzenketa lana errazten duela iruditzen zaigu. Izan ere, planifikazioan kontuan hartu beharreko adierazleak eta behin betiko testuarenak ezberdinak izango dira derrigorrez. Gainera, testuaren zuzenketan bertan egindako banaketa ere lagungarri suerta dai-

[2] Planifikazioa, berez, behin betiko testuaz kanpoko elementua da, baina idazketa prozesuan garrantzia handiko alderdia dela argi dago, eta horrexegatik txertatu dugu zuzenketaren ataletan. Askotan gertatzen da ikasleak egindako zirriborroa behin betiko testuaren lehenengo bertsioa dela eta azken testuan zirriborroa garbira pasatu besterik ez duela egin. Alderdi honetan baloratu beharko genukeena, honenbestez, zirriborroaren berrikusketa eta moldaketa da, ikaslearentzat ideiak antolatzeko lagungarri izan behar duen tresna baita.

tekeela uste dugu. Izan ere, aurretik aipatutako ongi idaztea zer den galderari erantzun diezaiokeen irizpide multzoa hautatu eta egoki antolatu dugulakoan gaude.

Alde batetik, hitz eta perpaus mailako zuzenketa da, gure ustez, tradizionalki *boligrafo gorriaz* zuzendu izan dena, zuzentzaileari begien bistan jartzen zaizkion akatsak, lehenengo irakurketan erraz-edo zuzen daitezkeenak eta, ohituraz, *gramatikaren* lanketarekin lotu izan direnak. Hizkuntza-sistemari eta zuzentasunari buruzkoak, alegia.

Bestetik, testu mailari dagokiona *testu gramatika* izango litzateke, zuzentasuna kenduta, gainontzeko testuaren propietateak: *hitzezko adierazpen guztiek, testutzat jotzeko eta, beraz, mezua komunikazio-prozesu batean transmititzeko, bete behar dituzten eskakizunak*. Hasteko, aurkezpenak testu genero bakoitzaren gizarte-konbentzioekiko egokitzapena biltzen du bere baitan: formatua, diseinua, elementu tipografikoak... Kohesioak, aldiz, testu zatien arteko erlazio semantikoa zainduko luke: erreferentzia baliabideak, testu antolatzaileak, puntuazioa... Koherentziari dagokionez, komunikazio egoerarako ezaugarrien eta eduki semantikoaren arteko korrelazioa da aintzat hartu beharrekoa: informazioaren hautaketa, egituraketa, progresioa... Egokitasunak, bestetik, planteatutako komunikazio egoerari lotzeko gaitasuna da, azken batean, helburua benetan betetzea.

Eskema honetatik abiatuz, testuen zuzenketan lau alor orokor daudela esan genezake. Horietako bakoitzak testuaren zuzenketari ekiteko ikuspegi ezberdina islatzen du, nahiz eta sakonean denek nolabaiteko lotura izan. Izan ere, praktikak erakusten digu idazketa prozesuan eremu guztien arteko korrelazioa izan ohi dela. Hala ere, gerta daiteke ikasle batek eremu batean hutsune handia izatea eta besteren batean, berriz, ongi moldatzea. Horregatik, atal bakoitza nolabaiteko autonomiaz aztertzea oso baliagarri suerta daiteke ikasleen testu idatziak hobetzeko informazio zehatza lor dezagun. Honela, hauxe da zuzenketa zehatzean atal bakoitzari eman dakiokeen balioa:

| | |
|---|---|
| Planifikazioa | %10 |
| Hitz eta perpaus mailako zuzentasuna | %30 |
| Testu mailako aurkezpena, kohesioa eta koherentzia | %40 |
| Egokitasuna eta estiloa edo baliabide aberastasuna | %20 |

Hemen aurkeztutako eskema orokorraren zehaztapen gisa adierazleak erabiltzea komeni da. Ez da erraza adierazleei neurria hartzea, izan ere, hautatutakoak gutxi edo orokorregiak badira, testuaren zuzenketa subjektiboegia edo arinegia gerta liteke, eta, gainera, hainbat zuzentzaileren artean adosteko zailagoa. Era berean, adierazle kopurua gehiegizkoa bada, zuzenketa lana neketsuegia eta zailegia bihur liteke.

Gauzak honela, planteatzen dugun marko zabal horretatik abiatuta, hautatuko ditugun ebaluazio irizpideek honako baldintzak bete behar lituzkete:

**Esanguratsuak izatea**. Eremu bakoitzean adierazle asko ezar litezke, baina argi ikusiko dugu denek ez daukatela garrantzia bera. Gainera, ikasmaila bakoitzari dagozkion minimoetan oinarrituta egon beharko lukete. Adibidez, DBHko 2. mailan *erakusleetan eta oinarrizko lexikoan h letra ongi erabiltzea izenordain indartuak egoki* erabiltzea baino esanguratsuagoa dela esan daiteke.

**Zalantzarik sortuko ez dutenak.** Horretarako, batzuetan adierazle orokorregiak saihestu eta zehatzagoen alde jo beharko dugu. Esate baterako, *Komak erabiltzen ditu* irizpidearen aldean *Ez du komarik jartzen subjektu eta predikatuaren artean* askoz ere argiagoa da.

**Erraz identifika daitezkeenak.** Esate baterako, testu baten koherentzia bere ezaugarri esanguratsuenetakoa da, baina nekez identifika daitekeena lehenengo begiradan. Aitzitik, testuaren hainbat alderdiri erreparatu ondoren zuzentzaileak atera lezakeen ondorioa da: zentzu orokorra erraz jasotzen bada, egitura argia badu, edo justifikatu gabeko saltorik antzematen ez bada, besteak beste.

**Errealistak izatea.** Lehen ere esan dugu zuzentzaileak zailtasunak izan ditzakeela adierazle kopurua erabakitzeko unean. Gutxiegi badira, testuaz atera daitekeen ikuspegia arinegia izan daiteke eta, gehiegi badira, zuzenketa xeheagoa izango da, baina are nekezagoa eta, beraz, planteamendua ez da errealista izango.

Horrexegatik, bi aldi bereiztea komeni liteke; lehena, ikasteprozesua, eta irakasleen arteko irizpideak bateratzeko unea;

bigarrena, zuzenketa orokorra egitekoa. Lehen aldian adierazle sorta zabalagoa erabiltzea litzateke onena, ikasleekin kontrol-zerrenda moduan erabiltzeko eta irakasleen artean zuzenketak kontrastatzeko. Bigarrenean, zuzentzaileak adierazle taula aski barneratua izan dezake eta gehienetan ez da beharrezkoa izango *item* guztiak banan-banan aztertzea, hortaz, adierazpen orokorragoak erabil litezke.

**Ikasleen adinerako egokiak izatea.** Argi dago ez dela gauza bera Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikasleek idatzitako testuak aztertzea. Kontzeptu edo adierazle berberak erabil daitezkeen arren, islatzen duten errealitatea ezberdina da. Esate baterako, hitzordenari dagokionez mintzagaia eta galdegaiaren kokapenaz DBH2ko ikasle batek barneratua daukana ez da Batxilergoko beste batek duena.

Hortaz, zuzenketari modu errealistan ekiteko, hautatu beharreko adierazleek esanguratsuak eta neurrikoak izan behar lukete. Atal bakoitzerako geure adierazleen proposamena azalduko dugu hurrengo ataletan, testu mota bakoitzaren kontrol zerrendan erabil litezkeenak aurkeztuz. Aldez aurretik esan behar da emandako adierazleen zerrenda nahiz erabilitako adibideen azterketa zehatzegia suerta daitekeela. Horrela azaltzeak ez du esan nahi, inolaz ere, eguneroko zuzenketa lanak edo idatziaren ebaluazio diagnostikoa horren zehatz egin beharko litzatekeenik. Aitzitik, erabil litezkeen adierazle guztien edo gehienen aurkezpena egiten saiatu gara, erreferente gisa. Marko hori erabiltzea irakasleen arteko zuzenketa irizpideak bateratzeko baliagarri suerta daitekeelakoan gaude, irakasle talde bakoitzak, ondoren, testu mota bakoitzari edota landutakoari egoki diezaion. Azken batean, irakasleok zuzenketa irizpideak modu bertsuan ulertzea eta erabiltzea izan behar genuke helburu, testu bat edonork zuzenduta ere, zuzenketa ahalik eta berdintsuen eta objektiboen suerta dadin.

# II. Narrazio testua

Lehenik eta behin, narrazioa denbora jakin batean gertatzen diren ekintzen kontatzea dela esan genezake. Ekintza hauek pertsonaiek parte hartzen duten egoera batean gertatzen dira. Bestalde, edozein narrazio testutan egitura jakin bati jarraitu ohi zaio, non hasierako egoera, konpondu eta orekatu arte bilakatzen den. Hauxe izango litzateke, laburki, informazioa antolatzeko ohiko modua:

- Hasierako egoera. Bertan, testuingurua, pertsonaia nagusia(k) eta egoera aurkezten dira.
- Korapiloa. Hasierako egoeraren bilakaera sortzen duen gertakarien multzoa bilduko luke.
    - Arazoa
    - Ekintzak
- Konponbidea. Egoera berria aditzera ematen da.
- Amaierako egoera (eta ondorioa).

Egitura hau, normalean, ikasleek aski barneratua izaten dute, ipuinen lanketa sistematikoa baita Bigarren Hezkuntzara iristen direnerako. Hala ere, ezin dugu saihestu testu mota honek dituen berezko ezaugarriak lantzearen garrantzia:

- Narrazioaren haria lineala izaten da, eta horrek denborazko konektore ugari erabiltzea dakar. Ikuspegi honetatik, kohesioaren eta koherentziaren esparruek berebiziko garrantzia daukate.
- Ekintzak, gainera, kausa-ondorio harremanean gertatzen dira. Ikasleek erlazio horien berri modu egokian emango dutela bermatzea ezinbestekoa da.

- Izaera polifonikoa. Hainbat pertsonaiaren agerpena, elkarrizketak, estilo zuzena eta zeharkakoa tartekatzea... Puntuazio marken erabilerari erreparatzea ezinbestekoa da.

Esandakoak aintzat hartuz, **berariazko** hainbat adierazle erabiliko ditugu testu mota jakin honetan, batik bat sintaxiari, kohesioari eta koherentziari dagozkion ataletan. DBH 2 eta 3ko testu errealetan aurkitutako adibideak ematen saiatu gara, akats esanguratsuenak erabiliz, irizpideak argi uler daitezen.

## 1. PLANIFIKAZIOA

Alderdi honek aparteko iruzkina behar duelakoan gaude. Izan ere, ikasleekin idazketaren prozesu osoa lantzen dugunean testuaren planifikazioak eta zirriborroak berebiziko garrantzia hartzen dute. Unitate didaktiko baten edo testu mota jakin baten lanketa sistematikoaren ondorioz

ikasleak egindako hasierako planifikazio edo zirriborrotik behin betiko testura egindako hobekuntzak baloratzen ditugu batik bat. Alegia, ikasitakoa erabiliz ikasleak bere zirriborroak berrikusteko eta eraldatzeko izan duen gaitasuna. Prozesuaren beraren balorazio orokorra honako adierazleen bitartez egin genezake:

- Informazioa aukeratzeko sistemaren bat erabili du.
- Planifikazioa modu sintetikoan egin du.
- Zirriborroa idatzi du.
- Zirriborroa edukia eta egitura perfilatzeko lagungarria da.
- Zirriborroa berrikusi eta eraldatu du.

Baina une jakin bateko idazketa-ariketa planteatuz gero, testuaren azken emaitza izango genuke soilik eta, beraz, bestelako balorazioa egin beharko genuke. Horrexegatik mugatu ditugu adierazleak taula orokorrean.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA

### 2.1. HITZ ETA PERPAUS MAILA

#### 2.1.1. Ortografia

➢ Hitzak ongi bereizi ditu.
Adib., *“*ez **naizuen** denborarik galdu”* esaldian.

➢ Oinarrizko ortografia-arauak aplikatu ditu:

❍ H-ren erabileran: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... Adib., *“*berriz zegoen **or** argi **harraro ura**!”* esaldian horrelako hiru akats metatzen dira.

❍ Oro har, txistukarien idazkeran: s/z/x eta ts/tz/tx.

❍ Letra larrien erabileran: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren...

❍ Euskarazko hitzetan gaztelerazko arauak ez aplikatzea: -mp-, mb-, v eta c letren erabilera... Adib, *“*arazoa oso **simplea** zela uste zuen”*.

#### 2.1.2. Lexikoa

➢ Ez du hitzik asmatu. Adib., *“*zeruan ikusi zuen puntu hura oso **ilargitsua** zen”* esaldian.

➢ Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo erdarakadak: Adib., *“*Endikak goiz hartan ikastolara ez joatea **deziditu** zuen” (erabaki)*, edo *“*ez zen inorekin ongi **eramaten**”* (konpontzen, moldatzen...)

➢ Lexiko zehatza erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait...* Alderdi honetan askotan nahasten dira, esate baterako, bera eta berdina, adib., *“*irakasleek **berdina** esaten zuten”* (gauza bera), edo *“*afizio **berdina** zuten”* (berbera).

➢ Hiztegi aberatsa erabili du.

➢ -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: *gauza, aitzakia, garrantzia...* Kontrakoa ere gerta daiteke, alegia, -a itsasia ez duten hitzei –a eranstea, adib., *“*berriz agertu zen **argia** hura.”*

### 2.1.3. Morfosintaxia

- Aditz formak ongi erabili ditu, eta komunztadura zaindu. Adib., *"*Endikak ez **zuen** animaliak ikusi nahi", "*toki horretan ez **zeuden** gudarik"* edo *"*oso azkar hartu **zuten** konfiantza elkarri".*

- Deklinabidea:

  - Oro har, deklinabidea zehaztasunez erabili ditu, kasuak nahasi gabe. Esaterako, posposizioekin, gatik/-gandik., -rentzat/-rako... Adib., *"*Endika **leihoen** gertu jartzen zen beti", "*urte **osoaren** zehar izarrei begira egon ondoren horretaz konturatu zen"* (osoan), edo *"*Mikelen **erruarengandik** zigortu zuten"*.

  - Izen bizidun eta bizigabeak bereizten ditu. Adib., *"*Argi horrek bere **bizitzengan** karga negatiboa zuen"*, edo *"*Gurasoek mediku **batera** eramatea pentsatu zuten."*

  - Mugagabea ongi erabili du. Adib., *"*Hainbat **etxera** joan zen", "***Txikie-tan** irakurritako ipuin bat zirudien".*

  - Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. Hau izaten da etengabe zuzendu beharreko akatsetako bat. Adib., *"*bere senide**ak** eta irakasle**ak** ez zekiten zer gertatzen zitzaion"*.

  - Partitiboa zuzen erabili du: *"*egun horretan ez zuen etxeko **lana**."*

  - Nor Nork saileko adizkiak egoki erabili ditu: *"***Mikeli ikusi zion** gauean."*

- Izenordainak:

  - Izenordain indartuak erabili ditu beharrezkoa denean. Adib., *"- **Nirea** da!- Oihukatu zuen Endikak"* esaldian neurea izango litzateke formarik egokiena.

  - Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: *"*uretara **bota zen**", "***elkar** joan ziren etxera"*...

- Sintaxia:

  - Oro har, sintaktikoki zuzenak diren perpausak osatu ditu.

  - Perpausak bukatu ditu.

- Hitz-ordenari dagokionez:

❍ Galdegaia eta mintzagaia zuzen erabili ditu. Esate baterako, *"*Amak Endikari ea **zergatik hain alai zegoen**"* esaldian ordena traketsa suertatzen da, zergatik partikula galdegaia izaki aditzak bere atzean joan beharko lukeelako.

❍ ERE partikularen erabilera zaindu du.

❍ Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. Adib, *"***guregatik** ➢*
Perpaus elkartuak:

❍ Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *"*Agertu zen gizon bat diru asko **zuela**"* edo *"*zerbait arraroa ikusi zuen zeruan, izar bat **zirudiela**"* bezalakoak saihestuz. Argi dago honelako egiturak gazteleratik jasotako ereduak direla eta aski zabalduak daudela gure ikasleen artean.

❍ Emendiozko juntadura ez du gehiegi erabili.

❍ Denborazko menderagailuak modu zehatz eta aberatsean erabili ditu: *"Etorri bezain laster"*, *"Etorri ondoren"*, *"Etorri bitartean"...*

❍ Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. *...- eta, Bait-, -...enez gero* eta horrelakoak ere erabili ditu.

## 2.2. TESTU MAILA

### 2.2.1. Aurkezpena

➢ Letra ulergarria erabili du.

➢ Marjinak errespetatu ditu.

➢ Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du.

### 2.2.2. Kohesioa

2.2.2.1. Erreferentzia eta konexioa

➢ Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. Esaterako, adibide honetan erabilitako elipsia gehiegizkoa da, eta ulermenean ere hutsunea sortzen du: *"*Gurasoak kezkaturik*

*zeuden. Bazen denboraldi bat Endikak lagunekin hitz egiten ez zuela eta familiarekin ere gero eta gutxiago hitz egiten zuen. Beraz, Endikaren aitarekin eztabaidatu ondoren (**AMAK? ENDIKAK?**), teleskopioa kentzea adostu zuten (**GURASOEK?**)"*.

- Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, narrazioaren egitura markatuko duten antolatzaileen erabilera ezinbestekoa da. Honako adibidean argi dago arazoa adieraziko duen bat-batean... edo antzeko formaren baten beharra:

  *"*... Gauero bezala, teleskopiotik begira egon zen ordu luzetan zehar.*

  *____ Zeruan zerbait ikusi zuen, satelite bat zirudien baina hau berezia zen."*

- Argumentuaren garapenaren berri emateko denborazko antolatzaileak modu egokian erabili ditu: Hasieran,... Ondoren..., Gero..., Bukaeran,...

- Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. Askotan, istoriaren haria galdu eta oharkabean denbora aldaketak gerta daitezke: *"*Hurrengo egunean, azterketara joan ordez, egunkarira joan zen berria kontatzera. Baina ez **dio** inork **sinisten**"*.

### 2.2.2.2. Puntuazioa

- Paragrafoak bereizi ditu, puntu eta aparte eginez.

- Paragrafoak erregularrak dira, eta ez luzeegiak.

- Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz.

- Estilo *zatikatua* saihestu du (perpaus oso laburrak, bata bestearen atzetik).

- Komen erabileraz:

  - Komak erabili ditu aposizioak edo azalpenak tartekatzeko. Adibide honetan garbia da komen beharra: *"*Goiz batean, Endika ikastolan zegoenean, Anabel **bere ama** gelan sartu zen..."*

  - Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. Esaldi honetan, adibidez, ez da betetzen: *"*Hamairu urteko mutil batek kometa bat aurkitu izana, sinestezina iruditu zitzaien."*

- ❍ Bokatiboetan erabili du.
- ❍ Zerrendatzeetan erabili du.
- ❍ Testu antolatzaileekin erabili du.

➢ Bi puntu erabili ditu estilo zuzena hasiko den unean.

➢ Kakotxak erabili ditu estilo zuzena tartekatzean.

➢ Elkarrizketetan gidoiak erabili ditu.

➢ Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu.

### 2.2.3. Koherentzia

➢ Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita.

➢ Narrazioaren sekuentziari jarraitzen dio, eta egitura erraz igartzen da.

➢ Ez dago inkoherentzia partzialik: bat-batean aldatzen edo desagertzen den pertsonaiaren bat...

➢ Ez dago kontraesanik. Esate baterako, aurretik emandako informazioren bat aldatzea...

➢ Errealitatea ez ezagutzetik letorkeen inkoherentziarik ez da ageri.

➢ Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri.

➢ Argumentuaren garapenean gehiegizko saltoak saihestu ditu.

➢ Ekintzaren garapena igartzen da, narrazioa jarraitzea erraza da.

➢ Bukaera ez da bat-batekoa edo justifikatzeko zaila.

### 2.2.4. Egokitasuna

➢ Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa... aintzat hartuz.

➢ Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik.

### 2.2.5. Estiloa

- Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, juntagailuetan...)
- Estilo zatikatua saihestu du, bai eta gehiegizko emendiozko juntadura ere.
- Testu aberatsa da ideietan.
- Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da.

Aurretik zehaztutako adierazle guztiak kontrol zerrenda moduan edo ikasleen testuak zuzentzeko marko gisa erabiltzea zail samar gerta daitekeela jakinda, ondoko taulan laburtzen saiatu gara. Argi dago, modu berean, taula hau ere eskatutako kontsignaren arabera molda daitekeela, adierazle guztiak agertzen ez badira, edo ezaugarri orokorragoak erabili nahi badira.

| NARRAZIO TESTUA | | | | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **PLANIFIKAZIOA** | | | Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | | Ideia aberastasuna antzematen da. | | | | | | |
| | | | Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | | | | |
| **TESTUAREN ZUZENKETA** | **Hitz eta perpaus maila** | **Ortografia** | Hitzak ongi bereizi ditu. | | | | | **0-2** ...0 puntu<br>**3-4** ...1 puntu<br>**5-6** ...2 puntu<br>**7-8** ...3 puntu<br>**9** ...4 puntu<br>**10** ...5 puntu | |
| | | | H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | | | | |
| | | | Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | | | | | | |
| | | | Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | | | | | |
| | | | Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | | | | | | |
| | | **Lexikoa** | Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu.* | | | | | **0-1** ...0 puntu<br>**2** ...1 puntu<br>**3** ...2 puntu<br>**4** ...3 puntu<br>**5** ...4 puntu<br>**6** ...5 puntu | |
| | | | Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | | | | | | |
| | | | - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | | | | | | |
| | | **Morfosintaxia** | Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | | | **0-1-2**...0 puntu<br>**3-4-5-6**...1 puntu<br>**7-8-9**...2 puntu<br>**10-11-12**...3 puntu<br>**13-14**...4 puntu<br>**15-16**...5 puntu | |
| | | | Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: "*uretara bota zen", "*elkar joan ziren etxera"… | | | | | | |
| | | | Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | | | | |
| | | | Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz: **ERE etorri zen otsoa.* | | | | | | |
| | | | Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | | | | | |

*Jarraitzen du...*

| TESTUAREN ZUZENKETA / Testu maila | | NARRAZIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurkezpena | | Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | Marjinak errespetatu ditu. | | | | | | |
| | | Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | | | | | | |
| Kohesioa | Erreferentzia eta Konexioa | Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| | | Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | | | | |
| | | Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | | | | | | |
| | | Argumentuaren garapenaren berri emateko denborazko antolatzaileak modu egokian erabili ditu. *"Hasieran… Ondoren… Hurrengo egunean…"*. | | | | | | |
| | | Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | | | | | |
| | Puntuazioa | Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | | | | **0-1-2**............0 puntu<br>**3-4-5-6**............1 puntu<br>**7-8-9**............2 puntu<br>**10-11-12**..........3 puntu<br>**13-14-15**..........4 puntu<br>**16-17-18**..........5 puntu | |
| | | Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | | | | | |
| | | Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | | | | | | |
| | | Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | | | | |
| | | Bokatiboetan koma erabili du: *"Mikel, nora zoaz?"*. | | | | | | |
| | | Bi puntu erabili ditu estilo zuzena hasiko den unean. | | | | | | |
| | | Kakotxak erabili ditu estilo zuzena tartekatzean. | | | | | | |
| | | Elkarrizketetan gidoiak erabili ditu. | | | | | | |
| | | Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| Koherentzia | | Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita. | | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................2 puntu<br>**3** ..................3 puntu<br>**4** ..................4 puntu<br>**5** ..................5 puntu<br>**6** ..................6 puntu<br>**7** ..................7 puntu<br>**8** ..................8 puntu<br>**9** ..................9 puntu<br>**10** ..................10 puntu | |
| | | Narrazioaren sekuentziari jarraitzen dio, ekintzaren garapena eta egitura erraz igartzen dira. | | | | | | |
| | | Argumentuaren garapenean gehiegizko saltoak saihestu ditu, eta bukaera ez da bat-batekoa edo justifikatzeko zaila. | | | | | | |
| | | Kontraesanak edo inkoherentzia partzialak saihestu ditu, (batez ere, errealitatea ez ezagutzetzik sor daitezkeenak). | | | | | | |
| | | Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | | | | | | |
| Egokitasuna | | Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | | | | | **0**...0 puntu<br>**1**...1 puntu<br>**2**...3 puntu<br>**3**...4 puntu<br>**4**...5 puntu | |
| | | Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | | | | | | |
| Estiloa | | Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan...). | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | Testu aberatsa da ideietan. | | | | | | |
| | | Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | | | | |

## NARRAZIO TESTUA. 1. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Narrazio bat idatzi beharko duzu, Liburuaren Egunean, apirilaren 23an, DBH 1eko ikasleen aurrean aretoan egingo dugun irakurketa ozenean irakurtzeko. Zure istorioak berezitasun bat izango du: emandako hasiera bati jarraitu beharko diozu. Hauxe da zure istorioa izango denaren hasiera:

**"Bazen behin Endika izeneko 13 urteko mutil bat. Bere bizitzan ardura zion gauza bakarra astronomia zen. Gauero teleskopioa hartu eta izarrei begira egoten zen zoriontsu. Ez zion axola nota kaxkarrak ateratzeak, edo lagun gehiegirik ez izateak... Unibertsoa parez pare zuenean, ez zuen beste ezeren beharrik. (...)"**

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa. Horretarako lagungarri izan daitezke honako alderdiak:

- Istorioak egoera aldaketaren bat planteatu beharko du interesgarria izateko. Zein izango da?
- Arazo horrek konponbiderik ba al du?
- Konponbide horretara iristeko zein ekintza proposatuko dituzu?
- Istorioaren amaiera ere borobildu beharko duzu. Nola?

PLANIFIKAZIOA

- Ikastolara joaten zen, baina ez balego bezala zen. Beti astronomian pentsatzen zegoen.

Bere teleskopioa bere lagun onena bezala zen, inor baino gehiago maite zuen.

Gauero bezala, teleskopioa hartzen zuen eta ilargiari, [redacted] izarrei... begiratzen zuen eta gero kontu handiz gorde egiten zuen.

- GERTAERA:

Egun batean, argi bat arraro bat ikusi zuen teleskopioarekin. Lentea hurbildu zuen eta estraterrestreak zirela pentsatzen zuen.

Oso hurduri jarri zen eta ikastolan estraterrestretan pentsatzen zegoen ordu horietan.

Azterketa bat prestatu behar zuen hurrengo egunerako baina arratsalde ezin zen kontzentratu. Behin eta berriz pentsatu eta gero, ideia bat atera zuen: estraterrestreak inbaditu behar zituztela pentsatu zuen.

Azterketara joan beharrean, egunkarira joaten da berria esatera.

Baina inor ez dio sinisten eta gainera, 0 bat atera zuen.

- Lagun bat bere etxera joan zen lo egitera eta teleskopioa erakutsi zion, bion artean kometa bat zela konturatu ziren eta ez estraterrestreen kontuak.

Kometari Endika izena jarri zioten eta oso ospetsua egin zen.

**BEHIN-BETIKO TESTUA**

ASTRONOMOA:

Endika ikastolara joaten zen, baina ez balego bezala zen. Beti astronomian pentsatzen zegoen. Lagun bat zuen Mikel izenekoa, hari astronomia gustatzen zitzaion ere baina ez Endikari bezain haina. Bere teleskopioa bere lagun onena zen bezalakoa zen, inor baino geiago maite zuen. Gauero, teleskopioa kontu handiz hartu eta gordetzen zuen.

Egun batean, argi arraro bat ikusi zuen, teleskopioarekin, zeruan. Lentea urbildu zuen eta estraterrestreak izango zirela pentsatu zuen. Oso urduri jarri zen eta ikastolako orduetan estraterrestreetan [redacted] pentsatzen zegoen. Ezin izan zuen lo egin gau osoan eta bazirudien ikastolan lo egin behar zuela. Arratsaldean, azterketa bat prestatu behar zuen, baina ezin zen kontzentratu. Behin eta berriz pentsatu eta gero teoria bat atera zuen: estraterrestreak lurra planeta inbaditu nahi zutela. Txikietan irakurritako kontuak zirudien, baina bere teleskopioarekin ikusten zuena zen.
Urrengo egunean azterketara joan ordez, egunkarira joan zen berria kontatzera. Baina ez dio inor sinisten. Zoro bat zela pentsatzen zuten. Gauean Mikel etxera gonbidatu zuen eta Mikel Endikaz barre egin zuen, argi arraro hura erakustean. Kometa bat zela esan zuen, baina kometa

ori ez zuen inoiz ikusi. Berria zela esaten
zuen Mikel.
Inoiz ikusi gabeko kometa bat aurkitu zuten
zeruan.
Endikak azterketan zero bat atera zuen,
baina berria esatera joan ziren, eta herri
guztiak ikusi zuten. 13 urteko mutil batek
kometa bat aurkitu izana, sinestezina
iruditzen zitzaien. Baina kometari Endika
izena ezarri zioten, Endikaren onean.
Urteak pasa eta gero oso ospetsua izan
zen eta astronomo biurtu zen.

## PLANIFIKAZIOA

- Ikastolara joaten zen, baina ez balego bezala zen. Beti astronomian pentsatzen zegoen.
  Bere teleskopioa bere lagun onena bezala zen, inor baino geiago maite zuen.
  Gauero bezala, teleskopioa hartzen zuen eta ilargiari, izarrei... begiratzen zuen eta gero kontu handiz gorde egiten zuen.
- GERTAERA:
  Egun batean, argi bat arraro bat ikusi zuen teleskopioarekin. Lentea urbildu zuen eta estraterrestreak zirela pentsatzen zuen. Oso hurduri jarri zen eta ikastolan estraterrestetan pentsatzen zegoen ordu horietan.
  Azterketa bat prestatu behar zuen hurrengo egunerako baina arratsalde ezin zen konzentratu. Behin eta berriz pentsatu eta gero, ideia bat atera zuen: Estraterrestreak inbaditu behar zituztela pentsatu zuen. Azterketara joan beharrean, egunkarira joaten da berria esatera. Baina inor ez dio sinisten eta gainera, azterketan 0 bat atera zuen.
- Lagun bat bere etxera joan zen lo egitera eta teleskopioa erakutsi zion, bion artean kometa bat zela konturatu ziren eta ez estraterresteen kontuak.
  Kometari Endika izena jarri zioten eta oso ospetsua egin zen.

## BEHIN BETIKO TESTUA

ASTRONOMOA

(...)

Endika ikastolara joaten zen, baina ez balego bezala zen. Beti astronomian pentsatzen zegoen. Lagun bat zuen Mikel izenekoa, hari astronomia gustatzen zitzaion ere baina ez Endikari bezain haina. Bere teleskopioa bere lagun onena zen bezalakoa zen, inor baino geiago maite zuen.
Gauero, teleskopioa kontu handiz hartu eta gordetzen zuen.

Egun batean, argi arraro bat ikusi zuen, teleskopioarekin, zeruan. Lentea urbildu zuen eta estraterrestreak izango zirela pentsatu zuen. Oso urduri jarri zen eta ikastolako orduetan estraterrestreetan pentsatzen zegoen. Ezin izan zuen lo egin gau osoan eta bazirudien ikastolan lo egin behar zuela.
Arratsaldean, azterketa bat prestatu behar zuen, baina ezin zen konzentratu. Behin eta berriz pentsatu eta gero teoria bat atera zuen: estraterrestreak lurra planeta inbaditu nahi zutela. Txikietan irakurritako kontuak zirudien, baina bere teleskopioarekin ikusten zuena zen.
Urrengo egunean azterketara joan ordez, egunkarira joan zen berria kontatzera. Baino ez dio inor sinisten. Zoro bat zela pentsatzen zuten. Gauean Mikel etxera gonbidatu zuen eta Mikel Endikaz barre egin zuen, argi arraro hura erakustean. Kometa bat zela esan zuen, baina kometa ori ez zuen inoiz ikusi. Berria zela esaten zuen Mikel.

Inoiz ikusi gabeko kometa bat aurkitu zuten zeruan.

Endikak azterketan zero bat atera zuen, baina berria esatera joan ziren, eta herri guztiak ikusi zuten. 13 urteko mutil batek kometa bat aurkitu izana, sinestezina iruditzen zitzaien. baina kometari Endika izena ezarri zioten, Endikaren onean.

Urteak pasa eta gero oso ospetsua izan zen eta astronomo biurtu zen.

| NARRAZIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | | | X | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | X | 2 | | **1** |

- Ikasle honen planifikazioa nahikoa eskasa dela esango genuke. Egia da informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili duela, baina ez da gidoi bat, ez da eskema bat, eta ez da zirriborro oso bat ere, hiruren arteko nahasketa baizik. Ez da, beraz, planifikazio sintetikoa, narrazioaren egiturari jarraitzen diona.
- Horretaz gain, istorioaren arazoa, ekintzak eta amaierako egoera identifika daitezkeen arren, ideietan ez da aberastasunik antzematen.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA
## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | X | | | | **0-2** ....0 puntu<br>**3-4** ....1 puntu<br>**5-6** ....2 puntu<br>**7-8** ....3 puntu<br>**9** ....4 puntu<br>**10** ....5 puntu | |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | X | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | X | | | | |
| Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | X | | | 7 | | **3** |

- Hitzen banaketan ez du akatsik eta ez du gaztelerazko araurik edo idazkerarik aplikatu (*teleskopio,inbaditu, kometa eta estraterrestre* maileguetan, esaterako, euskarazko grafia erabili du).
- Txistukarien erabileran akatsik egiten ez duen bitartean, h fonemaren idazkeran arazoak ditu: ***ori, geiago, urbildu, urrengo, biurtu***... bezalako adibideak aurki ditzakegu testuan.
- Letra larrien erabileran ere bi akats egin ditu, bata ***lurra*** planeta esaten duenean eta bestea testuaren bukaera aldean, puntu ondoko ***baina*** letra xehez idatzi duenean. Testu osoan zehar bakarrak izanik oharkabean egindako akatsak direla pentsa daiteke, gainontzeko izen bereziak eta

puntu ondoko hitzak ongi idatzi baititu. Hori dela eta, zalantzazko puntuazioa eman diogu.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu.* | | X | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | | X | | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | X | | | 4 | | **3** |

- Oro har euskarazko forma jatorrak erabili baditu ere, *inbaditu, konzentratu edo estraterrestre* bezalako hitzak saihestea bazeukan. Horrexegatik, zalantzan jarri dugu lehenengo adierazlea.
- Bestetik, lexikoaren erabilera nahikoa zehatza bada ere, adibide bakan batzuei begiratuz alderdi hau ere zalantzan utzi dugu: *"berria kontatzera"* eta *"berria esatera"* dioenean ematera litzateke egokiago, eta are argiagoa dena testuaren bukaeran ageri da: *"*Endikaren onean"* esaten du, Endikaren omenez esan nahiko lukeenean.
- Azkenik, ez da –a itsatsiaren edo mugatzailearen erabileran akatsik ikusten.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | X | | **0-1-2**............0 puntu<br>**3-4-5**............1 puntu<br>**6-7-8**............2 puntu<br>**9-10**............3 puntu<br>**11-12**............4 puntu<br>**13-14**............5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | X | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | X | | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | X | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | | | X | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | X | | 3 | | **1** |

Atal hau da testu honek duen alderdi ahulenetako bat.

- Alde batetik, sintaktikoki traketsak edo erabat okerrak diren perpausak erabiltzen ditu:
  - *"*Hari ere astronomia gustatzen zitzaion, baina ez Endikari **bezain haina**"* esaldian, esaterako, konparazioa gaizki egin du, eta bezainbeste beharko luke.
  - *"*Teleskopioa bere lagun onena **zen** bezalakoa zen"* esaldian ere oker egin du konparazioa.
- Horrez gain, sintaktikoki komunztaduran ere hutsuneak ikus daitezke. Honen adibide dira honakoak: *"*kontuak **zirudien**", "*herri guztiak ikusi **zuten**".*
- Nor eta Nork kasuen arteko nahasketa ere argia da: *"****Mikel** Endikaz barre egin zuen", "*ez dio **inor** sinisten", "****estraterrestreak** planeta inbaditu nahi zutela"...*
- Hitz ordenean, ERE partikularen erabileran honakoa aurki dezakegu: *"*hari astronomia gustatzen zitzaion **ere**."*
- Bestetik, zalantzazko puntuazioa eman diogun arren, badira gaztelerazko egiturari jarraitzen diola adierazten duten adibideak, aditzaren aspektuan bereziki: *"*beti astronomian pentsatzen **zegoen**"* erabiltzen du, adibidez.
- Sintaxiarekin jarraituz, zalantzazko puntuazioa eman diogu, era berean, laugarren adierazleari. Izan ere, ez da lokailu edo juntagailu aniztasun gehiegirik igartzen, bereziki aurkaritza adieraztean baina da nagusi, zortzi bider ageri baita.
- Deklinabidean, bi akats ageri dira, lehenengoa mugagabearen erabilerari dagokiona, *"****txikietan** irakurritako ipuinak"* esaldian ageri dena, eta bizidunen deklinabideari dagokiona bestea, *"****estraterrestreetan** pentsatzen zegoen"* adibidean. Bestelako mugagabe eta bizidunetan akatsik ez dagoenez, zalantzazko puntuazioa eman diogu adierazle honi ere.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

### AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | **X** | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu | **4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu |
| Marjinak errespetatu ditu. | **X** | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | **X** | | | 6 | | **5** |

- Testua nahiko txukun dago eta paragrafoak ere bereizi ditu.

## KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | X | | | 0-2 ..........0 puntu<br>3-4 ..........1 puntu<br>5-6 ..........2 puntu<br>7-8 ..........3 puntu<br>9 ..........4 puntu<br>10 ..........5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | X | | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | | X | | | | |
| Argumentuaren garapenaren berri emateko denborazko antolatzaileak modu egokian erabili ditu. *"Hasieran… Ondoren… Hurrengo egunean…"*. | X | | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | X | | 6 | | **5** |

- Oro har, erreferentzia ongi mantendu du, ordezkapena eta elipsia egoki erabiliz. Hala ere, adibide batean erreferentzia ez da argi adierazten, elipsia ilun suertatzen baita: *"Gauean Mikel etxera gonbidatu zuen eta Mikel Endikaz barre egin zuen, argi arraro hura erakustean. Kometa bat zela esan zuen, baina kometa hori ez zuen inoiz ikusi (**NORK**?). Berria zela esaten zuen Mikel."*
- Bestalde, inoiz gehiegizko errepikapenak ikus daitezke, *"**bere** teleskopioa **bere** lagun onena zen."*.., edo bainaren gehiegizko errepikapenean.
- Aditz denboraren erlazioa, oro har, ongi darabil, ekintza lehenaldi burutuan eta burutugabean kontatuz. Hala ere, behin huts egiten du *"Baina ez dio inor sinisten"* esaldian, lapsus bat izan balu bezala. Hori dela eta, zalantzazko puntuazioa eman diogu.
- Azkenik, esan daiteke testuan denborazko antolatzaileak bereziki egoki erabili dituela argumentuaren garapenaren berri emateko, paragrafoen hasieran: *Gauero, Egun batean, Arratsaldean, Hurrengo egunean, Urteak pasa eta gero*... Bestelako antolatzaileak eskasagoak eta errepikakorragoak dira.

## KOHESIOA: PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | X | | | 0-2..........0 puntu<br>3-4..........1 puntu<br>5..........2 puntu<br>6..........3 puntu<br>7..........4 puntu<br>8..........5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | | X | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | X | | 5 | | **2** |

- Atal honetan komaren erabilera da alderdirik ahulena. Hasteko, subjektuaren eta predikatuaren artean behin jartzen du, *“13 urteko mutil batek kometa bat aurkitu izana, sinestezina iruditzen zitzaien”* esaldian. Horrelako gehiagorik ez dagoenez, zalantzazko puntuazioa eman diogu.
- Bestalde, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin koma egoki erabili badu ere, bada aposizio bat, non ez duen behar bezala adierazi: *“Lagun bat zuen Mikel izenekoa”*.
- Zalantzagarria da, era berean, paragrafoen banaketa. Argi dago paragrafoak bereizi dituela, baina irizpide garbirik gabe, esango genuke. Badira bi, bata testuaren hasieran eta bestea bukaeran, perpaus bakarrekoak, eta lerro bakar bat betetzen dutenak. Besteak luzeagoak eta erregularragoak dira.

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita. | X | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................2 puntu<br>**3** ..................3 puntu<br>**4** ..................4 puntu<br>**5** ..................5 puntu<br>**6** ..................6 puntu<br>**7** ..................7 puntu<br>**8** ..................8 puntu<br>**9** ..................9 puntu<br>**10** ..................10 puntu | |
| Narrazioaren sekuentziari jarraitzen dio, ekintzaren garapena eta egitura erraz igartzen dira. | X | | | | | |
| Argumentuaren garapenean gehiegizko saltoak saihestu ditu, eta bukaera ez da bat-batekoa edo justifikatzeko zaila. | | | X | | | |
| Kontraesanak edo inkoherentzia partzialak saihestu ditu, (batez ere, errealitatea ez ezagutzetzik sor daitezkeenak). | | | X | | | |
| Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | X | | | 6 | | **6** |

- Koherentziari dagokionez testuak baditu hainbat alderdi on: testuaren zentzua erraz jasotzen da, ekintzak aurrera egiten du...
- Hala ere, argumentuaren garapenean inkoherentzia edo salto nabarmenik badago. Adibidez, protagonistak argi bat ikusi eta bat-batean *“teoria bat atera zuen: estraterrestreek lurra planeta inbaditu nahi zutela”*. Antzekoa gertatzen da *“kometa berri bat deskubritu zuten eta ondoren berria esatera joan ziren”* pasartean. Ez da sinesgarria bi mutilak euren kabuz aurkikuntzaz jabetzea, eta gero besteei berria ematea.

## EGOKITASUNA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | X | | | | **0**...0 puntu<br>**1**...1 puntu<br>**2**...3 puntu<br>**3**...4 puntu<br>**4**...5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | X | | | 4 | | **5** |

Egokitasunaren alderdian ez genuke ezer aipagarririk esateko.

- Emandako kontsignari jarraitzen dio.
- Ipuinaren tonua, erregistroa, kontatzeko modua... eskatutakoarekin bat dator.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan...). | | X | | | **0-2** ....0 puntu<br>**3-4** ....1 puntu<br>**5** ....2 puntu<br>**6** ....3 puntu<br>**7** ....4 puntu<br>**8** ....5 puntu | |
| Testu aberatsa da ideietan. | | | X | | | |
| Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | X | 2 | | **0** |

Arlo honetan testua oso maila baxukoa da.

- Ideien aldetik idazleak ez du ahalegin handirik egin ipuin erakargarri bat egiteko.
- Adierazpenari dagokionez, lexikoa arrunta da, bai eta egitura gehienak ere. Batzuetan oso esaldi sinpleak erabili ditu, laburregiak akaso.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa............ 1 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 2 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 3 | KOH. Puntuazioa........................... 2 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa .................... 3 | Koherentzia.................................. 6 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Morfosintaxia........... 1 | Egokitasuna ................................ 5 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | **2. MAILA** |
| Aurkezpena .............. 5 | Estiloa .......................................... 0 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 28 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

## NARRAZIO TESTUA. 2. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Narrazio bat idatzi beharko duzu, Liburuaren Egunean, apirilaren 23an, DBH1eko ikasleen aurrean aretoan egingo dugun irakurketa ozenean irakurtzeko. Zure istorioak berezitasun bat izango du: emandako hasiera bati jarraitu beharko diozu. Hauxe da zure istorioa izango denaren hasiera:

**"Bazen behin Endika izeneko 13 urteko mutil bat. Bere bizitzan ardura zion gauza bakarra astronomia zen. Gauero teleskopioa hartu eta izarrei begira egoten zen zoriontsu. Ez zion axola nota kaxkarrak ateratzeak, edo lagun gehiegirik ez izateak... Unibertsoa parez pare zuenean, ez zuen beste ezeren beharrik. (...)"**

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa. Horretarako lagungarri izan daitezke honako alderdiak:

- Istorioak egoera aldaketaren bat planteatu beharko du interesgarria izateko. Zein izango da?
- Arazo horrek konponbiderik ba al du?
- Konponbide horretara iristeko zein ekintza proposatuko dituzu?
- Istorioaren amaiera ere borobildu beharko duzu. Nola?

PLANIFIKAZIOA

Hasiera: Gauero izarrak begiratu, ez zuen beste ezer nahi.

Gertaera → Zerbait bitxia ikusi zuen gau batean: izar bat pixkanaka mugitzen zen.

Gertaera → Bere gurasoak kezkaturiz zeuden, ez zen lagunekin egoten, gero eta gutxiago hitz egin. Horregatik, amak teleskopioa kendu zion eta Endika etxetik joan zen.

Ekintza: gurasoek gauez bilatu zuten, izarrak begiratzen egongo zelakoan. Baina ez zuten aurkitu.

Amaiera: Ez zuten inoiz ere aurkitu, ez zuten inoiz ikusi.

# IZARREKIN OBSESIONATURIK.

**BEHIN-BETIKO TESTUA**

Gauero bezala, Endika izarrak begiratzen aritu zen, zo-
riontsu, beste ezertan pentsatu barik. Baina, oheratzera
zihoan momentuan, zerbaitek bere arreta bereganatu
zuen: izar bat modu bitxian mugitzen ari zen, berak
inoiz ikusi ez zuena. Oso arraroa iruditu zitzaion,
horregatik, beste ordu batez aritu zen teleskopiotik
begira. Gauerdia zen eta ohean egon beharko zu-
keen, nahiz eta horretarako
gogorik ez izan. Bat-batean, amaren pausuak entzun
zuiten eskaileretatik gora eta, orduan bai, ohean
sartu zen, amarekin eztabaidarik ez izateko.
Hurrengo egunean eskolara joan behar zen eta beran-
du oheratu arren, ohi baino lehenago iratzarri zen,
gertakari bitxiaz gozatzeko. Tamalez, ez zuen
ezer gehiagorik ikusi, izarrak beti bezala zeuden. Es-
kolara haserreturik joan zen eta ez zuen inorekin hitz
egin. Egun horretan eta ondokoetan klasean ez zuen
kasurik egiten, eta etxean zegoenean bere familia
egongo ez balitz bezala jokatzen zuen, obsesionaturik
zebilen. Orduak ematen zituen teleskopian, izar
mugikor haren bila.
Bitartean, hori ikusita, gurasoak oso kezkaturik
zeuden. Bazen denboraldi bat lagunekin hitz egiten
ez zuela, eta gutxiago erlazionatzen zen familiarekin
ere. Beraz, Endikaren aitarekin eztabaidatu ondoren,
teleskopioa kentzea adostu zuten. Egun horretan
bertan burutu zuten plan hori, semea eskolan zegoela.
Egun hartan Endika etxera iristeko irrikaz zegoen,
astronomiako kriston liburu pila hartu zuelako liburutegitik.
Baina iristean, inoiz ez bezala haserretu zen. Teleskopioa
kendu ziotela ikusi zuenean. Orduan, bere motxila gus-
tokoena hartu, kamiseta eta praka batzuk bertan sartu

eta alde egin zuen. Kokateriano zegoen, inork
ez zuen bere jarrera ulertzen. Hurrengo egun eta
~~hilabeteetan~~ hilaboteetan gurasoek Endika bilatu zuten,
batez ere gauez, izarrak begiratzen egongo zelakoan.
Hala ere, egunak pasa ziren eta Endika ez zen
inondik ageri. Inork ez zuen handik aurrera ikusi.

## PLANIFIKAZIOA

Hasiera: Gauero izarrak begiratu, ez zuen beste ezer nahi.

Gertaera →
- Zerbait bitxia ikusi zuen gau batean: izar bat pixkanaka mugitzen zen.
- Bere gurasoak kezkaturik zeuden, ez zen lagunekin egoten, gero eta gutxiago hitz egin. Horregatik, amak teleskopioa kendu zion eta Endika etxetik joan zen.

Ekintza: gurasoek gauez bilatu zuten, izarrak begiratzen egongo zelakoan. Baina ez zuten aurkitu.
Amaiera: Ez zuten inoiz ere aurkitu, ez zuten inoiz ikusi.

## BEHIN BETIKO TESTUA

IZARREKIN OBSESIONATURIK

(...)

Gauero bezala, Endika izarrak begiratzen aritu zen, zoriontsu, beste ezertan pentsatu barik. Baina, oheratzera zihoan momentuan, zerbaitek bere arreta bereganatu zuen: izar bat modu bitxian mugitzen ari zen, berak inoiz ikusi ez zuena. Oso arraroa iruditu zitzaion, horregatik, beste ordu batez aritu zen teleskopiotik begira. Gauerdia zen eta ohean egon beharko zukeen, nahiz eta horretarako gogorik ez izan. Bat-batean, amaren pausuak entzun zituen eskaileretatik gora eta, orduan bai, ohean sartu zen, amarekin eztabaidarik ez izateko.

Hurrengo egunean eskolara joan behar zen eta berandu oheratu arren, ohi baino lehenago iratzarri zen, gertakari bitxiaz gozatzeko. Tamalez, ez zuen ezer gehiagorik ikusi, izarrak beti bezala zeuden. Eskolara haserreturik joan zen eta ez zuen inorekin hitz egin. Egun horretan eta ondokoetan klasean ez zuen kasurik egiten, eta etxean zegoenean bere familia egongo ez balitz bezala jokatzen zuen, obsesionaturik zebilen. Orduak ematen zituen teleskopioan, izar mugikor haren bila.

Bitartean, hori ikusita, gurasoak oso kezkaturik zeuden. Bazen denboraldi bat lagunekin hitz egiten ez zuela, eta gero eta gutxiago erlazionatzen zen familiarekin ere. Beraz, Endikaren aitarekin eztabaidatu ondoren, teleskopioa kentzea adostu zuten. Egun horretan bertan burutu zuten plan hori, semea eskolan zegoela.

Egun hartan Endika etxera iristeko irrikaz zegoen, astronomiako kriston liburu pila hartu zuelako liburutegitik. Baina iristean, inoiz ez bezala haserretu zen. Teleskopioa kendu ziotela ikusi zuenean. Orduan, bere motxila gustukoena hartu, kamiseta eta praka batzuk bertan sartu eta alde egin zuen. Kokoteraino zegoen, inork ez zuen bere jarrera ulertzen. Hurrengo egun eta hilabeteetan gurasoek Endika bilatu zuten, batez ere gauez, izarrak begiratzen egongo zelakoan. Hala ere, egunak pasa ziren eta Endika ez zen inondik ageri. Inork ez zuen handik aurrera ikusi.

| NARRAZIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | | X | | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | X | | | 5 | | **4** |

- Ikasle honek testuaren planifikazioa modu egokian egin du: sintetikoa, eskatutako testu motaren egiturari jarraitzen diona, eta funtsean, behin-betiko testuaren bizkar-hezurra izango dena.
- Hala eta guztiz ere, ez da ideietan aberastasun handirik antzematen. Bukaera oso pobrea da.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | X | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | X | | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |
| Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | X | | | 10 | | **5** |

- Ez dago testuan akats ortografiko bakar bat ere.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu.* | X | | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | X | | | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | X | | | 6 | | **5** |

- Testua erabat zuzena eta aberatsa da erabilitako hiztegiari dagokionez.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | X | | | | 0-1-2............0 puntu<br>3-4-5............1 puntu<br>6-7-8............2 puntu<br>9-10............3 puntu<br>11-12............4 puntu<br>13-14............5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | X | | | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | X | | | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | X | | | 14 | | 5 |

Morfosintaxiaren alderdian ere testua erabat zuzena da:

- Deklinabidea egoki erabiltzen du, bereziki Nor eta NORk erako subjektuak primeran bereizten ditu.
- Komunztadura zaintzen du.
- Hitzordena ere egokia da, baita ERE partikularen erabilera ere: *"gero eta gutxiago erlazionatzen zen familiarekin ere"*.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

## AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | | X | | | 0-1...0 puntu<br>2...1 puntu<br>3...2 puntu<br>4...3 puntu<br>5...4 puntu<br>6...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | X | | | 5 | | 4 |

- Testua nahiko txukun dago, hala ere, ez dago erabat garbia. Paragrafoak, berriz, ongi bereizi ditu.

## KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | X | | | | 0-2 ..........0 puntu<br>3-4 ..........1 puntu<br>5-6 ..........2 puntu<br>7-8 ..........3 puntu<br>9 ..........4 puntu<br>10 ..........5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | X | | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | X | | | | | |
| Argumentuaren garapenaren berri emateko denborazko antolatzaileak modu egokian erabili ditu. *"Hasieran… Ondoren… Hurrengo egunean…"*. | X | | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 9 | | **4** |

- Oro har, testuak ongí zaintzen du ideien arteko lotura, eta hainbat motatako antolatzaile eta lokailu erabiltzen ditu. Esaterako, denborazkoak (*Gauero bezala, bat-batean, hurrengo egunean, bitartean*...), kausa eta ondoriozkoak (*horregatik, beraz*...), kontrajarpenezkoak (*baina, hala ere*)...
- Erreferentzia ere ongi zaindu du testu gehienean, baina badago adibide bat ilun samar suertatzen dena: *"Beraz, **Endikaren aitarekin eztabaidatu ondoren**, teleskopioa kentzea adostu zuten. Egun horretan bertan burutu zuten plan hori, semea eskolan zegoela"*. Suposa dezakegu ama dela aitarekin eztabaidatzen aritu dena, eta gurasoak teleskopioa kentzea adostu zutenak. Hala ere, ilunago bihurtzen du esaldia.

## KOHESIOA: PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | 0-2..........0 puntu<br>3-4..........1 puntu<br>5..........2 puntu<br>6..........3 puntu<br>7..........4 puntu<br>8..........5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | X | | | 8 | | **5** |

- Testuak ez du puntuazio aldetik hutsunerik. Paragrafoen banaketa eta puntuazio ikurren erabilera egokia da.

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita. | X | | | | 0 ...0 puntu<br>1 ...1 puntu<br>2 ...2 puntu<br>3 ...3 puntu<br>4 ...4 puntu<br>5 ...5 puntu<br>6 ...6 puntu<br>7 ...7 puntu<br>8 ...8 puntu<br>9 ...9 puntu<br>10 ...10 puntu | |
| Narrazioaren sekuentziari jarraitzen dio, ekintzaren garapena eta egitura erraz igartzen dira. | X | | | | | |
| Argumentuaren garapenean gehiegizko saltoak saihestu ditu, eta bukaera ez da bat-batekoa edo justifikatzeko zaila. | | | X | | | |
| Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | X | | | | | |
| Kontraesanak edo inkoherentzia partzialak saihestu ditu. | | X | | 7 | | 7 |

- Testuak, oro har, koherentzia zaintzen duela esan genezake: testuaren zentzua erraz jasotzen da, ekintzak aurrera egiten du, hautatutako informazioa egokia da...
- Hala ere, inkoherentziaren bat agertzen da. Esaterako, *"Hurrengo egunean (...) ohi baino lehenago iratzarri zen, gertakari bitxiaz gozatzeko. Tamalez, ez zuen ezer gehiagorik ikusi, izarrak beti bezala zeuden"* pasartean ez du zentzu gehiegirik izarrak goizez ikusteak. Oraindik ilun bazegoen, berariaz azaldu beharko zukeen. Bestela, testuak sinesgarritasuna gal dezake puntu honetan.
- Ipuinaren bukaera justifikatzeko zaila dela esan genezake. Izan ere, ipuina arazoaren unera iritsitakoan ematen zaion irtenbidea, hala dei badezakegu, nahiko bat-batekoa da: "Endika bilatu zuten, batez ere gauez, izarrak begiratzen egongo zelakoan. Hala ere, egunak pasa ziren eta Endika ez zen inondik ageri. Inork ez zuen handik aurrera ikusi". Ez zioten poliziari deitu, edo beste biderik bilatu... Ipuina hankamotz geratzen dela esan genezake, beraz.

## EGOKITASUNA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | X | | | | 0...0 puntu<br>1...1 puntu<br>2...3 puntu<br>3...4 puntu<br>4...5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | | X | | 3 | | 4 |

- Testua oro har egokia da, baina badira bi espresio, lagunartekoak izan daitezkeenak, eta ipuinaren tonu orokorrarekin bat ez datozenak: *"**Kokoteraino** zegoen, inork ez zuen bere jarrera ulertzen"* eta "*astronomiako **kriston liburu** pila hartu zuelako liburutegitik*". Lehenengoa onargarri izan liteke, mutilaren pentsamendua islatzeko erabili duela baitirudi. Bigarrena, ordea, narratzaileak ordura arte erabilitako erregistrotik urruntzen da.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan...). | X | | | 7 | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | **4** |
| Testu aberatsa da ideietan. | | X | | | | |
| Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | X | | | | | |

- Testuaren estiloa oso aberatsa da, adierazpenean batik bat.
- Hankamotz geratzen dena, planifikazioan ere aipatu bezala, ideien arloa izango litzateke, bukaera bereziki.

| | | MAILAK | GAITASUN MAILA: |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa............ 4 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 4 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | **4. MAILA** |
| Ortografia ................ 5 | KOH. Puntuazioa........................... 5 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Lexikoa .................... 5 | Koherentzia................................... 7 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | |
| Morfosintaxia........... 5 | Egokitasuna ................................. 4 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| Aurkezpena .............. 4 | Estiloa .......................................... 4 | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 47 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

# III. Deskripzio testua

Deskribatzea gauza, toki edo pertsona bat nolakoa den azaltzea da. Eskuarki, deskripzio sekuentziak bestelako testuen barruan txertaturik agertzen dira, eta ez bakarrik.

Deskribagaiari dagozkion zatiak espazioaren ardatz batean adierazita agertuko dira eta, gainera, ordena jakinean azalduko dira. Era berean, deskribapena objektiboa edo subjektiboa izan daiteke eta, horrez gain, mota ezberdinetakoa ere: erretratua, fitxa teknikoa...

Hizkuntza baliabideei dagokienez, honako ezaugarriak ditu berezkoak testu mota honek:

- Emendiozko konektoreak eta lokalizatzaile espazialak nagusitzen dira.
- Erabiltzen diren aditz-denborak indikatibozko orainaldia eta iraganaldi burutugabea izan ohi dira.
- Honako atal hauek bereiz daitezke:
    - · **Tema**, deskribatzekoa adierazten duena.
    - · **Hedapena**, Deskribatzen denaren zatien irudikapena. Arestian esan bezala, zati edo atal horiek ordena zehatz batean agertu ohi dira. Deskribagaiaren arabera, ordena espaziala (goitik behera, behetik gora, alboetatik erdirantz...), orokorretik zehatzera edo zehatzetik orokorrera, edota izaera fisikoa eta psikologikoa bereiziz, pertsonen kasuan.

Narrazioarekin egin dugun bezala, deskripzio testuei dagozkien adierazleak emango ditugu jarraian. Ikusiko denez, horietako asko aurrekoan ere azaldu zaizkigu. Atal honetan ere DBH 2 eta 3ko testu errealetan aurkitutako adibideak eman ditugu, adierazleak erraz identifikatzeko lagungarriak izan daitezen.

## 1. PLANIFIKAZIOA

Alderdi honek aparteko iruzkina behar duelakoan gaude. Izan ere, ikasleekin idazketaren prozesu osoa lantzen dugunean testuaren planifikazioak eta zirriborroak berebiziko garrantzia hartzen dute. Unitate didaktiko baten edo testu mota jakin baten lanketa sistematikoaren ondorioz ikasleak egindako hasierako planifikazio edo zirriborrotik behin-betiko testura egindako hobekuntzak baloratzen ditugu batik bat. Alegia, ikasitakoa erabiliz ikasleak bere zirriborroak berrikusteko eta eraldatzeko izan duen gaitasuna. Prozesuaren beraren balorazio orokorra honako adierazleen bitartez egin genezake:

- Informazioa aukeratzeko sistemaren bat erabili du.
- Planifikazioa modu sintetikoan egin du.
- Zirriborroa idatzi du.
- Zirriborroa edukia eta egitura perfilatzeko lagungarria da.
- Zirriborroa berrikusi eta eraldatu du.

Baina une jakin bateko idazketa-ariketa planteatuz gero, testuaren azken emaitza izango genuke soilik eta, beraz, bestelako balorazioa egin beharko genuke. Horrexegatik mugatu ditugu adierazleak taula orokorrean.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA

### 2.1. HITZ ETA PERPAUS MAILA

#### 2.1.1. Ortografia

➢ Hitzak ongi bereizi ditu.

➢ Oinarrizko ortografia-arauak aplikatu ditu.

❍ H-ren erabileran: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... Oinarrizko aditz formetan ere honelakoak askotan ikusten ditugu: *“*nahiko argala **nahiz**”*

❍ Oro har, txistukarien idazkeran: s/z/x eta ts/tz/tx.

❍ Letra larrien erabileran: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren...

- ❍ Euskarazko hitzetan gaztelerazko arauak ez aplikatzea: -mp-, mb-, v eta c letren erabilera...

### 2.1.2. Lexikoa

- ➢ Ez du hitzik asmatu.
- ➢ Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo erdarakadak: Adib., *"*futbola **praktikatzen** dut", "*jendeak esaten du **salatua** naizela", "*ondo **eramaten** naiz nire arrebarekin", "*gehienetan **mansoa** naiz, ***bastante** alferra naiz"...*
- ➢ Lexiko aberatsa erabili du.
- ➢ Lexiko zehatza eta espezifikoa erabili du, deskripzio objektiboetan bereziki. Adib., *"***ulergarria** naiz, jendea entzuteko prest egoten naiz"* esaldian argi dago ulerkorra beharko lukeela ulergarriren tokian. Honek koherentzian ere eragina izan dezake, jakina.
- ➢ -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: gauza, aitzakia, garrantzia... Herri izenetan ere akatsak izaten dira, adib., *"***Iruñeako** lokal batera joaten naiz"*... Beste batzuetan, behar ez duen hitzari –a gehitzen zaio, esaterako, *"*nahiz eta batzuetan **liskarra** batzuk eduki"*...

### 2.1.3. Morfosintaxia

- ➢ Aditz formak ongi erabili ditu, eta komunztadura zaindu. Adib., *"*DBH 2 egiten ari **dut**"*
- ➢ Lagunarteko 2. pertsonako adizkiak saihestu ditu: *"*gelaren erdira joaten bazara"*
- ➢ Deklinabidea:
  - ❍ Oro har, deklinabidea zehaztasunez erabili ditu, kasuak nahasi gabe. Esaterako, posposizioekin, gatik/-gandik... Beste batzuetan kasuen arteko nahasketa gerta daiteke: *"***parrandaz** ateratzea gustuko dut"*. Bestalde, bezala/bezalakoa, nola/nolakoa nahasketak ere askotan ikus daitezke: *"***nola** naizen azaltzen hasiko naiz"*.
  - ❍ Izen bizidun eta bizigabeak bereizten ditu. Honelako akatsak oso ohikoak izaten dira.

- ❍ Mugagabea ongi erabili du.
- ❍ Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. Hau izaten da etengabe zuzendu beharreko akatsetako bat.
- ❍ Partitiboa zuzen erabili du
- ❍ Komunztadura zaindu du, eta Nor Nork saileko adizkiak, bereziki, egoki erabili ditu: *"*ezagutuko **didazu**"*

➢ Izenordainak:

- ❍ Izenordain indartuak erabili ditu beharrezkoa denean.
- ❍ Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: *"*nahiko polita **ikusten naiz**"*.

➢ Sintaxia:

- ❍ Oro har, sintaktikoki zuzenak diren perpausak osatu ditu. Esate baterako, honako adibidean, gertatzen den errepikapenaren ondorioz sintaktikoki erabat traketsa den esaldia suertatzen da: *"*baina **esaten didanez** nire lagun batek eskuzabala naizela **esaten dit**"*.
- ❍ Perpausak bukatu ditu.
- ❍ Hitz-ordenari dagokionez:
  - Galdegaia eta mintzagaia zuzen erabili ditu.
  - ERE partikularen erabilera zaindu du. Adib., *"*Begi marroiak ditut, normalak. Altueran nahiko normala naiz **ere**"*.
  - Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. Adib., *"*dantza egitea gustatzen zait eta klaseetara **noa**"*. (*joaten naiz* beharko luke gaztelerazko *voy* aditzaren ordainak)
- ❍ Perpaus elkartuak:
  - Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *"*bazegoen koaderno bat, hautsez betea zegoela"* bezalakoak saihestuz. Argi dago honelako egiturak gazteleratik jasotako ereduak direla eta aski zabalduak daudela gure ikasleen artean.
  - Emendiozko juntadura ez du gehiegi erabili.

## 2.2. TESTU MAILA

### 2.2.1. Aurkezpena

➢ Letra ulergarria erabili du.

➢ Marjinak errespetatu ditu.

➢ Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du.

### 2.2.2. Kohesioa

#### 2.2.2.1. Erreferentzia eta konexioa

➢ Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. Esate baterako, lehen erabilitako adibidea: *“*baina* ***esaten didanez*** *nire lagun batek eskuzabala naizela* ***esaten dit***”.

➢ Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz.

➢ Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak egoki erabili dituelako.

- Emendiozko antolatzaileak erabili ditu informazioa gaineratzerakoan.
- Lokalizatzaile espazialak erabili ditu deskribagaiaren alderdiak bereizteko.

➢ Aditz denboraren erlazioa ongi darabil.

#### 2.2.2.2. Puntuazioa

➢ Paragrafoak bereizi ditu, puntu eta aparte eginez.

➢ Paragrafoak erregularrak dira, eta ez luzeegiak.

➢ Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz.

➢ Estilo zatikatua saihestu du (perpaus oso laburrak, bata bestearen atzetik).

- ➢ Komak erabili ditu aposizioak edo azalpenak tartekatzeko.
- ➢ Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili.
- ➢ Zerrendatzeetan koma erabili du.
- ➢ Lokailuak eta antolatzaileak koma artean jarri ditu: ..., eta, bestalde,... Esate baterako, honako adibideetan: *"*nahiko ikasle txarra naiz **beraz** hiru edo lau suspenditzen ditut"*.

### 2.2.3. Koherentzia

- ➢ Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita.
- ➢ Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: erretratua, fitxa...
- ➢ Elementuak modu ordenatuan aurkeztu ditu (bereziki deskripzio objektibo, teknikoetan)
- ➢ Errealitatea ez ezagutzetik letorkeen inkoherentziarik ez da ageri.
- ➢ Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri.
- ➢ Informazioak aurrera egiten duela igartzen da.
- ➢ Ez dago kontraesanik ezta inkoherentzia partzialik ere. Adib., lehen aipatutako esaldian, lexikoari dagokion akatsak inkoherentea suertatzen den esaldia sortzen du: *"***ulergarria** naiz, jendea entzuteko prest egoten naiz".*

### 2.2.4. Egokitasuna

- ➢ Aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio:
    - ❍ Jarrera objektiboa hartzen du, testu motak hala eskatzen duenean.
    - ❍ Subjektibitatea adierazteko hainbat modu erabili du: aditzak, izenondoak, aditzondoak edo bestelako modalizatzaileak...
- ➢ Dagokion erregistroa darabil, testu mota, intentzioa eta hartzailea kontuan harturik.

### 2.2.5. Estiloa

- Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, juntagailuetan...)
- Estilo zatikatua saihestu du, bai eta gehiegizko emendiozko juntadura ere.
- Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da.
- Izenondoez gain, deskribapenean bestelako baliabideak erabiltzen saiatu da, egoki denean: konparaketak, metaforak...

Aurretik zehaztutako adierazle guztiak kontrol zerrenda moduan edo ikasleen testuak zuzentzeko marko gisa erabiltzea zail samar gerta daitekeela jakinda, ondoko taulan laburtzen saiatu gara. Argi dago, modu berean, taula hau ere eskatutako kontsignaren arabera molda daitekeela, adierazle guztiak agertzen ez badira, edo ezaugarri orokorragoak erabili nahi badira.

| DESKRIPZIO TESTUA | | | | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PLANIFIKAZIOA | | | Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | | | | | 0-1...0 puntu<br>2...1 puntu<br>3...2 puntu<br>4...3 puntu<br>5...4 puntu<br>6...5 puntu | |
| | | | Ideia aberastasuna antzematen da. | | | | | | |
| | | | Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | | | | |
| TESTUAREN ZUZENKETA | Hitz eta perpaus maila | Ortografia | Hitzak ongi bereizi ditu. | | | | | 0-2 ..................0 puntu<br>3-4 ..................1 puntu<br>5-6 ..................2 puntu<br>7-8 ..................3 puntu<br>9 ..................4 puntu<br>10 ..................5 puntu | |
| | | | H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | | | | |
| | | | Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | | | | | | |
| | | | Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | | | | | |
| | | | Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | | | | | | |
| | | Lexikoa | Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | | | | | 0-2 ..................0 puntu<br>3-4 ..................1 puntu<br>5 ..................2 puntu<br>6 ..................3 puntu<br>7 ..................4 puntu<br>8 ..................5 puntu | |
| | | | Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait ...* | | | | | | |
| | | | - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | | | | | | |
| | | | Deskripzio objektiboetan, bereziki, lexiko eta izenondo zehatzak erabili ditu. | | | | | | |
| | | Morfosintaxia | Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | | | 0-1-2............0 puntu<br>3-4-5-6............1 puntu<br>7-8-9............2 puntu<br>10-11-12..........3 puntu<br>13-14-15..........4 puntu<br>16-17-18..........5 puntu | |
| | | | Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: "*uretara bota naiz", "*elkar joan gara etxera"… | | | | | | |
| | | | Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | | | | |
| | | | Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | | | | | | |
| | | | Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabili ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | | | | | |
| | | | Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *"*Badut arreba bat txikiagoa dela"* bezalakoak saihestuz. | | | | | | |

*Jarraitzen du...*

## DESKRIPZIO TESTUA

| TESTUAREN ZUZENKETA | Testu maila | | | | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| TESTUAREN ZUZENKETA | Testu maila | Aurkezpena | | Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | | | Marjinak errespetatu ditu. | | | | | | |
| | | | | Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | | | | | | |
| | | Kohesioa | Erreferentzia eta Konexioa | Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | | Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | | | | |
| | | | | Oro har, testuan ideiak josita daude lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, emendiozko lokailuak eta lokalizatzaile espazialak. | | | | | | |
| | | | | Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | | | | | |
| | | | Puntuazioa | Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | | Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | | | | | |
| | | | | Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | | | | | | |
| | | | | Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | | | | |
| | | Koherentzia | | Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| | | | | Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: erretratua, fitxa… | | | | | | |
| | | | | Elementuak modu ordenatuan aurkeztu ditu (bereziki deskripzio objektibo, teknikoetan). | | | | | | |
| | | | | Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | | | | | |
| | | | | Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | | | | | | |
| | | Egokitasuna | | Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, jarrera objektiboa edo subjektiboa agertuz. | | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................3 puntu<br>**3** ..................4 puntu<br>**4** ..................5 puntu | |
| | | | | Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | | | | | | |
| | | Estiloa | | Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan…). | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | | Oro har, testu aberatsa da ideietan. eta egituretan ere, estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestuz | | | | | | |
| | | | | Topikoak eta konparaketa errazak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | | Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | | | | |

## DESKRIPZIO TESTUA. 1. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Aurten Senpereko ikastola batekin jarriko gara harremanetan, eta ikasturte amaieran eurekin trukaketa egiteko aukera izan liteke. Aldez aurretik ikasle bakoitzak bere buruaren deskribapena idaztea eta hango ikasleei bidaltzea interesgarria izan daitekeela uste dugu, elkar hobeto ezagutzeko. Has zaitez, beraz, zure buruaren aurkezpena egiten.

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa. Horretarako, honako alderdiak balia ditzakezu:

- Aurkezpen orokorra: agurra, zure izena, adina…
- Zure deskribapen fisikoa…
- Zure izaeraren ezaugarri nagusiak…

**PLANIFIKAZIOA**

Maitane 14 urte

- ikastola 3DBH
- Etxebizitza

Fisikoki → Deskribapena, ilea, begiak, altuera
marroia, motza (begiak: marroia), 1'65
kixkurtua

Nahiko argala naiz, eta azlez ez oso beltzarana, ez daukat piercing-ak gorputzean.

Ni nire burua

Izaeraz → Nahiko lasaia ikusten dut. Lagunak egitea gustatzen zait, eta irekia naiz horretarako, naiz eta batzuetan puska bat lotsatua besteen aurrean hitz egin behar dudanean. Nire lagunez dioten bezala alaia naiz, eta nire alaitasuna ematen didana, barre egitea lagunekin nagoen bitartean da, eta udan bada, askoz hobeto.
Baina alde txarrak baditut ere, haserretzen naizenean jenio txar handia daukat, baina bereala pasatzen zait.

## BEHIN BETIKO TESTUA

Aupa!
Zer moduz? Beno ni oso ondo nago eta Maitane dut izena. 14 urteko neska naiz, ikastolan ikasten dut 3.DBH ikastola Ezkurren dago, Iruña ondoan, ni hemen bizi nintzen txikitan baina orain Uharten (Iruñera 15 minutu dagoena) bizi naiz.
Etxean ama, aita, amona, nara eta ni bizi gara. Nire anaiak Iker du izena eta 18 urte ditu, nahiko ondo eramaten naiz berarekin.

Fisikoki nola ikusten naizen deskribatuko dizut. Ile marroi-beltza daukat, motza eta kixkurtxuk. Begi marroiak ditut, normalak hemen. Altueraz nahiko normala naiz ere, 1'65 gutxi gora-behera.
Nahiko argala naiz eta azalez ez oso beltzarana, eta ez daukat piercing-erik gorputzean ezta aurpegian.

Izaeraz lasaia naiz. Lagunak egitea gustatzen zait eta erreza nahiz horretarako, nahiz eta batzuetan piska bat lotsatu besteen aurrean hitz egin behar dudanean.
Nire lagunek diotenez bezala alaia naiz, eta alaitasuna ematen didana, lagunekin barrezka egotea da, batez ere nola denean alaiago nago.
Baina alde txarrak ere baditut, haserretzen naizenean jenio txar handia daukat, baina bereala pasatzen zait.

Gauza askoz gehiago kontatu ahal nizkizuke
baina ezaguteko didazu trukaketa egiten
badugu

Agur bero bat

## PLANIFIKAZIOA

Maitane 14 urte

{ - X ikastola 3 DBH
- Etxebizitza

Fisikoki ⟶ deskribapena, ilea, begiak, altuera
marroia, motza,
kixkurtua

Nahiko argala nahiz, eta azalez ez oso beltzarana, ez dauzkat piercing-ak gorputzean.

Ni nire burua

Izaeraz ⟶ Nahiko lasaia ikusten dut. Lagunak egitea gustatzen zait, eta irekia nahiz horretarako, nahiz eta batzuetan piska bat lotsatu besteen aurrean hitz egin behar dudanean. Nire lagunek dioten bezala alaia naiz, eta niri alaitasuna ematen didana, barre egitea lagunekin nagoen bitartean da, eta udan bada, askoz hobeto.

Baina alde txarrak baditut ere, haserretzen nautenean jenio txar handia daukat, baina bereala pasatzen zait.

## BEHIN BETIKO TESTUA

Aupa!

Zer moduz? Beno ni oso ondo nago eta Maitane dut izena. 14 urteko neska naiz, X ikastolan ikasten dut 3.DBH. X Ikastola Zizurren dago, Iruña ondoan, ni hemen bizi nintzen txikitan baina orain Uharten (Iruñera 15 minutu dagoena) bizi naiz.
Etxean ama, aita, amona, anaia eta ni bizi gara. Nire anaiak Iker du izena eta 18 urte ditu, nahiko ondo eramaten naiz berarekin.

Fisikoki nola ikusten naizen deskribatuko dizut. Ile marroi-beltza daukat, motza eta kixkurturik. Begi marroiak ditut, normalak hemen. Altueraz nahiko normala naiz ere, 1,65 gutxi gora-behera.
Nahiko argala naiz eta azalez ez oso beltzarana, eta ez daukat piercing-erik gorputzean ezta aurpegian.

Izaeraz lasaia naiz. Lagunak egitea gustatzen zait eta irekia nahiz horretarako, nahiz eta batzuetan piska bat lotsatu besteen aurrean hitz egin behar dudanean.
Nire lagunek dioten bezala alaia naiz, eta alaitasuna ematen didana, lagunekin barrezka egotea da, batez ere uda denean alaiago nago.
Baina alde txarrak ere baditut, haserretzen naizenean jenio txar handia daukat, baina bereala pasatzen zait.

Gauza askoz gehiago kontatu ahal nizkizuke, baina ezagutuko didazu trukaketa egiten badugu.

Agur bero bat

| DESKRIPZIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | | 0-1...0 puntu<br>2...1 puntu<br>3...2 puntu<br>4...3 puntu<br>5...4 puntu<br>6...5 puntu | |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | X | | | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | X | | 5 | | 4 |

- Atal honi dagokionez, ikasleak nahiko argi izan du testua nola antolatu, eta nolabaiteko eskema garatua egin du. Bertan, hasierako informazio orokorra, fisikoa eta izaera bereizi ditu. Sintetikoago egin lezake baina elementuen ordena eta ideiak irudikatzeko sistema bat behintzat islatu du.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA
## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | X | | | | 0-2 ...0 puntu<br>3-4 ...1 puntu<br>5-6 ...2 puntu<br>7-8 ...3 puntu<br>9 ...4 puntu<br>10 ...5 puntu | |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | X | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |
| Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | X | | | 9 | | 4 |

- Ortografian testuak ez du oso akats nabarmenik, ez bada h-ren erabileran. Bi akats ditu testuak, *“*irekia **nahiz**”* eta *“****bereala***”. Lehenengoa harritzekoa suertatzen da, beste hainbatetan ongi idatzi duelako: *“15 urteko neska naiz”*, *“Altueraz nahiko normala naiz”*... Esaldi berean nahiz eta agertzeak eragin du, agian, nahastea: *“*irekia nahiz horretarako, **nahiz** eta batzuetan piska bat lotsatu”*.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | | X | | | 0-2 ..........0 puntu<br>3-4 ..........1 puntu<br>5 ..........2 puntu<br>6 ..........3 puntu<br>7 ..........4 puntu<br>8 ..........5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait ...* | X | | | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | X | | | | | |
| Deskripzio objektiboetan, bereziki, lexiko eta izenondo zehatzak erabili ditu. | X | | | 7 | | **4** |

• Oro har, hiztegian ez dago arazo gehiegirik. Hala ere, bada erdarakadaren bat, *"nahiko ondo eramaten naiz berarekin"* kasuan, esaterako.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | X | | | 0-1-2-3 ........0 puntu<br>4-5-6 ........1 puntu<br>7-8 ........2 puntu<br>9-10 ........3 puntu<br>11-12-13 ........4 puntu<br>14-15-16 ........5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | X | | | | |
| Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu. | | | X | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | X | | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | | | X | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabili ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | X | | 7 | | **2** |

• Morfosintaxiaren alderdia izan daiteke traketsena. Egia da, bestalde, ikasle askorentzat zailenetarikoa izaten dena, NOR eta NORK erako subjektuak bereiztea, alegia, ongi egiten duela: *"Nire anaiak Iker du izena", "Nire lagunek dioten bezala alaia naiz"*...

• Deklinabide atzizkiren bat gaizki darabil. Adibidez, *"*Iruñera 15 minutu dagoena"* esaten du, Iruñetik esan beharko lukeen tokian. Partitiboa erabiltzean ere, *"*ez daukat piercing-erik"* dio, piercing-ik beharrean.

• Era berean, badira beste hainbat akats, aditzean adibidez, gaztelerazko egiturari jarraitzen diotenak, *"*ezagutuko didazu"* esaten duenean. Bestetik, izenordain bihurkaria ere falta da nola ikusten naizen esaldian. Kasu honetan *neure burua nola ikusten dudan* esan beharko luke.

- Sintaxiarekin jarraituz, ERE partikula gaizki darabil. *"*Altueraz nahiko normala naiz ere"* kasuan, adibidez, hitzordenari dagokionez, eta *"*ez daukat piercing-erik gorputzean ezta aurpegian"*, bukaeran jarri ez duelako.
- Perpaus elkarketan lokailu edo antolatzaile gehiago eta anitzagoak erabil litzake. Izan ere, erabiltzen dituen gehienak baina eta eta dira.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

### AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | X | | | 6 | | **5** |

- Testuaren aurkezpena ona da: txukun idatzita dago eta alboetako nahiz testu barneko marjinak errespetatu ditu.

### KOHESIOA. ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | X | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | X | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, emendiozko lokailuak eta lokalizatzaile espazialak. | | | X | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 4 | | **1** |

- Erreferentzia aldetik *"hemen"* deiktikoaren erabilera nahiko iluna suertatzen da bi adibidetan. Lehenengoan, *"X Ikastola Zizurren dago, Iruña ondoan, ni **hemen** bizi nintzen txikitan"* ez da erreferentea argi geratzen, Zizurren edo Iruñean bizi zen alegia. Bigarrena, *"begi marroiak ditut, normalak **hemen**"* esaldia da. Kontsignan esandakoa kontuan hartuz, Senpereko ikasle bati ari zaio bere burua aurkezten, beraz, ez da oso argi geratzen hemen horren erreferentzia, testuan ez baita agertzen. Ulertzekotan, aurretik aipatutako Iruñearekin lotuko litzakete, baina zentzu aldetik ere traketsa suertatzen da.

- Morfosintaxian aipatu bezala, konexioaren alderdia traketsa da. Askotan, esaldiak bata bestearen atzetik jartzen ditu, eta antolatzaile gehiagoren beharra nabarmen suertatzen da. Testu zati honetan, adibidez, emendiozko lokailuak falta dira:

  "Fisikoki nola ikusten naizen deskribatuko dizut. *(Alde batetik,)* Ile marroi-beltza daukat, motza eta kixkurturik. *(Bestetik,)* Begi marroiak ditut, normalak hemen. Altueraz *(ere)* nahiko normala naiz ere, 1,65 gutxi gora-behera.

  *(Horrez gain)* Nahiko argala naiz eta azalez ez oso beltzarana, eta ez daukat piercing-erik gorputzean ezta aurpegian."

## KOHESIOA. PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | 0-2 ..........0 puntu<br>3-4 ..........1 puntu<br>5 ..........2 puntu<br>6 ..........3 puntu<br>7 ..........4 puntu<br>8 ..........5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | X | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | X | | | 7 | | 4 |

- Erreferentzia eta konexioan ez bezala, ez dago puntuazioaren aldetik halako akats handirik.
- Paragrafoen banaketa egokia da.
- Puntuazio ikurren erabilera ere, oro har, egokia da. Hala ere, badira pare bat esaldi puntu eta jarrai eskatuko luketenak: Lehenengoa, *"X Ikastola Zizurren dago, Iruña ondoan, ni hemen bizi nintzen txikitan baina orain Uharten (Iruñera 15 minutu dagoena) bizi naiz"*. Bigarrenean ere gauza bera gertatzen da, *"eta alaitasuna ematen didana, lagunekin barrezka egotea da, batez ere uda denean alaiago nago"*.

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | X | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................2 puntu<br>**3** ..................3 puntu<br>**4** ..................4 puntu<br>**5** ..................5 puntu<br>**6** ..................6 puntu<br>**7** ..................7 puntu<br>**8** ..................8 puntu<br>**9** ..................9 puntu<br>**10** ..................10 puntu | |
| Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: erretratua, fitxa... | X | | | | | |
| Elementuak modu ordenatuan aurkeztu ditu (bereziki deskripzio objektibo, teknikoetan). | X | | | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | X | | | | |
| Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | X | | | 9 | | **9** |

Oro har, koherentziari dagokionez testuak ez du aparteko hutsegiterik.

- Testuak dioena erraz ulertzen da.
- Ematen duen informazioa ongi antolatua dago, edukiaren ordena logikoa eta egokia baita: informazio orokorra hasieran, fisikoa jarraian, eta izaerari dagokiona bukaeran.
- Era berean, ez du alferrikakoa izan daitekeen informaziorik ematen.
- Hala ere, zalantzagarri suerta daitezke aurreko atalean aipatutako bi esaldiak. Horietan, kohesio aldetik igartzen den puntuazio ikurren faltak (puntu eta jarrai, bi adibideotan), ezberdinak diren ideiak esaldi berean zentzu gehiegirik gabe egotea dakar.

## EGOKITASUNA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, jarrera objektiboa edo subjektiboa agertuz. | X | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................3 puntu<br>**3** ..................4 puntu<br>**4** ..................5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | X | | | 4 | | **5** |

- Testua egokia dela esan genezake, eskatutakoari ongi lotu zaiolako
- Dagokion erregistroa erabili du, bere adineko ikasle bati zuzentzen zaion heinean agurra eta erabilitako hiztegia ere egokia dela esan daiteke.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan...). | X | | | | 0-2 .................0 puntu<br>3-4 .................1 puntu<br>5 .................2 puntu<br>6 .................3 puntu<br>7 .................4 puntu<br>8 .................5 puntu | |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan. eta egituretan ere, estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestuz | | X | | | | |
| Topikoak eta konparaketa errazak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | X | 4 | | 1 |

- Ez genuke esango honako testuan estilo aberatsa erabili duenik: hasteko, ez dirudi lexiko edo sintaxi mailan ahalegin berezirik egin duenik. Bestalde, ideiaen aberastasuna ere zalantzagarria da, eta topikoren bat ere antzeman daiteke. Egia da, hala ere, esaldi luzeegiak edo laburregiak saihestu dituela eta ez dagoela nabarmen suertatzen den errepikapenik.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa........... 4 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 1 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 4 | KOH. Puntuazioa........................... 4 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa .................... 4 | Koherentzia.................................. 9 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Morfosintaxia........... 2 | Egokitasuna ................................. 5 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | |
| Aurkezpena.............. 5 | Estiloa .......................................... 1 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | **3. MAILA** |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 39 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

## DESKRIPZIO TESTUA. 2. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Aurten Senpereko ikastola batekin jarriko gara harremanetan, eta ikasturte amaieran eurekin trukaketa egiteko aukera izan liteke. Aldez aurretik ikasle bakoitzak bere buruaren deskribapena idaztea eta hango ikasleei bidaltzea interesgarria izan daitekeela uste dugu, elkar hobeto ezagutzeko. Has zaitez, beraz, zure buruaren aurkezpena egiten.

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa. Horretarako, honako alderdiak balia ditzakezu:

- Aurkezpen orokorra: agurra, zure izena, adina…
- Zure deskribapen fisikoa…
- Zure izaeraren ezaugarri nagusiak…

**PLANIFIKAZIOA**

**BEHIN BETIKO TESTUA**

Ni Jon dut izena eta niri buruz idatzi bear dizuet. Fisikoki nola naizen azaltzen asiko nahiz, naiko argala nahiz baina ez asko, altueraz normala. eta ile beltza. Pixka bat lotsatia nahiz, lasaia, bastante alferra ikastolan batez ere, 14 urte ditut, eta naiko despistatua nahiz eta haserretzean naiko jenio txarra daukat.

Bainan esaten didanez nire lagun bat eskuzabala naizela esaten dit. Nire aisialdian karatea egitea gustatzen zait, denbora gutxi daramat baina ia-ia gerriko laranja nahiz, eta nire gimnasioak nibel asko dauka, zeren lehiaketa egiteko balia duten guztiak Espainiako lehiaketara ailegatzen dira gutxienez batzuk Europako lehiaketara iritxi dira ere. Boeno, desbideratzen asi naiz. Lagunekin ateratzea gustatzen zait eta ez zaidana gustatzen etxeko lana egitea da beraz naiko ikasle txarra nahiz beraz lau edo suspenditzen ditut ebaluaketa bakoitzean.

## PLANIFIKAZIOA

Ez du planifikaziorik egin.

## BEHIN BETIKO TESTUA

Ni J. G. dut izena eta niri buruz idatzi bear dizuet. Fisikoki nola naizen azaltzen asiko nahiz, naiko argala nahiz baina ez asko, altueraz normala eta ile beltza. Pixka bat lotsatia nahiz, lasaia, bastante alferra ikastolan batezere, 14 urte ditut, eta naiko despistatua nahiz eta haserretzean naiko jenio txarra daukat. Bainan esaten didanez nire lagun bat eskuzabala naizela esaten dit. Nire aisialdian karatea egitea gustatzen zait, denbora gutxi daramat baina ia-ia gerriko laranja nahiz, eta nire gimnasioak nibel asko dauka, zeren lehiaketa egiteko balio duten guztiak Espainiako lehiaketara ailegatzen dira gutxienez, batzuk Europako lehiaketara iritxi dira ere. Bueno, desbideratzen asi naiz. Lagunekin ateratzea gustatzen zait eta ez zaidana gustatzen etxeko lana egitea da beraz naiko ikasle txarra nahiz beraz lau edo suspenditzen ditut ebaluaketa bakoitzean.

| DESKRIPZIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | | | X | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | | | X | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | X | 0 | | **0** |

- Emandako kontsignan testua aurretik planifikatzea eskatzen bazen ere, ikasle honek ez du beharrezkotzat jo, antza. Planifikazioa egin ez izanak hainbat gabezia dakarzkio testuari, ideien nahiz paragrafoen antolaketari dagokionez, bereziki.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | | X | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | X | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | | X | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |
| Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | X | | | 6 | | **2** |

- Oro har, hitzak ongí bereizten ditu, baina badago akats bat, *"*batezere"*, eta horrexegatik zalantzan utzi dugu. Gaizki barneratutako egitura izanen da, ziurrenik.

- Txistukarien erabilerarekin gauza bera gertatzen da, denak ongi idatzi baititu, *"*iritxi"* izan ezik.

- Testuak ortografiaren aldetik daukan hutsune larriena, zalantzarik gabe, h-ren erabilerari dagokio. Behar den hitz askotan ez du idazten (**bear, *asi, *naiko...*), eta beste batzuetan, aldiz, sistematikoki gaizki erabiltzen du (**nahiz* "naiz" aditzean, esaterako). Baditu ongi barneratutako hitzak, hala ere: *lehiaketa, handia, haserretu*.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | | | X | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait ...* | | | X | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | X | | | | | |
| Deskripzio objektiboetan, bereziki, lexiko eta izenondo zehatzak erabili ditu. | | X | | 3 | | **1** |

- Testuan darabilen hiztegia pobrea dela esan daiteke. Hasteko, ez du ahaleginik egin lexiko jatorra erabiltzeko, eta gaztelerazko formak nonahi ageri dira, adibidez, *nibel, bastante eta jenio*. Bestetik, hiztegiaren zehaztasuna ere zalantzan jar daiteke: *nibel asko* ageri da testuan, *handia* adjektiboa erabili ordez. Hitz berberen errepikapena ere nabarmen suertatzen da batzuetan: *naiko, lehiaketa*...

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | X | | | | **0-1-2-3** .........0 puntu<br>**4-5-6** .........1 puntu<br>**7-8** .........2 puntu<br>**9-10** .........3 puntu<br>**11-12-13** .........4 puntu<br>**14-15-16** .........5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | X | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | X | | | | |
| Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu. | | | X | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | X | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | | | X | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabili ditu, (adibidez, emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | | X | 4 | | **1** |

Lexikoa bezalatsu, morfosintaxia ere testuaren alderdi ahulenenetakoa da.

- Testuaren lehenengo esalditik hasita, *"*Ni J. G. dut izena eta niri buruz idatzi bear dizuet"*, ergatiboaren (nik) eta izenordain bihurkariaren falta (neure buruaz) igartzen dira. Nor eta nork kasuen erabilera okerra ere beste adibideren batean ikusten da: *"*nire lagun bat eskuzabala naizela esaten dit"*.

- Deklinabidearekin jarraituz, badago beste akats bat, *"*nola naizen"* (*nolakoa*) adibidean. Aurretik aipatutako ergatiboak kenduta, gainontzeko atzizkiak ongí erabili ditu kasuari eta numeroari dagokionez. Horregatik, zalantzan utzi dugu alderdi hau.
- Aditz formak, oro har, ongi erabili ditu, ez dago aditz denboren edo komunztadura aldetik ezer esaterik.
- Sintaxian ikus daitezke akats nabarmenenak. Adibideren batean esaldiak erabat bukatu gabe utzi ditu: *"naiko argala nahiz baina ez asko, altueraz normala eta ile beltza"* (*daukat*)., edo modu traketsean sortu, *"*esaten didanez nire lagun bat eskuzabal naizela esaten dit"* kasuan.
- ERE partikula ere gaizki darabil, *"*batzuk Europako lehiaketara iritxi dira ere"* esaldian.
- Perpaus elkarketa oso sinplea da, menderakuntza gutxitan darabil, erraz egin lezakeenean ere. Esaterako, *"nire gimnasioak nibel asko dauka, zeren lehiaketa egiteko balio duten guztiak Espainiako lehiaketara ailegatzen dira gutxienez"* trakets suertatzen da. Juntaduraren kasuan ere eta nahiz baina juntagailuak dira nagusi, eta gehiegitan errepikatzen ditu.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

### AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | | | X | 4 | | **3** |

- Agurra testutik bereizi gabe ageri da.

### KOHESIOA. ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | X | | **0-2**.................0 puntu<br>**3-4**.................1 puntu<br>**5-6**.................2 puntu<br>**7-8**.................3 puntu<br>**9**.................4 puntu<br>**10**.................5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | X | | | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, emendiozko lokailuak eta lokalizatzaile espazialak. | | | X | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 4 | | **1** |

- Erreferentzia aldetik testuan ez dago salto nabarmenik, koherentzian eragina izanen duen akatsik. Hala ere, batzuetan gehiegizko errepikapenak ageri dira, aurretik komentatu bezala, bai lexikoan, bai eta juntagailuetan edo egituretan ere. Beste adibide batzuk ere aurki ditzakegu: *“beraz naiko ikasle txarra nahiz beraz lau edo suspenditzen ditut”*, edo *“lagunekin ateratzea gustatzen zait eta ez zaidana gustatzen etxeko lana egitea da”*.

- Testuaren konexioa ere maila eskasekoa da. Lokailu eta antolatzaileren bat erabiltzen du, baina beti berberak dira (*baina* eta *eta*). Esan daiteke testua ez dagoela ongi antolatua.

## KOHESIOA. PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | | X | | **0-2** ..........0 puntu<br>**3-4** ..........1 puntu<br>**5** ..........2 puntu<br>**6** ..........3 puntu<br>**7** ..........4 puntu<br>**8** ..........5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | | X | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | X | | 3 | | **1** |

Aurretik esandakoarekin jarraituz, testuaren kohesioa eskasa da puntuazioari dagokionez ere.

- Paragrafo bakar batean idatzi du, eta ideiak bata bestearen atzetik ematen ditu.

- Esaldi luzeegiak sortzen ditu batzuetan. Esaterako, *“Nire aisialdian karatea egitea gustatzen zait, denbora gutxi daramat baina ia-ia gerriko laranja nahiz, eta nire gimnasioak nibel asko dauka, zeren lehiaketa egiteko balio duten guztiak Espainiako lehiaketara ailegatzen dira gutxienez, batzuk Europako lehiaketara iritxi dira ere”*.

- Komaren erabilera zalantzan utzi dugu. Egia da zerrendatzeetan ongi erabili duela (*“Pixka bat lotsatia nahiz, lasaia, bastante alferra ikastolan batezere”*), eta subjektu eta predikatuaren artean ez duela komarik jarri. Hala ere, antolatzaileekin hutsuneren bat ikusten da: *“ez zaidana gustatzen etxeko lana egitea da beraz naiko ikasle txarra nahiz beraz lau edo suspenditzen ditut ebaluaketa bakoitzean*.

## **KOHERENTZIA** (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | | X | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................2 puntu<br>**3** ..................3 puntu<br>**4** ..................4 puntu<br>**5** ..................5 puntu<br>**6** ..................6 puntu<br>**7** ..................7 puntu<br>**8** ..................8 puntu<br>**9** ..................9 puntu<br>**10** ..................10 puntu | |
| Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: erretratua, fitxa... | | | X | | | |
| Elementuak modu ordenatuan aurkeztu ditu (bereziki deskripzio objektibo, teknikoetan). | | | X | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | X | | | | |
| Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | | | X | 2 | | **2** |

Kohesioaren eremuan aipatu ditugun arazoek eragin nabarmena dute testuaren koherentzian.

- Deskripzioan agertzen diren ezaugarriak ez ditu modu garbian ordenatu, eta fisikoa, izaera, adina... bata bestearen atzetik aipatzen ditu, esaldi eta paragrafo berberean, antolatzaileak ere erabili gabe.
- Bestetik, berak onartzen duen bezala (*"*Bueno, desbideratzen asi naiz"* esaten duenean), eskatutakoarekin zerikusi zuzenik ez duen alferrikako informazioa ematen du, bere gimnasioaren maila azaltzen duenean.
- Gainera, bertan aipatzen duen informazioaren logika ere zalantzarria da: *"ia-ia gerriko laranja nahiz, eta nire gimnasioak nibel asko dauka, zeren lehiaketa egiteko balio duten guztiak Espainiako lehiaketara ailegatzen dira gutxienez."*.

## **EGOKITASUNA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, jarrera objektiboa edo subjektiboa agertuz. | | X | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................3 puntu<br>**3** ..................4 puntu<br>**4** ..................5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik. | | X | | 2 | | **3** |

Arlo honetan ere zalantzagarria da testua.

- Eskatutakoa neurri batean betetzen du, baina koherentzian aipatu dugun bezala, gaiaz desbideratu egiten da, eta bere burua aurkezten badu ere, testuaren bukaera nahiko traketsa da, nolabaiteko agurra espero litekeeta.
- Erabilitako hizkuntza maila ez da bereziki desegokia, baina *"bastante alferra"* bezalako esamoldeetan arrunkeriaren bat ikus daiteke.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan...). | | | X | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan. eta egituretan ere, estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestuz | | | X | | | |
| Topikoak eta konparaketa errazak saihestu ditu. | | | X | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | X | 0 | | **0** |

- Ikasle honek estilo traketsa duela esan genezake. Aurretik aipatu dugun moduan, errepikapenak, esaldi luzeegiak, antolatzaile falta, puntuazio arazoak, egitura sinpleegiak... dira nagusi. Erabilitako hiztegiaren aberastasun falta ere nabarmena da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa............ 0 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 1 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 2 | KOH. Puntuazioa........................... 1 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa .................... 1 | Koherentzia.................................. 2 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Morfosintaxia........... 1 | Egokitasuna ................................. 3 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | **1. MAILATIK BEHERA** |
| Aurkezpena.............. 3 | Estiloa .......................................... 0 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 14 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

# IV. Azalpen testua

Edozein gairi buruz (zientzia, historia, literatura, teknika…), asko, zerbait edo ezer ere ez dakien hartzaile batentzat gertakizun edo fenomeno baten argibide objektiboa ematen duen testu mota da azalpenezkoa.

Azalpen testuaren xedea, eskola eremuan, gai baten inguruan informazioa ematea eta ezagutza zabaltzea da. Baina ez ditu datuak soilik ematen, gehitzen ditu gainera, esplikazioak edo azalpenak, analogiak eta adibideak. Osagarri gisa, leku garrantzitsua dute bitarteko didaktikoek eginkizun horretan, bai ikonografikoek (grafiko, eskema, taula, kontzeptu mapa…), eta baita tipografikoak ere (titulu, azpititulu, azpimarraketa… ).

Azalpena, batik bat, testu zientifiko-teknikoetan, kazetaritza testuetan eta saiakeran ageri da. Testu zehatzak eta argiak dira, beraz, horregatik erabili ohi dira esaldi bakunak eta juntadurazkoak, hau da, perpaus laburrak eta ulertzeko zailtasunik gabeak.

Hizkuntza-funtzio nagusia erreferentziala da: mezuak errealitatea islatu behar du, ez igorlearen iritzirik, subjektibotasunik. Baina aunitzetan, testu errealetan, ez da erraza izaten azalpen-testua eta argudiozkoa bereiztea. Muga ez dago oso argi, zerbait azaltzea, askotan, informazioa eman eta hori egiztatzea izaten baita, eta horretarako, argudioak erabiltzea ezinbestekoa da.

Egunerokoan maiz eskaintzen zaigu arazo baten esplikazioa, eta era berean, eskatu ere eskatzen zaigu halakorik geuk ematea. Horren ondorioz sortzen diren testuak oso ohikoak dira gizartean, bai eremu akademikoan, jakintza-arlo bakoitzeko arazo edo fenomenoei erantzuna emateko; bai komunikabideetan, egungo gizarte-arazoak esplikatzeko.

Arazo baten konponbidea esplikatzea helburu duen testu-generoa, berez, testu-generorik konplexuenetakoa da, argudiaketaren mugan dagoelako. Informazio-diskurtsoa izanik ere, genero honen helburua ez da informazioa emate hutsa, zerbaiten esplikazioa ematea baizik. Hori ongi ulertzeko, komeni da *azalpen* eta *esplikazio* kontzeptuak bereiztea.

Zerbaiten **azalpena** ematea gai horretan aditua ez den hartzaileari datuak, informazioa ematea da: munduan izaniko gertaera edo fenomenoei buruzkoak (komunikabideetako berriak); jakintza-gaiei buruzko ezaupideak (nola funtzionatzen duen giza gorputzak, zein da atomoaren egitura...); edo eguneko bizitzarekin lotutako informazioa (nola interpretatu gasaren faktura, pasaportea eskuratzeko instrukzioak...).

Zerbait **esplikatzea** fenomeno edo gai gatazkatsu bati erantzuna ematea da, gaiaren eragileak aztertuz eta haiei dagozkien konponbide-proposamenak eginez. Jakina, esplikazioaren bitartez informazioa ematen dugu, baina fenomeno edo gai gatazkatsuak **ulertarazteko** asmoz. Horrexegatik, testuaren oinarrian esplizituki nahiz inplizituki formulatuta egon daitekeen galdera bat dago, eta galdera horren erantzunak gidatuko du testuaren garapena.

Azalpenak datuak edota informazioa ematen ditu, baina ez du konklusiorik emateko xederik, hau da, ez du ezeren frogagarri izan nahi. Esplikazioak, ordea, arazo edo gai gatazkatsuen **zergatia** azaltzen du, ezagutzen ez dugun hori ulertarazteko eta hartzailea ondorio baterantz bideratzeko asmoz. Hori lortzeko ezinbesteko bitartekoa da argudiaketa, informazioaren mesedean egon behar duen argudiaketa, alegia.

Ikus daitekeenez, arazo baten konponbidea esplikatzea helburua duen testu-generoak arazo horren eragile edo kausen analisia eskatzen du; konponbideak eragile horien arabera proposatzen dira, eragileak saihestarazteko edo haien eragin negatiboa samurtzeko.

Azalpen testuetan narrazioa, deskribapena eta argudioa ere ager daitezke. Horrelakoetan testu mistoa dela esaten da.

Lexikoa zientzia arlo bakoitzari dagokiona da, ordea, testuaren ezaugarrien menpe egongo da, hau da, testua dibulgaziorako (informazioa hartzaile ez espezializatuei zuzendua) edo testu espezializatua den hartu behar da kontuan.

Aditz denborari dagokionez, batez ere orainaldia erabiltzen da.

Egitura: Forma aldetik, hiru atal izan ohi dituzte: sarrera, garapena eta ondorioa.

- Gaiaren eta helburuaren aurkezpena egiten da bertan. Sarrerak datu hauek bil ditzake: gaia, helburuak, hipotesiak eta markoa (denbora, tokia, garaia…)
- Ondoren, garapenean, aipagai den gaia edo arazoari buruzko informazioa eta arrazoiak lantzen dira atal honetan. Bertan egoten da testuaren informazio muina. Hartzaileak jasoko duen informazioa paragrafoz paragrafo zabalduz doa, aurrekoetan baino informazio gehiago eta zabalagoa jasoz. Ongi zaindu behar da koherentziarako mekanismoen trataera.
- Ondorioan, berriz, esandako guztiaren laburpena egiten da.

Testu mota honen funtzioak hauek lirateke:

- **Informatzea**, hainbat eta hainbat gairen inguruan;
- **Esplikatzea**, ematen duten informazioari azalpen esanguratsu ugari gehituz, eta
- **Gidatzea**. Irakurketa-gida gisa funtzionatzen duelako, esplizituak diren klabeak aurkeztuz (sarrerak, tituluak, azpitituluak, laburpenak…). Klabe hauek lagunduko dute ideia edo kontzeptu nagusiak bigarren mailakoetatik bereizten.

Baina testu mota honen informazioa ez da beti modu berean aurkezten, diskurtso antolaketa ezberdinak sortuz baizik.

Ikus ditzagun:

✓ Deskribapenezkoa: zerbaiten ezaugarriak edo propietateak azaltzen direnean. Ideien bilketa besterik ez da.

✓ Narraziozkoa edo sekuentziala: ordena edo graduazio bati buruzko antolatzaile osagaiak azaltzen ditu.

✓ Kausa-ondoriozkoa: testuan aipatzen den informazio edo fenomeno bat beste baten kausa edo ondorio bezala aurkezten denean. Ideien sekuentziaren arrazoiak agertzen ditu.

✓ Arazo-konponbide sekuentzia: lehenik inkognita bat aurkezten da, gero honi dagozkion datuak, eta, azkenik, konponbide posibleak

✓ Konparaziozkoa: elementu desberdinen antzekotasunak eta desberdintasunak azaltzen direnean.

Testu bat hainbat paragrafoz osaturik egon daitekeenez, egileak paragrafo bakoitzean edukia antolatzeko modu desberdina erabil dezake, hau da, paragrafo batean zerbait deskribatu eta hurrengoan zerbaiten kausak edo ondorioak azaldu, edo ideia desberdinak kontrastatu.

## 1. PLANIFIKAZIOA

Alderdi honek aparteko iruzkina behar duelakoan gaude. Izan ere, ikasleekin idazketaren prozesu osoa lantzen dugunean testuaren planifikazioak eta zirriborroak berebiziko garrantzia hartzen dute. Unitate didaktiko baten edo testu mota jakin baten lanketa sistematikoaren ondorioz

ikasleak egindako hasierako planifikazio edo zirriborrotik behin-betiko testura egindako hobekuntzak baloratzen ditugu batik bat. Alegia, ikasitakoa erabiliz ikasleak bere zirriborroak berrikusteko eta eraldatzeko izan duen gaitasuna. Prozesuaren beraren balorazio orokorra honako adierazleen bitartez egin genezake:

- Informazioa aukeratzeko sistemaren bat erabili du.
- Planifikazioa modu sintetikoan egin du.
- Zirriborroa idatzi du.
- Zirriborroa edukia eta egitura perfilatzeko lagungarria da.
- Zirriborroa berrikusi eta eraldatu du.

Baina une jakin bateko idazketa-ariketa planteatuz gero, testuaren azken emaitza izango genuke soilik eta, beraz, bestelako balorazioa egin beharko genuke. Horrexegatik mugatu ditugu adierazleak taula orokorrean.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA

### 2.1. HITZ ETA PERPAUS MAILA

#### 2.1.1. Ortografia

- Hitzak ongi bereizi ditu. Adib., ez du erabili honelakorik "*Hitzegiten, orohar, baitare"
- Oinarrizko ortografia-arauak aplikatu ditu.
  - H-ren erabileran: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... Adib., *"*nik uste dut arazoa ahu dela eta ez euskara ez itzegitea"* esaldian horrelako bi akats metatzen dira.
  - Oro har, txistukarien idazkeran: s/z/x eta ts/tz/tx.
  - Letra larrien erabileran: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren...
  - Euskarazko hitzetan gaztelerazko arauak ez ditu aplikatzen: -mp-, mb-, v eta c letren erabilera... Adib, *"*Zembait egoeratan…"*

#### 2.1.2. Lexikoa

- Ez du hitzik asmatu.
- Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo erdarakadak: *"*hizkuntza hori entzuten ari direnez* ***arrato*** *guztian…" "Arrazoi* ***inportante*** *bat da, hizkuntza* ***dominante*** *euskara ez dela"*
- Lexiko zehatza erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: gai, gauza, egin, zerbait... Alderdi honetan askotan nahasten dira, esate baterako, bera eta berdina, adib., *"*Hizkuntza* ***berdina*** *entzuten zen"* (hizkuntza bera), edo *"*afizio* ***berdina*** *izaten baduzu…* " (berbera).
- -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: gauza, aitzakia, garrantzia... Kontrakoa ere gerta daiteke, alegia, -a itsatsia ez duten hitzei -a eranstea, adib., *"…*horregatik* ***motibazioa*** *pixka batekin…"*

### 2.1.3. Morfosintaxia

- Aditz formak ongi erabili ditu, eta komunztadura zaindu. Adib., *"*Nik uste dut ez **daudela** arrazoi nagusiarik…", "*Egunero eskolan euskara erabiltzen duten gazteok…"* edo *"*ez **dituzte** hizkuntza baliabide asko"*

- Deklinabidea:

  - Oro har, deklinabidea zehaztasunez erabili du, kasuak nahasi gabe. Beste batzuetan kasuen arteko nahasketa gerta daiteke: *"*Mikelen **erruarengandik** zigortu zuten" (erruarengatik)*

  - Izen bizidun eta bizigabeak bereizten ditu. Honelako akatsak oso ohikoak izaten dira, adib., *"* egia da gure hizkuntzarengandik egiten dugula"* (bizigabea denez *hizkuntzarengatik* beharko luke izan), edo *"*Amaiak dentistara joango denez…"* (dentistarengana, biziduna baita).

  - Mugagabea ongi erabili du. *"*Zembait **egoeran**, norbait hasten bada…", "* eta bi **hizkuntzan** hitz egiten zuen"*

  - Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. Hau izaten da etengabe zuzendu beharreko akatsetako bat. Adib., *"***ikasleak** ez dakite zer ari diren galtzen"edo "***euskaldunak** badakite erdaraz ere"*.

  - Partitiboa zuzen erabili du. *"*Ez dauzkagu **arrazoiak** euskaraz hitz egiteko"*

  - Nor Nork saileko adizkiak egoki erabili ditu: *"*Tabernatan ikusi **zioten**.."*.

- Izenordainak:

  - Izenordain indartuak erabili ditu beharrezkoa denean. Adibidez: *"Guk, geuk hitz egingo bagenu, ez litzateke horrenbeste galduko…"*

  - Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: *"*lurrera bota zen", "*beste lagunekin ez gara ulertzen..." edo "*pasilloetan elkar topatzen **garenean**…"*

- Sintaxia:

  - Oro har, sintaktikoki zuzenak diren perpausak osatu ditu.

  - Perpausak bukatu ditu.

  - Hitz-ordenari dagokionez:

    - Galdegaia eta mintzagaia zuzen erabili ditu. Esate baterako, *"*Honela daukazu **lan gehiago** egiteko"* esaldian ordena traketsa

suertatzen da, lan gehiago galdegaia izanik aditzak bere atzean joan beharko lukeelako.

- ERE partikularen erabilera zaindu du. *“*ez dituzte **ere** hizkuntzaren baliabide asko”, “* hitz eta esamolde asko ez dakigu edo **ere** ez digute irakatsi nola esaten den.” edo “…*noski **ere** gure solaskideek ulertzeko moduan”*.
- Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. Adib, *“*guregatik egina izan zen”*.

❍ Perpaus elkartuak:

- Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, **Euskara da hizkuntza bat nahiko akademikoa dela*” edo *“*Badago jendea kalean beti erdaraz hitz egiten dizutela”* bezalakoak saihestuz. Argi dago honelako egiturak gazteleratik jasotako ereduak direla eta aski zabalduak daudela gure ikasleen artean.
- Emendiozko juntadura ez du gehiegi erabili.
- Denborazko menderagailuak modu zehatz eta aberatsean erabili ditu: *“Kalera atera bezain laster”, “Hitz egin ondoren”, “Irakasleak dauden bitartean”...*
- Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. ...*- eta, Bait-, -...enez gero* eta horrelakoak ere erabili ditu.

## 2.2. TESTU MAILA

### 2.2.1. Aurkezpena

➢ Letra ulergarria erabili du.

➢ Marjinak errespetatu ditu.

➢ Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du.

### 2.2.2. Kohesioa

2.2.2.1. Erreferentzia eta konexioa

➢ Alferrikako errepikapenak saihestu ditu.

➢ Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz.

- Aditz denboraren erlazioa ongi darabil.
- Oro har, testuan ideiak *josita* daude, hainbat motatako lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako: kausa-ondoriozkoak, kontrajarpenezkoak, emendiozkoak (argumentuak gehitzerakoan)... Adibidez: *"Gaur egun…; Oro har,…; Beste alde batetik…; azkenik…; Hau guztia esan eta ikusi ondoren…; eta horren ondorioz;… ia honen muturrera joanda…, izan ere, ordea, gainera, …".*
- Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. Testu mota honetan, salbuespenak salbuespen, aditz-denbora orainaldiaren ardatzekoa izaten da normalki. Adb., *"Zergatik* ***hitz egiten*** *da hain gutxi euskara Iruñeko gazteen artean? Gaur egun Iruñean, gero eta gehiago* ***dira*** *euskara* ***ikasten duten*** *gazteak, hala ere, gazte hauen artean oso zaila* ***da****, eskolatik kanpo euskaraz mintzatzen ikustea."*

2.2.2.2. Puntuazioa

- Paragrafoak bereizi ditu, puntu eta aparte eginez.
- Paragrafoak erregularrak dira, eta ez luzeegiak.
- Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz.
- Estilo zatikatua saihestu du (perpaus oso laburrak, bata bestearen atzetik).
- Komen erabileraz:
    - Komak erabili ditu aposizioak edo azalpenak tartekatzeko. *"Aurreko arrazoiarekin lotuta,* ***gertakizun horren zergatia bada ere****, filmak euskaratzea kostatzen den denbora pila"*. edo *"Beste arazo bat,* ***gazteok****, gazteleraz aritzeko ohitura da eta horren ondorioz, errazagoa egiten zaigu erdarazko film bat ikuste,…"*
    - Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. Esaldi honetan, adibidez, ez da betetzen: *"*Animali hauek, ez dira taldeetan bizi."*
    - Zerrendatzeetan erabili du.

- Testu antolatzaileekin erabili du: ***Oro har****, gaur egun euskaldun gazte gehienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara,* ***hortaz****, eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira.* ***Esate baterako****, gaur egungo gazte gehienak patioan gazteleraz mintzatzen dira.*

➢ Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu. *”…Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara Iruñeko gazteen artean?*

### 2.2.3. Koherentzia

➢ Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita.

➢ Eskatutako testu motaren egituraketa moldeari jarraitu dio. Oro har, testuaren egituran sarrera, garapena eta ondorioak igarriko dira, nahiz eta, hiru zatiek ez duten zertan beti ordena hori mantendu behar.

➢ Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesio edo morfosintaxiak eragindakoak, edo beste)

➢ Errealitatea ez ezagutzetik letorkeen inkoherentziarik ez da ageri.

➢ Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri.

➢ Gehiegizko saltoak saihestu ditu.

➢ Informazioaren garapena igartzen da.

➢ Izenburua egokia da, objektiboa, konnotaziorik gabea. Gauza bera azpitituluak baleude.

➢ Gaiari garrantzizko tokia eman dio, hobeto testuaren hasieran kokatu badu.

➢ Definizioak modu egokian eratu ditu, elementu narratiboz kutsatu gabe: Adib. *“eklipse bat da ...enean”*

➢ Kausa-ondorio harremanak argi adierazi ditu.

➢ Ideiak eta adibideak argitasunez bereizi ditu.

➢ Zalantza kasuan, errepikapenaren alde jo du, ulermenaren mesedetan.

### 2.2.4. Egokitasuna

- Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa... aintzat hartuz.
- Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik.

### 2.2.5. Estiloa

- Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, juntagailuetan...)
- Estilo zatikatua saihestu du, bai eta gehiegizko emendiozko juntadura ere.
- Testu aberatsa da ideietan: argudio sendoak, kontra-argudioak, konparaketak…
- Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da.

Aurretik zehaztutako adierazle guztiak kontrol zerrenda moduan edo ikasleen testuak zuzentzeko marko gisa erabiltzea zail samar gerta daitekeela jakinda, ondoko taulan laburtzen saiatu gara. Argi dago, modu berean, taula hau ere eskatutako kontsignaren arabera molda daitekeela, adierazle guztiak agertzen ez badira, edo ezaugarri orokorragoak erabili nahi badira.

| AZALPEN TESTUA | | | | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PLANIFIKAZIOA | | | Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | | | | | 0-1...0 puntu<br>2...1 puntu<br>3...2 puntu<br>4...3 puntu<br>5...4 puntu<br>6...5 puntu | |
| | | | Ideia aberastasuna antzematen da. | | | | | | |
| | | | Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | | | | |
| TESTUAREN ZUZENKETA | Hitz eta perpaus maila | Ortografia | Hitzak ongi bereizi ditu. | | | | | 0-2 ..................0 puntu<br>3-4 ..................1 puntu<br>5 ..................2 puntu<br>6 ..................3 puntu<br>7 ..................4 puntu<br>8 ..................5 puntu | |
| | | | H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | | | | |
| | | | Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | | | | | | |
| | | | Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | | | | | |
| | | Lexikoa | Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | | | | | 0-1 ..................0 puntu<br>2 ..................1 puntu<br>3 ..................2 puntu<br>4 ..................3 puntu<br>5 ..................4 puntu<br>6 ..................5 puntu | |
| | | | Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | | | | | | |
| | | | -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: **gauz, *aiton…* | | | | | | |
| | | Morfosintaxia | Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | | | 0-1-2............0 puntu<br>3-4-5-6............1 puntu<br>7-8-9-10 ..........2 puntu<br>11-12-13-14 ....3 puntu<br>15-16-17..........4 puntu<br>18-19-20..........5 puntu | |
| | | | Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: **uretara bota zen, *elkar joan ziren etxera…* | | | | | | |
| | | | Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | | | | |
| | | | Gaztelaniazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz: **ERE jaten ditu intsektuak* | | | | | | |
| | | | Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *“*Bada animalia bat handiagoa dela”* bezalakoak saihestuz. | | | | | | |
| | | | Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. …-eta, Bait-, -enez gero eta horrelakoak erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu. | | | | | | |

*Jarraitzen du...*

| | | | | **AZALPEN TESTUA** | Bai (**2**) | Zalantza (**1**) | Ez (**0**) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **TESTUAREN ZUZENKETA** | **Testu maila** | **Aurkezpena** | | Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | | | Marjinak errespetatu ditu. | | | | | | |
| | | | | Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | | | | | | |
| | | **Kohesioa** | Erreferentzia eta Konexioa | Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | | Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | | | | |
| | | | | Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. | | | | | | |
| | | | | Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | | | | | |
| | | | Puntuazioa | Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | | | | **0-1-2**................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| | | | | Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | | | | | |
| | | | | Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | | | | | | |
| | | | | Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | | | | |
| | | | | Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | **Koherentzia** | | Izenburuak testuaren xedea eta gaia egoki bildu du. | | | | | **0-1** ...............0 puntu<br>**2-3** ...............1 puntu<br>**4-5** ...............2 puntu<br>**6-7** ...............3 puntu<br>**8-9** ...............4 puntu<br>**10-11** ...............5 puntu<br>**12** ...............6 puntu<br>**13** ...............7 puntu<br>**14** ...............8 puntu<br>**15** ...............9 puntu<br>**16** ...............10 puntu | |
| | | | | Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | | | | | | |
| | | | | Eskatutako testu motaren egituraketa moldeari jarraitu dio. Oro har, testuaren egituran sarrera, garapena eta ondorioak igarri dira. | | | | | | |
| | | | | Gaiari garrantzizko tokia eman dio, hobeto testuaren hasieran kokatu badu. | | | | | | |
| | | | | Informazioaren garapena igartzen da, gehiegizko saltoak saihestuz eta alferrikako informaziorik gabe. | | | | | | |
| | | | | Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | | | | | |
| | | | | Definizioak modu egokian eratu ditu, elementu narratiboz kutsatu gabe: Adib. *"eklipse bat da ...enean"*. | | | | | | |
| | | | | Kausa-ondorio harremanak argi adierazi ditu. | | | | | | |
| | | **Egokitasuna** | | Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa... aintzat hartuz. | | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................3 puntu<br>**3** ..................4 puntu<br>**4** ..................5 puntu | |
| | | | | Dagokion erregistroa darabil, egoera eta intentzioa kontuan harturik. | | | | | | |
| | | **Estiloa** | | Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan...). | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | | Oro har, testu aberatsa da ideietan. | | | | | | |
| | | | | Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | | Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da. | | | | | | |

## AZALPEN TESTUA. 1. EREDU ZUZENDUA

ESKAERA- KONTSIGNA:

Aste kulturala dela eta, "Euskara Taldeak" hainbat ekintza proposatu ditu, eta haietako bat DBHko maila guztietarako idatzizko lehiaketa bat da. GAIA: **"EUSKARAREN EGOERA"**.

Horretarako, gai horren inguruan zuk ezagutzen duzun **gertaera edo fenomeno bat** azaldu behar duzu, baina gogoratu! beti ere, euskararekin edo euskararen erabilerarekin erlazionatua.

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa, horrek lagunduko dizu ondoren idatzi nahi duzun testua ongi antolatzen. Honetarako baliagarri izan dakizuke honako alderdiak kontuan hartzea:

- Izenburu egokia aurkitu beharko duzu, gaian interesa sortarazteko.
- Zein fenomenoz ariko zaren zehaztu.
- Fenomeno horren kausak identifikatu.
- Fenomeno horrek irtenbiderik al du? Baten bat proposatuko al zenuke?
- Ondorioak ere kontuan izan beharko dituzu.

PLANIFIKAZIOA

TITULUA: "Zergatik ez ditugu euskarazko pelikulak ikusten?"

FENOMENOAREN DESKRIBAPENA: Gazteok gero eta zinema gutxiago ikusten dugu euskaraz.

TESTUAREN HELBURU: Analizatzea zergatik ez dugun pelikula gehiago ikusten euskaraz.

1. KAUSA: Adinarekin euskarazko pelikula gutxiago ikusten ditugu.
   a. Adibidea: Gelan egindako inkestaren emaitza
2. KAUSA: Txikientzako pelikula gehiago gazteentzat baino.
   a. ONDORIOA: Ez dago aukerarik.
3. KAUSA: Denbora asko ematen dute euskaratzen.
   a. ONDORIOA: Interesa galdu.
4. KAUSA: Gure gustuko aktoreak erdaldunak
5. KAUSA: Erdaraz hitz egiteko ohitura.
   a. ONDORIOA: Erdarazko pelikulak errazago ulertu.

**TESTUA**

"ZERGATIK EZ DITUGU EUSKARAZKO PELIKULAK IKUSTEN?"

Txikitako pailazoak edo antzeko filmak ikusteko garaia joaten denean, gure adineko gazteek, telebistan nahiz zineetan, euskarazko pelikulak ikusteari uzten diogu.

DBH 2B gelako ikasleei egindako inkestaren arabera, %56a ez litzateke euskarazko film bat ikustera joango eta %20 berriz, aitortu zuen gazteleratuak nahiago zituela eta soilik "agian" joango zirela.

Badaude arrazoi bat baino gehiago fenomeno hau gertatzeko. Lehenik esan beharra dago, euskarazko pelikula gehiegirik ez daudela. Errazago aurki ditzakegu txikienetako pelikula bat gurentzat baino, gehienak 12 urtetik beherako publikoentzat eginak daude eta, beraz, ez dago non aukeratu.

Aurreko arrazoiarekin lotuta, gertakizun horren zergatia bada ere, filmak euskaratzea kostatzen den denbora pila. Lehenik gaztelaniaz egiten dituzte eta euskaratzen dituztenerako, zeukaten interesa galdu dute eta jadanik ez ditzigute erakartzen.

Baina erru guztia ez dute pelikula egileek, gazteen gustuak ere kontuan hartu behar dira. Adin batera iristen garenean, nahiago ditugu gure gustuko autoreek egindako pelikulak ikusi eta horiek gehienetan, erdaraz eginak daude.

Beste arazo bat, gazteok, gazteleraz aritzeko ohitura da eta horren ondorioz, errazagoa egiten zaigu erdarazko film bat ikustea, esfortzurik ez baitugu egin behar istorioa jarraitzeko.

Izan ere, aurretik aipatutako inkestan egindako galdere-tan, %16ak aitortu zuten gehiago kostatzen zitzaizkiela ulertzea euskarazko pelikulak gaztelaniatuak baino

## PLANIFIKAZIOA

TITULUA: "Zergatik ez ditugu euskarazko pelikulak ikusten?"

FENOMENOAREN DESKRIBAPENA: gazteok gero eta zinema gutxiago ikusten dugu euskaraz

TESTUAREN HELBURUA: Analizatzea eta esplikatzea gure ikaskideei zergatik ez ditugun pelikula gehiago ikusten euskaraz

1. KAUSA: adinarekin euskarazko pelikula gutxiago ikusten ditugu
    a. Adibidea: gelan egindako inkestaren emaitzak
2. KAUSA: Txikientzako pelikula gehiago gazteentzat baino.
    a. ONDORIOA: Ez dago aukerarik
3. KAUSA: Denbora asko ematen dute euskaratzen
    a. ONDORIOA: Interesa galdu
4. KAUSA: Gure gustuko aktoreak erdaldunak
5. KAUSA: Erdaraz hitz egiteko ohitura
    a. ONDORIOA: Erdarazko pelikulak errazago ulertu

## BEHIN BETIKO TESTUA

"ZERGATIK EZ DITUGU EUSKARAZKO PELIKULAK IKUSTEN?"

Txikitako pailazoak edo antzeko filmak ikusteko garaia joaten denean, gure adineko gazteek, telebistan nahiz zineetan, euskarazko pelikulak ikusteari uzten diogu.

DBH 2B gelako ikasleei egindako inkestaren arabera, %56a ez litzateke euskarazko film bat ikustera joango eta %20ak berriz, aitortu zuen gaztelerazkoak nahiago zituela eta soilik "agian" joango zirela.

Badaude arrazoi bat baino gehiago fenomeno hau gertatzeko.

Lehenik esan beharra dago, euskarazko pelikula gehiegirik ez daudela. Errazago aurki ditzakegu txikienetako pelikula bat gurentzat baino, gehienak 12 urtetik beherako publikoentzat eginak daude eta, beraz, ez dago non aukeratu.

Aurreko arrazoiarekin lotuta, gertakizun horren zergatia bada ere, filmak euskaratzea kostatzen den denbora pila. Lehenik gaztelaniaz egiten dituzte eta euskaratzen dituztenerako, zeukaten interesa galdu dute eta jadanik ez dizkigute erakartzen

Baina erru guztia ez dute pelikula egileek, gazteen gustuak ere kontutan hartu behar dira. Adin batera iristen garenean, nahiago ditugu gure gustuko aktoreek egindako pelikulak ikusi eta horiek gehienetan, erdaraz eginak daude.

Beste arazo bat gazteok gazteleraz aritzeko ohitura da eta horren ondorioz, errazagoa egiten zaigu erdarazko film bat ikustea, esfortzurik ez baitugu egin behar istorioa jarraitzeko.

Izan ere, aurretik aipatutako inkestan egindako galderetan, %16ak aitortu zuten gehiago kostatzen zitzaizkiela ulertzea euskarazko pelikulak gaztelaniazkoak baino.

| AZALPEN TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | 6 | **0-1**...0 puntu **4**...3 puntu<br>**2**...1 puntu **5**...4 puntu<br>**3**...2 puntu **6**...5 puntu | **5** |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | X | | | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | X | | | | | |

- Ikasle honek erabilitako testu mota kausazkoa da, testuan aipatzen duen informazio edo fenomenoa beste baten kausa edo ondorio bezala aurkezten baitu, ideien sekuentziaren arrazoiak agertuz.
- Testuan adieraziko dituen ideiak modu sintetikoan adierazi ditu.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | X | | | 8 | **0-2** ..........0 puntu<br>**3-4** ..........1 puntu<br>**5** ..........2 puntu<br>**6** ..........3 puntu<br>**7** ..........4 puntu<br>**8** ..........5 puntu | **5** |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | X | | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |

- Testu osoan ez dago ortografiari dagokion akatsik.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | X | | | 6 | **0-1** ..........0 puntu<br>**2** ..........1 puntu<br>**3** ..........2 puntu<br>**4** ..........3 puntu<br>**5** ..........4 puntu<br>**6** ..........5 puntu | **5** |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | X | | | | | |
| -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: **gauz, *aiton…* | X | | | | | |

- Lexiko aberatsa erakusten du.
- "A" organikoarekin ez du arazorik, ongi erabiltzen du.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | X | | | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | X | | | **0-1-2**............0 puntu<br>**3-4-5**............1 puntu<br>**6-7-8**............2 puntu<br>**9-10**............3 puntu<br>**11-12**............4 puntu<br>**13-14**............5 puntu | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | X | | | |
| Gaztelaniazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz: **ERE jaten ditu intsektuak* | X | | | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu. | | X | | 8 | | **2** |

- Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin dituela iruditzen zaigu, hala ere, subjektu eta aditzaren arteko komunztaduran, askotan erratu du eta horregatik duen puntuazioa adierazle horretan. Hona hemen egindako akatsak:

  - **lehenik esan beharra dago, euskarazko pelikula **gehiegirik ez daudela**.*
  - ***…%16ak … aitortu zuten** gehiago kostatzen **zitzaizkiela ulertzea** euskarazko pelikulak gaztelaniazkoak baino”,*
  - *“*Errazago aurki ditzakegu txikientzako pelikula bat…”,*
  - *“*zeukaten interesa galdu dute eta jadanik ez **dizkigute** erakartzen”*

- Gainerako irizpide guztiak egoki errespetatu ditu. Adibidez, galdegaiari dgokionez: *“… gertakizun horren zergatia bada **ere**…”, …”gazteen gustuak **ere** kontutan hartu…”* ; Nor eta Nork subjektuak: *“…erru guztia ez **dute** pelikula **egileek**…”, “nahiago **ditugu** gure gustuko **aktoreek** egindako pelikulak…”* eta azken adibide gisa erlatibo eta konpletiboen arteko bereizketa: *“… kostatzen **den** denbora pila…”, “… gehiago kostatzen zitzai**ela ulertzea**…”, “nahiago zituela eta soilik “agian” joango zirela”*

- Deklinabidean baditu hainbat huts, alderdi hau zalantzan uzteko modukoak. Esaldi honetan horren bi adibide aurki daitezke: *“*Errazago aurki ditzakegu **txikienetako** pelikula bat **gurentzat** baino”*.

  Dena den, aipagarria litzateke ikasle gehienek, batez ere lehenengo zikloan, izaten duten zailtasuna plurala hurbila erabiltzeko. Ikasleak gai dira teoria adierazteko, baita ere adibide edo ariketetan, hautatzerako orduan, egokia identifikatzeko, baina oso gutxietan ikusten dugu bere aplikazioa euren testuetan. Ikus dezagun adibide hau: *“gure adineko gazteek (...) ikusteari uzten diogu.*

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

### AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | X | | | | 0-1...0 puntu, 2...1 puntu, 3...2 puntu, 4...3 puntu, 5...4 puntu, 6...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | X | | | 6 | | **5** |

- Testua txukun idatzi du eta letra oso ulergarria eta argia da.
- Marjinei dagokionez, berriz, nahiz eta sangriarik ez duen erabili, paragrafoen banaketa erraz antzematen da.

### KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | X | | | | 0-2 ..................0 puntu, 3-4 ..................1 puntu, 5 ..................2 puntu, 6 ..................3 puntu, 7 ..................4 puntu, 8 ..................5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | X | | | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. | X | | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 8 | | **5** |

- Testu honen lehen irakurketa egin ondoren, badu batek ongi idatzia dagoenaren sentsazioa. Ez du alferrikako errepikapenik egin, komak nahikoa ongi erabili ditu, lokailu eta antolatzaile ugari daude eta baita, ongi ere, aditz denboraren erlazioa. Ikus ditzagun adibideak:

  <u>Lokailu eta antolatzaileak</u>: **Kausak adierazterakoan:** *"lehenik esan beharra dago…", Aurreko arrazoiarekin lotuta…" "…Beste arazo bat…,".* **Ondorioak eta adibideak txertatzerakoan:** Erlatibozko perpausak: *"DBH 2B gelako ikasleei egindako inkestaren arabera, % 56a ez litzateke euskarazko film bat ikustera joango eta %20ak berriz, aitortu zuen gaztelerazkoak <u>nahiago zituela</u> eta soilik "agian" <u>joango zirela</u>. Lokailuak: "::.horren ondorioz, beraz, Izan ere, …*

  <u>Erreferentziak</u>: Pelikula hitza: sinonimoa erabiliz. ***filma***, elipsiak: *gehienak (…) gaztelaniaz egiten dituzte, …*

## KOHESIOA: PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | **0-2** ..........0 puntu<br>**3-4** ..........1 puntu<br>**5** ..........2 puntu<br>**6** ..........3 puntu<br>**7** ..........4 puntu<br>**8** ..........5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | X | | | 8 | | **5** |

- Testua paragrafo eta esaldiei dagokionez ongi banatua dago. Esaldien luzera egokia da.
- Orokorrean, komen erabilera egokia da.

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | X | | | | **0-1** ..........0 puntu<br>**2-3** ..........1 puntu<br>**4-5** ..........2 puntu<br>**6-7** ..........3 puntu<br>**8** ..........4 puntu<br>**9** ..........5 puntu<br>**10** ..........6 puntu<br>**11** ..........7 puntu<br>**12** ..........8 puntu<br>**13** ..........9 puntu<br>**14** ..........10 puntu | |
| Eskatutako testu motaren egituraketa moldeari jarraitu dio. Oro har, testuaren egituran sarrera, garapena eta ondorioak igarri dira. | X | | | | | |
| Gaiari garrantzizko tokia eman dio, hobeto testuaren hasieran kokatu badu. | X | | | | | |
| Informazioaren garapena igartzen da, gehiegizko saltoak saihestuz eta alferrikako informaziorik gabe. | X | | | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | X | | | | | |
| Kausa-ondorio harremanak argi adierazi ditu. | X | | | 14 | | **10** |

- Ikasleak kausen analisiaren azalpen-testuen egitura erabili du, fenomeno edo gertaera baten kausak adieraziz. Bere helburua nagusia hartzaileari fenomeno baten kausak edo zergatiak ulertaraztea da.
- Helburu nagusia tituluan agertzen du. *"ZERGATIK EZ DITUGU EUSKARAZKO PELIKULAK IKUSTEN?"*
- Gero, aztertu nahi duen fenomenoaren deskribapen argia egiten du, ustez, beharrezkoak diren azalpen eta adibideak erabiliz. *"Txikitako pailazoak edo antzeko filmak ikusteko garaia joaten denean, gure adineko gazteek, telebistan nahiz zineetan, euskarazko pelikulak ikusteari uzten diogu. DBH 2B gelako ikasleei egindako inkestaren arabera, %56a ez litzateke euskarazko film bat ikustera joango eta %20ak berriz, aitortu zuen gaztelerazkoak nahiago zituela eta soilik "agian" joango zirela.*
- Ondoren, kausak aurkezten ditu. *"Badaude arrazoi bat baino gehiago fenomeno hau gertatzeko… Lehenik, … Aurreko arrazoiari lotuta…Beste arazo bat…*

- Kausa bakoitza ulertarazteko batzuetan adibideak erabili ditu, besteetan berriz, datu edo informazio zehatzak: *"Errazago aurki ditzakegu txikienetako pelikula bat guretzat baino, gehienak 12 urtetik beherako publikoentzat eginak daude eta, beraz, ez dago non aukeratu". "…filmak euskaratzea kostatzen den denbora pila. Lehenik gaztelaniaz egiten dituzte eta euskaratzen dituztenerako, zeukaten interesa galdu dute eta jadanik ez dizkigute erakartzen" "…gazteok, gazteleraz aritzeko ohitura da eta horren ondorioz, errazagoa egiten zaigu erdarazko film bat ikuste, esfortzurik ez baitugu egin behar istorioa jarraitzeko".*
- Behin kontra-argudioa ere erabiltzen du: *"Baina erru guztia ez dute pelikula egileek, gazteen gustuak ere kontutan hartu behar dira".*
- Gaiari garrantzizko tokia eman dio, ez du inkoherentziarik sortu eta kausa-ondorio harremanak ongi adierazi ditu.

## EGOKITASUNA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa… aintzat hartuz. | X | | | | **0** …0 puntu<br>**1** …1 puntu<br>**2** …3 puntu<br>**3** …4 puntu<br>**4** …5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera eta intentzioa kontuan harturik. | X | | | 4 | | **5** |

- Testuak, oro har, eskatutako xedeari erantzuten dio. Egokia da.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan…). | X | | | | **0-2** …0 puntu<br>**3-4** …1 puntu<br>**5** …2 puntu<br>**6** …3 puntu<br>**7** …4 puntu<br>**8** …5 puntu | |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan. | X | | | | | |
| Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da. | X | | | 8 | | **5** |

- Estilo egokia lortzeko erabili behar diren oinarrizko gomendioak ezagutzen ditu ikasleak, besteak beste, puntuazio markak, lokailuen erabilera egokia, esaldi laburrak egitea (alferrikako errepikapenak edo luzapenak saihestuz), eta abar.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Planifikazioa | 5 | KOH. Erreferentzia eta konexioa | 5 | **MAILAK** | | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia | 5 | KOH. Puntuazioa | 5 | **0** eta **14** puntu artean | 1. mailatik behera | |
| Lexikoa | 5 | Koherentzia | 10 | **15** eta **21** puntu artean | 1. maila | |
| Morfosintaxia | 2 | Egokitasuna | 5 | **22** eta **32** puntu artean | 2. maila | |
| Aurkezpena | 5 | Estiloa | 5 | **33** eta **43** puntu artean | 3. maila | **5. MAILA** |
| | | | | **44** eta **50** puntu artean | 4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA** | | | **52 puntu** | **51** eta **55** puntu artean | 5. maila | |

## AZALPEN TESTUA. 2. EREDU ZUZENDUA

ESKAERA- KONTSIGNA:

Aste kulturala dela eta, “Euskara Taldeak” hainbat ekintza proposatu ditu, eta haietako bat DBHko maila guztietarako idatzizko lehiaketa bat da. GAIA: **“EUSKARAREN EGOERA”**.

Horretarako, gai horren inguruan zuk ezagutzen duzun **gertaera edo fenomeno bat** azaldu behar duzu, baina gogoratu! beti ere, euskararekin edo euskararen erabilerarekin erlazionatua.

Behin betiko testua idatzi aurretik egin ezazu planifikazioa, horrek lagunduko dizu ondoren idatzi nahi duzun testua ongi antolatzen. Honetarako baliagarri izan dakizuke honako alderdiak kontuan hartzea:

- Izenburu egokia aurkitu beharko duzu, gaian interesa sortarazteko.
- Zein fenomenoz ariko zaren zehaztu.
- Fenomeno horren kausak identifikatu.
- Fenomeno horrek irtenbiderik al du? Baten bat proposatuko al zenuke?
- Ondorioak ere kontuan izan beharko dituzu.

PLANIFIKAZIOA

GAZTEEN EUSKARA IRUÑEAN

FENOMENOA

Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara Iruñeko gazteen artean? Gaur egun Iruñean, gero eta gehiago dira euskara ikasten duten gazteak, hala ere, gazte hauen artean oso zaila da, eskolatik kanpo euskaraz mintzatzen ikustea.

KAUSAK ETA ADIBIDEAK:

Oro har, gaur egun euskaldun gazte gehienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara, hortaz, eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira. Esate baterako, gaur egungo gazte gehienak patioan gaztelerat mintzatzen dira.

Beste alde batetik, Iruña ~~beste~~ Euskal Herriko beste tokiekin konparatuta, euskal hiztun gutxi ditu. Adibidez, Azpeitian edo Beasainen liburutegi edo okindegi batetara zoazela eta euskaraz mintzatzen dira zurekin. Iruñean, ordea, ez. Horren ondoriot herriko jende gehienarekin ezin duzu euskaraz hitzegin. Azkenik, gazte askok zailtasun asko dituzte bizitza arruntean komunikatzeko (ez dituzte baliabide asko), eta horregatik nahi gabe edo naita gaztelaniara jotzen dute. Adibidez; "es que tengo dolor de cabeza" euskarara pasatzen duqunean gehienetan "eske buruko mina daukat" esaten dugu.

KONPONBIDEAK:

- Ikastolen barruan interes handiko aktibitateak euskaraz jartzea.
- Euskararen kultura gazteei zabaltzea.
- Nafarroko gobernuak euskara laguntzea.

BEHIN-BEHINEKO TESTUA

## GAZTEEN EUSKARA IRUÑEAN

Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara, Iruñeko gazten artean?

Gaur egun Iruñeko edo bere inguruko ikastoletan, gero eta gehiago dira euskara ikasten duten gazteak, hala ere gazte hauen artean oso zaila da gero, eskolatik kanpo, euskaraz mintzatzen ikustea bizitza arruntean.

Oro har, gaur egun, euskaldun gazte gehienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara, eta orduan eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira, eta horren ondorioz, azkenean ohitura hartuko dute eta ikastola orduetan ere gaztelaniaz mintzatzen hasiko dira lagunartean. Esate baterako, gaur egungo gazte gehienak ikastolako patioan gazteleraz mintzatzen dira. Hori gertatzen da, lagunartean, ohituta daudelako eskolatik kanpo daudenean gazteleraz hitzegitera. Eta ia honen muturrera joanda, azkenean, klase orduetan gaztelaniaz mintzatuko dira lagunekin.

Beste alde batetik, Iruñea Euskal Herriko beste tokiekin konparatuta, oso euskal hiztun gutxi ditu, izan ere Iruñean, gaztelaniak euskarak baino indar gehiago dauka erabilera orduan. Honekin esatera noana da, adibidez, Azpeitin edo Beasainen liburutegi edo okindegi batetara zoazela eta euskaraz mintzatzen direla zurekin. Iruñean, ordea, leku gehienetan, orain aipatutako lekuetan adibidez, gaztelaniaz hitz egiten dizute. Horren ondorioz, herriko jende gehienarekin ezin duzu euskaraz hitzegin haiek ez dakitelako, eta pixkanaka-pixkanaka hizkuntza galtzen zoaz gero eta gutxiago hitzegiten duzulako (euskaraz).

Azkenik, gazte askok zailtasun asko dituzte bizitza arruntean komunikatzeko (ez dituzte hizkuntzaren baliabide asko), eta horregatik nahi gabe edo naita gaztelaniara jotzen

dute. Honekin adierazi nahi dudana da, gazte askok euskarat gauza bat esaten ez dakitenean, ez direla saiatzen erantzun egokia bilatzen eta azkenean [redacted] ohitura hartu eta haien euskara gero eta karkarragoa bihurtzen da.

Adibidez; "es que tengo dolor de cabeza" euskarara pasatzen duguneau gehienetan "eske buruko mina daukat" esaten dugu eta ez gara ohartzen gaizki esaten ari garela. Gainera akatsaz ohartu bagara, berdin zaigu eta ez gara konpontzen saiatzen. Orduan gauza berbera esaten dugun beste batean berdin esaten jarraituko dugu.

Hau guztia esan eta ikusi ondoren, arazo honentzat, hainbat konponbide daudela uste dut:

- Ikastolen barruan interes handiko aktibitateak euskarat jartzea.
- Euskararen kultura gazteei zabaltzea. (Ikastoletan, museoetan, zinemetan, interneten...)
- Nafarroko gobernuak euskara laguntzea (ekonomian, kulturan...), euskara normaltzen laguntzeko ahal den guztia, eta modu egokienean.

## PLANIFIKAZIOA

GAZTEEN EUSKARA IRUÑEAN

FENOMENOA:

Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara Iruñeko gazteen artean? Gaur egun Iruñean, gero eta gehiago dira euskara ikasten duten gazteak, hala ere, gazte hauen artean oso zaila da, eskolatik kanpo euskaraz mintzatzen ikustea.

KAUSAK ETA ADIBIDEAK;

Oro har, gaur egun euskaldun gazte gehienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara, hortaz, eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira. Esate baterako, gaur egungo gazte gehienak patioan gazteleraz mintzatzen dira.

Beste alde batetik, Iruña Euskal Herriko beste tokiekin konparatuta, euskal hiztun gutxi ditu. Adibidez, Azpeitin edo Beasainen liburutegi edo okindegi batetara zoazela eta euskaraz mintzatzen dira zurekin. Iruñean, ordea, ez. Horren ondorioz herriko jende gehienarekin ezin duzu euskaraz hitzegin.

Azkenik, gazte askok zailtasun asko dituzte bizitza arruntean komunikatzeko (ez dituzte hizkuntzaren baliabide asko), eta horregatik nahi gabe edo naita gaztelaniara jotzen dute. Adibidez; "es que tengo dolor de cabeza" euskarara pasatzen dugunean gehienetan "eske buruko mina daukat" esaten dugu.

KONPONBIDEAK:

- Ikastolen barruan interes handiko aktibitateak euskaraz jartzea.
- Euskararen kultura gazteei zabaltzea.
- Nafarroko gobernuak euskara laguntzea.

## BEHIN BETIKO TESTUA

*GAZTEEN EUSKARA IRUÑEAN*

*Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara, Iruñeko gazteen artean?*

*Gaur egun Iruñeko edo bere inguruko ikastoletan, gero eta gehiago dira euskara ikasten duten gazteak, hala ere gazte hauen artean oso zaila da gero, eskolatik kanpo, euskaraz mintzatzen ikustea bizitza arruntean.*

*Oro har, gaur egun, euskaldun gazte geienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara, eta orduan eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira, eta horren ondorioz, azkenean ohitura hartuko dute eta ikastola orduetan ere gaztelaniaz mintzatzen hasiko dira lagunartean. Esate baterako, gaur egungo gazte gehienak ikastolako patioan gazteleraz mintzatzen dira. Hori gertatzen da, lagunartean, ohituta daudelako eskolatik kanpo daudenean gazteleraz hitzegitera. Eta ia honen muturrera joanda, azkenean, klase orduetan gaztelaniaz mintzatuko dira lagunekin.*

Beste alde batetik, Iruñea Euskal Herriko beste tokiekin konparatuta, oso euskal hiztun gutxi ditu, izan ere Iruñean, gaztelaniak euskarak baino indar gehiago dauka erabilera orduan. Honekin esatera noana da, adibidez, Azpeitin edo Beasainen liburutegi edo okindegi batetara zoazela eta euskaraz mintzatzen direla zurekin. Iruñean, ordea, leku gehienetan, orain aipatutako lekuetan adibidez, gaztelaniaz hitz egiten dizute. Horren ondorioz, herriko jende gehienarekin ezin duzu euskaraz hitzegin haiek ez dakitelako, eta pixkanaka-pixkanaka hizkuntza galtzen zoaz gero eta gutxiago hitzegiten duzulako. (euskaraz)

Azkenik, gazte askok zailtasun asko dituzte bizitza arruntean komunikatzeko (ez dituzte hizkuntzaren baliabide asko), eta horregatik nahi gabe edo naita gaztelaniara jotzen dute. Honekin adierazi nahi dudana da, gazte askok euskaraz gauza bat esaten ez dakitenean, ez direla saiatzen erantzun egokia bilatzen eta azkenean ohitura hartu eta haien euskara gero eta kaxkarragoa bihurtzen da.

Adibidez; "es que tengo dolor de cabeza" euskarara pasatzen dugunean gehienetan "eske buruko mina daukat" esaten dugu eta ez gara ohartzen gaizki esaten ari garela. Gainera akatsaz ohartu bagara, berdin zaigu eta ez gara konpontzen saiatzen. Orduan gauza berbera esaten dugun beste batean berdin esaten jarraituko dugu.

Hau guztia esan eta ikusi ondoren, arazo honentzat, hainbat konponbide daudela uste dut:

- Ikastolen barruan interes handiko aktibitateak euskaraz jartzea.
- Euskararen kultura gazteei zabaltzea. (Ikastoletan, museoetan, zinemetan, interneten...
- Nafarroko gobernuak euskara laguntzea (ekonomian, kulturan... ), euskara normaltzen laguntzeko ahal den guztia, eta modu egokienean.

| AZALPEN TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | | | |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | X | | | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | X | 4 | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | **3** |

- Informazioa antolatzeko arazo-konponbide testu motaren eskema bat erabili du eta ideia aberastasuna antzematen da, baina planifikazioa ez dago modu sintetikoan egina, ia-ia testu osoa idatzi du.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | | X | | | | |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | X | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | X | | 5 | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | **2** |

- “Hitz egiten” aditza sarritan elkarturik idatzi du: **hitzegitera, *hitzegiteagatik,*, *hitzegin*. Gainerako hitzak ongi bereizi ditu. Hori dela eta puntu bat eman diogu.

- Orokorrean, erregela ortografikoak ongi aplikatzen ditu baina baditu hutsegite batzuk: “H”ari dagokionez,: *“*geienak*, (kasu honetan hanka sartzea dirudi, gainerako guztiak ongi idatzi baititu)**naita*, (badirudi ez dela ohartu nahi hitzatik sortua dela), eta letra larrien erabileran: **Nafarroko **g**obernuak”*. (Nafarroako Gobernuak)

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko forma jatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *desayunatu ...* | | X | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: *gai, gauza, egin, zerbait…* | X | | | | | |
| -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: **gauz, *aiton…* | | X | | 5 | | **4** |

- Lexiko aberatsa erakusten du. Gaiarekin lotuta adibidez: *“hitz egin, mintzatu, hiztun, hizkuntza baliabide, normalizazioa…”*
- -a itsatsiari dagokionez, baditu nahikoa ohikoak diren akatsak. *“*Azpeitin*, (Azpeitian) **Nafarroko gobernuak”* (Nafarroako Gobernuak)

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | X | | **0-1-2** .........0 puntu<br>**3-4-5-6** .........1 puntu<br>**7-8-9-10** .........2 puntu<br>**11-12-13** .........3 puntu<br>**14-15-16** .........4 puntu<br>**17-18** .........5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | X | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | X | | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | X | | | |
| Gaztelaniazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz: **ERE jaten ditu intsektuak* | X | | | | | |
| Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *“*Bada animalia bat handiagoa dela”* bezalakoak saihestuz. | | X | | | | |
| Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. …-eta, Bait-, -enez gero eta horrelakoak erabili ditu. | | | X | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu. | | X | | 10 | | **2** |

- Deklinabidean badago akatsen bat: *“*arazo honentzat”* kasuan, adibidez, ***honetarako*** beharko luke.
- Lehen irakurketa batean badirudi sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin dituela, gaztelaniazko egiturak saihestuz, galdegaiak zuzen erabiliz, eta baita menpeko gehienak ongi eratuz, hala ere, astiro irakurriz, ikus daiteke badaudela hainbat akats bakarreko puntua edo

puntu eza justifika dezaketenak: Adibidez: *“*Iruñea Euskal Herriko beste tokiekin konparatuta, oso euskal hiztun gutxi **ditu**…”*, ( hau ere bada nor-nork subjektuaren erabilera okerra).

*“*Honekin **esatera noana** da, adibidez, Azpeitin edo Beasainen liburutegi edo okindegi batetara **zoazela eta** euskaraz mintzatzen direla zurekin.”* esaldian, perpaus konpletiboa sortu du baldintzazkoa edo denborazkoaren ordez: *okindegi batetara bazoaz edo zoazenean…*, gainera, jarraian agertzen den ***eta*** emendiozko juntagailua soberan dago.

Honako menpeko perpausetan logikoena litzateke azkena ere konpletiboa egitea emendiozkoa egin ordez *“ez direl**a** saiatzen erantzun egokia bilatzen eta azkenean ohitura hartu eta haien euskara gero eta kaxkarragoa bihurtzen **da(la)**.*

Azken esaldiak ere egitura kaxkarra du, *“*Orduan gauza berbera esaten dugun beste batean berdin esaten jarraituko dugu”*

- Kausazko hiru perpausetan egitura bera erabili du beti: “ez dakitelako”, “gero eta gutxiago hitzegiten duzulako”, “ohituta daudelako”. Beste perpaus motetan, hala ere, aniztasun handiagoa igartzen da.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

**AURKEZPENA** (5 puntu)

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | **X** | | | | **0-1**…0 puntu<br>**2**…1 puntu<br>**3**…2 puntu | **4**…3 puntu<br>**5**…4 puntu<br>**6**…5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | **X** | | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | **X** | | | 6 | | | **5** |

- Aurkezpena nahiko egokia da. Letra txukuna eta ulergarria du
- Eskuineko marjina ez du behar bezainbat errespetatu, hala ere, testuaren luzera ikusita pentsa daiteke pittin bat estutzen saiatu dela dena sartu ahal izateko orri batean.
- Izenburua ongi bereizi du testuaren gorputzetik

## KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | X | | | | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | X | | | | **0-2** ...0 puntu<br>**3-4** ...1 puntu<br>**5** ...2 puntu<br>**6** ...3 puntu<br>**7** ...4 puntu<br>**8** ...5 puntu | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. | X | | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 7 | | **4** |

- Badago kohesioari dagokion errepikapen nabarmen bat: *“Azkenik, gazte **askok** zailtasun **asko** dituzte bizitza arruntean komunikatzeko (ez dituzte hizkuntzaren baliabide **asko**), eta horregatik nahi gabe edo naita gaztelaniara jotzen dute. Honekin adierazi nahi dudana da, gazte **askok** euskaraz gauza bat esaten ez dakitenean”*
- Erreferentzia ongi mantendu du eta ideiak ere oso ongi josi ditu antolatzaile, lokailu eta lotura-erlazio egokiak erabiliz. Adibidez: *Gaur egun…; Oro har,…; Beste alde batetik…; azkenik…; Hau guztia esan eta ikusi ondoren…; eta horren ondorioz;… ia honen muturrera joanda…, izan ere, ordea, gainera, …*

## KOHESIOA: PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | **0-2** ...0 puntu<br>**3-4** ...1 puntu<br>**5** ...2 puntu<br>**6** ...3 puntu<br>**7** ...4 puntu<br>**8** ...5 puntu | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | X | 6 | | **3** |

- Arestian esan dugu ideiak ongi lotu dituela antolatzaile edo lokailu egokiak erabiliz baina sarritan agertzen dira hauek komarik gabe, baita aposizioak eta menpeko perpausak ere. Ikus dezagun: *“… gero eta gehiago dira euskara ikasten duten gazteak, **hala ere** hauen artean…; …oso hiztun gutxi ditu, **izan ere** Iruñean…; …erantzun egokia bilatzen eta azkenean **ohitura hartu** eta haien euskara gero eta…; Adibidez; "es que tengo dolor de cabeza" euskarara pasatzen dugunean(,) gehienetan "eske buruko mina daukat" esaten dugu eta ez gara ohartzen gaizki esaten ari garela. **Gainera** akatsaz ohartu bagara, berdin zaigu eta ez gara konpontzen saiatzen. **Orduan** gauza berbera esaten dugun beste batean(,) berdin esaten jarraituko dugu”.*

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren ideia orokorra erraz ulertzen da. | | X | | | **0-1** ...............0 puntu<br>**2-3** ...............1 puntu<br>**4-5** ...............2 puntu<br>**6-7** ...............3 puntu<br>**8** ...............4 puntu<br>**9** ...............5 puntu<br>**10** ...............6 puntu<br>**11** ...............7 puntu<br>**12** ...............8 puntu<br>**13** ...............9 puntu<br>**14** ...............10 puntu | |
| Eskatutako testu motaren egituraketa moldeari jarraitu dio. Oro har, testuaren egituran sarrera, garapena eta ondorioak igarri dira. | X | | | | | |
| Gaiari garrantzizko tokia eman dio, hobeto testuaren hasieran kokatu badu. | X | | | | | |
| Informazioaren garapena igartzen da, gehiegizko saltoak saihestuz eta alferrikako informaziorik gabe. | | X | | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | X | | | | | |
| Kausa-ondorio harremanak argi adierazi ditu. | X | | | 12 | | **8** |

- Testua osotasunean hartuta koherentea dela esan genezake. Dena den, badaude zalantzan jar ditzakegun hainbat alderdi eta emandako puntuazioa justifika lezaketenak. Alde batetik, izenburua *“Gazteen euskara Iruñean”*: Bertan espero da gaia eta xedea egoki agertzea, baina gure ustez, gaia modu anbiguoan azaldu du ikasleak. Irudi lezake gazte-hizkeraz edo hitz egingo duela. Agian, hurrengo galdera izan liteke izenburu egokiagoa:” *“Zergatik hitz egiten da hain gutxi euskara, Iruñeko gazteen artean?*, edo *“Iruñeko gazteek ez dute euskaraz hitz egiten”*, halako zerbait. Hala eta guztiz ere, lehen esaldian, galdera moduan, testuaren xedea agertu du, hurrengo 3 paragrafoetan saiatu da gaia esplikatzen kausa-ondorio erlazioa erabiliz, eta azkenik, konponbidea azaldu du.

- Ez dago kontraesanik, ezta inkoherentzia partzialik ere.

- Oro har, informazioaren garapena igartzen da, baina bigarren paragrafoan, fenomenoaren lehenengo kausa adierazi eta adibidea eman ondoren, beste modura, baina errepikatu du hasieran esandakoa. *“Oro har, gaur egun, euskaldun gazte gehienek beste arlo bat bezala ikusten dute euskara, eta orduan eskola amaitzen denean txipa aldatu eta gaztelaniara pasatzen dira, eta horren ondorioz, azkenean ohitura hartuko dute eta ikastola orduetan ere gaztelaniaz mintzatzen hasiko dira lagunartean. Esate baterako, gaur egungo gazte gehienak ikastolako patioan gazteleraz mintzatzen dira. <u>Hori gertatzen da, lagunartean, ohituta daudelako eskolatik kanpo daudenean gazteleraz hitzegitera. Eta ia honen muturrera joanda, azkenean, klase orduetan gaztelaniaz mintzatuko dira lagunekin.</u>”*

## **EGOKITASUNA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa… aintzat hartuz. | X | | | | **0** ..................0 puntu<br>**1** ..................1 puntu<br>**2** ..................3 puntu<br>**3** ..................4 puntu<br>**4** ..................5 puntu | |
| Dagokion erregistroa darabil, egoera eta intentzioa kontuan harturik. | X | | | 4 | | **5** |

- Emandako kontsignari jarraitzen dio testuak. Arazo baten esplikazioa eman du ikasleak, arazo-konponbide egitura hautatuz, eta egindako planteamendua testu mota horri dagokiona da. Fenomenoaren analisia egiteko datuak eman ditu, argudioak eta adibideak, bere burua nolabait inplikatuz, baina neurriz.

- Igorlearen rolarekin jarraituz, fenomenoaren aurkezpena, lehenengo eta azken kausak 3. pertsonan idatziak daude, hau da, 1., 2. eta 4. paragrafoak; 2. kausa, oso osorik, 2. pertsonan idatzi du eta azken kausaren adibidea gehi ematen dituen arazoaren konponbideak, 1. pertsonan. Azalpen testuetan ohikoa izaten da arazoaren konponbidea(k) ematerakoan norberaren iritzia emanez osatzea, beraz, logikoa da aditza 1. pertsonan agertzea: *"… Hau guztia esan eta ikusi ondoren, arazo honentzat, hainbat konponbide daudela uste **dut**"*

- Erregistroari dagokionez, egokia dela esan genezake. Lehiaketako idatzien hartzaileak, teorian, ikaskideak dira eta, gure ustez, oreka lortu du ikasleak erabilitako hizkeran. Ildo horretatik, badira lagunarteko hizkerari dagozkion hainbat egitura, ontzat emango genituzkeenak. "txipa aldatu" espresioa edo aipatu dugun lagunarteko 2. pertsonaren erabilera *"Iruñean, ordea, leku gehienetan, orain aipatutako lekuetan adibidez, gaztelaniaz hitz egiten **dizute**"*

## **ESTILOA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (ideietan, hitzetan, egituretan, juntagailuetan…). | | X | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan. | X | | | | | |
| Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | X | | | | | |
| Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da. | X | | | 7 | | **4** |

- 4. paragrafoan ***asko*** hitza 4 alditan errepikatu du. Eta –elako egitura soilik erabili du kausazko perpausak eratzeko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa............ 3 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 4 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 2 | KOH. Puntuazioa........................... 3 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa .................... 4 | Koherentzia.................................. 8 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Morfosintaxia........... 2 | Egokitasuna ................................. 5 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | **3. MAILA** |
| Aurkezpena.............. 5 | Estiloa .......................................... 4 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 40 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

# V. Argudio testua

Argudiozko testua gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen tesia, iritzia, ustea edo postura bat egiaztatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiz osaturiko testua da.

Argudio-diskurtsoek hartzailearen pentsaeran, jarreran edo portaeran eragina izatea dute helburu. Hala ere, beste zenbait helburu mugatuago ere eduki ditzakete:

- Gizartean bizi-bizirik dagoen gai baten inguruan eztabaida sortzea.
- Gai baten inguruan iritzia ematea.
- Gai baten inguruan hausnarketa bultzatzea.

Testu mota honek hainbat ezaugarri bere-bereak ditu:

- Igorleak ia beti 1. pertsonan hitz egiten du.
- Hartzailearen markak sarritan agertzen dira testuan, funtzio deitzaile edo eragilea dela medio.
- Tonu subjektiboa. Igorleak bere iritziz eta bere iritzirako jokatzen du.
- Nahiko maila abstraktua, argudioak eta arrazoitzeak ideien mailan harilkatzen baitira.

Egiturak hiru pausoko eskema bati jarraitzen dio gehienetan: hasierako tesia, argudioen gorputza eta tesi berria edo ondorioa.

HASIERAKO TESIA. Bertan, igorleak gaiari buruz daukan iritzia edo ikuspuntua agertzen da. Tesia, sarritan, testuaren sarreran agertu ohi da. Sarrerak gaiarekiko interesa piztea du helburu. Bestalde, gaiak haren alde edo aurka aritzeko aukera eman behar du. Hala ere, ez da beti agertzen den zatia, batzuetan modu inplizituan baitago.

TESIAREN ARGUDIAKETA edo ARGUDIOEN GORPUTZA: Zati honetan hipotesia edo ikuspuntua frogatzen eta justifikatzen duten argudio, ideia, datu eta frogen azalpenak ageri dira.

- **Tesiaren aldeko argudioak.** Igorleak bere tesiaren alde hainbat argudio edo arrazoi ematen ditu.
- **Argudioak indartzeko esplikazioak edo adibideak.** Horrelakoen bidez frogatzen du igorleak emandako arrazoiak baliozkoak direla.
- **Kontra-argudioak.** Gaiaz beste iritzi bat daukan norbaitek hura defendatzeko erabil litzakeen argudioak dira. Komenigarria da argudio-egoera batean kontra-argudioak erabiltzea, besteen iritziekiko errespetua adierazteko moduetako bat baita.
- **Kontra-argudioak indargabetzeko argudioak.** Kontra-argudioei indarra kentzeko igorleak erabiltzen dituen argudioak dira. Horiek indartzeko, adibideak eman ditzake igorleak.

ONDORIO edo KONKLUSIOA. Testuaren amaierako atal honetan, tesia berreskuratzen du igorleak, behin argudioak azaldu ondoren, indar eta ziurtasun handiagoz adieraziko duena.

Esandakoak aintzat hartuz, **berariazko** hainbat adierazle erabiliko ditugu testu mota jakin honetan, batik bat sintaxiari, kohesioari eta koherentziari dagozkion ataletan. DBH 2 eta 3ko testu errealetan aurkitutako adibideak ematen saiatu gara, akats esanguratsuenak erabiliz, irizpideak argi uler daitezen.

## 1. PLANIFIKAZIOA

Alderdi honek aparteko iruzkina behar duelakoan gaude. Izan ere, ikasleekin idazketaren prozesu osoa lantzen dugunean testuaren planifikazioak eta zirriborroak berebiziko garrantzia hartzen dute. Unitate didaktiko baten edo testu mota jakin baten lanketa sistematikoaren ondorioz ikasleak egindako hasierako planifikazio edo zirriborrotik behin betiko testura egindako hobekuntzak baloratzen ditugu batik bat. Alegia, ikasitakoa erabiliz ikasleak bere zirriborroak berrikusteko eta eraldatzeko izan duen gaitasuna. Prozesuaren beraren balorazio orokorra honako adierazleen bitartez egin genezake:

- Informazioa aukeratzeko sistemaren bat erabili du.
- Planifikazioa modu sintetikoan egin du.
- Zirriborroa idatzi du.
- Zirriborroa edukia eta egitura perfilatzeko lagungarria da.
- Zirriborroa berrikusi eta eraldatu du.

Baina une jakin bateko idazketa-ariketa planteatuz gero, testuaren azken emaitza izango genuke soilik eta, beraz, bestelako balorazioa egin beharko genuke. Horrexegatik mugatu ditugu adierazleak taula orokorrean.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA

### 2.1. HITZ ETA PERPAUS MAILA

#### 2.1.1. Ortografia

➢ Hitzak ongi bereizi ditu. Adib., ez du erabili honelakorik: *”*Gelan asko **hitzegiten** dugu” edo “…* **etxekolan** gehiegi ditugu”.*

➢ Oinarrizko ortografia-arauak aplikatu ditu.

❍ H-ren erabileran: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... Adib., *“*Beno irakurleok ahu da dena”*.

❍ Oro har, txistukarien idazkeran: s/z/x eta ts/tz/tx.

❍ Letra larrien erabileran: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren...

- ❍ Euskarazko hitzetan gaztelerazko arauak ez ditu aplikatzen: -mp-, mb-, v eta c letren erabilera... Adib, *"*arazoa oso **simplea** da"*.

### 2.1.2. Lexikoa

- ➢ Ez du hitzik asmatu. Adib., *"*Irakasleak klase **dibertitzaileagoak** egingo zituen"*
- ➢ Euskarazko formak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak edo erdarakadak: *"***jobiak** praktikatzeko denbora behar dugu…", "*klasean **sentatzen** ginen..." "…jendea kexatzen da eta **parte** batetik arrazoia daukate…"*
- ➢ Lexiko zehatza erabili du, eta "denetarako" hitzak saihestu: gai, gauza, egin, zerbait. .. Alderdi honetan askotan nahasten dira, esate baterako, <u>bera</u> eta <u>berdina</u>, adib., *"*irakasleek **berdina** esaten zuten"* (gauza bera), edo *"*etxeko lan **berdina** izaten dugunean…"* (berbera).
- ➢ Lexiko aberatsa erabili du. Ez du honelakorik egin: *"…eta erosten badugu horrelako **katxarro** bat"*
- ➢ -a itsatsia duten hitzak ongi erabili ditu: gauza, aitzakia, garrantzia... Kontrakoa ere gerta daiteke, alegia, -a itsatsia ez duten hitzei –a eranstea, adib., **bost alditan egin behar izan genuen **lana** hura.*

### 2.1.3. Morfosintaxia

- ➢ Aditz formak ongi erabili ditu, eta komunztadura zaindu. Adib., *"*…nire iritziak emango **dizkizugu** etxeko- lanei buruz.", edo "*irakasleak ez **digute** uzten…"*.
- ➢ Deklinabidea:
  - ❍ Oro har, deklinabidea zehaztasunez erabili du, kasuak nahasi gabe. Esaterako, posposizioekin, gatik/-gandik... ****Itsasorengandik** jo zuten* (Itsasoren erruz) Beste batzuetan kasuen arteko nahasketa gerta daiteke: *"* denbora gehiago izateko gure **jobientzat**"*. *(jobietarako edo hobe esanda, zaletasunerako)*
  - ❍ Izen bizidun eta bizigabeak bereizten ditu. Honelako akatsak oso ohikoak izaten dira, adib., *"… eta etxeko lanek gure **denborarengan** eragin haundia du."* (*denboran* beharko luke, bizigabea baita), edo *"*Irakasleak ez digute uzten **medikura** joaten ere"*. (*medikuarengana* esan ordez).

- ❍ Mugagabea ongi erabili du. Lehenengo bi mailetan bereziki, zaila egiten zaie mugagabearen erabilera egokia. Maiz aurkitzen ditugu honelako akatsak: *“* eta bi **gelara** joan ginelako zigortzea ez da logikoa”. “*Egin behar genituen bost **ariketak**”.*

- ❍ Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. Hau izaten da etengabe zuzendu beharreko akatsetako bat. Adib., *“*Inporta zaiena **gu** etxeko lanak egitea”*.

- ❍ Partitiboa zuzen erabili du: *“*Egun horretan ez dugu etxeko **lana**”*.

- ❍ Instrumentala eta “norekin” kasuak ongi darabiltza, nahastu gabe. Ez ditu honelako akatsak: *“*Lehenik irakasleak gehiago kezkatzea **ikasleetaz**” (ikaslez)*, edo “…* kolore **gorriekin** (gorriz) markatzea.”*

- ❍ Nor Nork saileko adizkiak egoki erabili ditu: **Andereñoari ikusi **zion** etortzen eta…”*.

➢ Izenordainak:

- ❍ Izenordain indartuak erabili ditu beharrezkoa denean.

- ❍ Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: *“*ispiluan begiratzen **zarenean**…”, “*ez **gara** elkar hitz egiten eta..”*.

➢ Sintaxia:

- ❍ Oro har, sintaktikoki zuzenak diren perpausak osatu ditu. Perpausak bukatu ditu.

- ❍ Hitz-ordenari dagokionez:

  - Galdegaia eta mintzagaia zuzen erabili ditu. Adibidez: *“*Irakasleak ea zergatik hain gutxi ikasi genuen galdetu zigunean…”* esaldiaren ordena desegokia da, zergatik partikula galdegaia izanik adit-zak bere atzean joan beharko lukeelako.

  - ERE partikularen erabilera zaindu du. *“*…ere egon gaitezke lagunekin, ordenagailuan…”* gisako erabilerak egin gabe.

  - Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. Adib, *“*guregatik egina izan zen “*

- ❍ Perpaus elkartuak:

  - Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, *“*Badut lagun bat esaten **duela** asko ikasten duela”* bezalakoak saihestuz. Argi

dago honelako egiturak gazteleratik jasotako ereduak direla eta aski zabalduak daudela gure ikasleen artean.

- Emendiozko juntadura ez du gehiegi erabili.
- Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. ...- *eta, Bait-, -...enez gero* eta horrelakoak ere erabili ditu. Ondorengo 1. testuan ikus genezake ikasleak ez duela –elako menderagailua besterik erabili: *"ez dugulako lanik egiten,…nahi dutelako, ez dugulako denborarik…,"* Joera arrunta izaten da hau DBHko lehenengo bi urtetan.

## 2.2. TESTU MAILA

### 2.2.1. Aurkezpena

➢ Letra ulergarria erabili du.

➢ Marjinak errespetatu ditu.

➢ Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du.

### 2.2.2. Kohesioa

2.2.2.1. Erreferentzia eta konexioa

➢ Alferrikako errepikapenak saihestu ditu.

➢ Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. Askotan gertatzen da testuan lehenik agertutako elementu bati hurrengo perpausean edo paragrafoan , berriro erreferentzia egin beharra baina ez da erraza suertatzen, batez ere, lehenengo zikloan. Adibidez, hautatutako lehen testuan, gaia "etxeko lanak" izanik, **etxeko lan** hitza 7 alditan agertzen da, inongo ordezkapen edo elipsirik erabili gabe eta ondorioz, testua oso astuna suertatzen da.

➢ Oro har, testuan ideiak josita daude, hainbat motatako lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako: kausa-ondoriozkoak, kontrajarpenezkoak, emendiozkoak (argumentuak gehitzerakoan)… Adibidez: Tesia eta argudioak lotzeko: *"Gure ustez… Gainera… Eta guretzat beste arrazoi bat badago…"* Sintesia edo ondorioa azaltzeko: *"Laburbilduz,…"* Kontrakotasuna adierazteko: *"baina, hala ere…"*

➢ Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. Kasu honetan adibidez, baldintza-ondorioaren erlazioa gaizki legoke: *"*klaseak dibertigarriak **egiten badituzte** klasean lan gehiago **egingo genuke**"* (baldintza erreala eta ondorio hipotetikoa)

2.2.2.2. Puntuazioa

➢ Paragrafoak bereizi ditu, puntu eta aparte eginez.

➢ Paragrafoak erregularrak dira, eta ez luzeegiak.

➢ Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz.

➢ Estilo zatikatua saihestu du (perpaus oso laburrak, bata bestearen atzetik).

➢ Komen erabileraz:

- Komak erabili ditu aposizioak edo azalpenak tartekatzeko. *"Duela gutxi, aldizkari honetan, eztabaida bat proposatu zen eta gure iritzia eskatzen zenez, gelakideek hitz egin ondoren, parte hartzea erabaki genuen."* Adibide honetan, berriz, garbia da komen beharra: *"*Guk ikasleok gure eskaerak adierazi nahi ditugu".*

- Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. Esaldi honetan, adibidez, ez da betetzen: *"*Gauza pare bat, esango nizkioke ausartuko banitz."*

- Zerrendatzeetan erabili du.

- Testu antolatzaileekin erabili du. Ikus daitekeenez, testu zati honetan ez da bakar bat ageri:

  *"* Lehenik irakasleak gehiago kezkatzea ikasleetaz*
  *Bigarren irakasleak etxeko lan gutxiago bidaltzea denbora gehiago izateko gure jobientzat*
  *Azkenik klaseak dibertigarriak egiten badituzte klasean lan gehiago egingo genuke*
  *Beno irakurleok ahu da guztia etxeko-lanei buruz"*

➢ Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu. *"…Eztabaida gaia hauxe zen: "uste al duzue irakasleek etxeko-lan gehiegi bidaltzen dituztela?"*

### 2.2.3. Koherentzia

- Testuaren zentzu orokorra (tesia eta argudioak) jasotzeko moduan dago idatzita.
- Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: zuzendariari gutuna, iritzi-artikulua, kexa, eztabaida...
- Ez dago kontraesanik edo inkoherentzia partzialik (kohesio edo morfosintaxiak eragindakoak, edo bestelakoak)
- Errealitatea ez ezagutzetik letorkeen inkoherentziarik ez da ageri.
- Izenburua intentzioarekiko egokia da, eskatzen den testu motaren arabera.
- Egitura egokia da. Hobeto, tesia hasieran eman badu, argudio-kontra-argudioak ondoren, eta ondorioak, azkenik.
- Tesia argi uzten du.
- Argudio sendoak eta esanguratsuak darabiltza: adibideak, kausa-ondorio erlazio logikoak, analogiak...
- Kontra-argudioak eman ditu, kontzesioa egoki erabiliaz.
- Argudioak hierarkizatu egin ditu, sendoenak hasieran kokatuz.
- Falaziak saihestu ditu: gehiegizko orokortzeak, topikoak, aurreiritziak, hartzailearen emozio edo interesetara jotzen duten arrazonamenduak...
- Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri.
- Ez ditu kausak eta ondorioak nahasi.
- Irakurleak gehiegizko inferentzia egitera ez ditu behartzen.
- Argudiatzearen garapena igartzen da.

### 2.2.4. Egokitasuna

- Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio, igorlearen rola, hartzailea, asmo komunikatiboa... aintzat hartuz.
- Dagokion erregistroa darabil, egoera, intentzioa edo pertsonaien ezaugarriak kontuan harturik.
- Hartzailea inplikatzeko erabiltzen dituen baliabideak egokiak dira. Esate baterako deitikoak, galdera erretorikoak, 2. pertsona…

### 2.2.5. Estiloa

- Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, juntagailuetan...)
- Estilo zatikatua saihestu du, bai eta gehiegizko emendiozko juntadura ere.
- Testu aberatsa da ideietan: argudio sendoak, kontra-argudioak, konparaketak…
- Lexiko eta egitura aberatsak erabiltzen saiatu da.

Aurretik zehaztutako adierazle guztiak kontrol zerrenda moduan edo ikasleen testuak zuzentzeko marko gisa erabiltzea zail samar gerta daitekeela jakinda, ondoko taulan laburtzen saiatu gara. Argi dago, modu berean, taula hau ere eskatutako kontsignaren arabera molda daitekeela, adierazle guztiak agertzen ez badira, edo ezaugarri orokorragoak erabili nahi badira.

| **ARGUDIO TESTUA** | | | | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **PLANIFIKAZIOA** | | | Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | | Ideia aberastasuna antzematen da. | | | | | | |
| | | | Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | | | | | | |
| **TESTUAREN ZUZENKETA** | **Hitz eta perpaus maila** | **Ortografia** | Hitzak ongi bereizi ditu. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5-6** ..................2 puntu<br>**7-8** ..................3 puntu<br>**9** ..................4 puntu<br>**10** ..................5 puntu | |
| | | | H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | | | | | |
| | | | Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | | | | | | |
| | | | Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | | | | | | |
| | | | Ez ditu gaztelerazko arauak aplikatu. | | | | | | |
| | | **Lexikoa** | Euskarazko formajatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *jobiak ...* | | | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| | | | Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: gai, gauza, egin, zerbait.. | | | | | | |
| | | | - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | | | | | | |
| | | **Morfosintaxia** | Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | | | | **0-1-2-3**.....0 puntu<br>**4-5-6-7**.....1 puntu<br>**8-9-10-11**.....2 puntu<br>**12-13-14-15**....3 puntu<br>**16-17-18**.....4 puntu<br>**19-20**.....5 puntu | |
| | | | Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Izenordain elkarkariak eta bihurkariak erabili ditu, honako esaldiak saihestuz: “*uretara botatzen da”, “*elkar joaten gara etxera”… | | | | | | |
| | | | Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | | | | | |
| | | | Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | Galdegaia zuzen erabiltzen du, bereziki ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | | | | | | |
| | | | Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, “Agertu zen gizon bat diru asko zuela” bezalakoak saihestuz. | | | | | | |
| | | | Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. ...- eta, Bait-, -...enez gero eta horrelakoak ere erabili ditu. | | | | | | |
| | | | Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adib., emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe) | | | | | | |

*Jarraitzen du...*

| | | | ARGUDIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| TESTUAREN ZUZENKETA | Testu maila | Aurkez-pena | Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| | | | Marjinak errespetatu ditu. | | | | | | |
| | | | Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | | | | | | |
| | | Kohesioa – Erreferentzi eta Konexioa | Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | | | | |
| | | | Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | | | | | | |
| | | | Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | | | | | |
| | | Kohesioa – Puntuazioa | Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | | | | | **0-1-2**............0 puntu<br>**3-4-5**............1 puntu<br>**6-7-8**............2 puntu<br>**9-10**............3 puntu<br>**11-12**............4 puntu<br>**13-14**............5 puntu | |
| | | | Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | | | | | | |
| | | | Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | | | | | | |
| | | | Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | | | | |
| | | | Kakotxak erabili ditu estilo zuzena tartekatzean. | | | | | | |
| | | | Bi puntu erabili ditu estilo zuzena hasiko den unean. | | | | | | |
| | | | Harridura eta galdera ikurrak ongi erabili ditu. | | | | | | |
| | | Koherentzia | Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita, tesia erraz ulertzen da. | | | | | **0-2** .............0 puntu<br>**3-4** .............1 puntu<br>**5-6** .............2 puntu<br>**7-8** .............3 puntu<br>**9-10** .............4 puntu<br>**11-12** .............5 puntu<br>**13-14** .............6 puntu<br>**15-16** .............7 puntu<br>**17-18** .............8 puntu<br>**19-20** .............9 puntu<br>**21-22** .............10 puntu | |
| | | | Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: zuzendariari gutuna, kexa… Hobeto, tesia hasieran eman badu, argudio-kontra-argudioak ondoren, eta ondorioak, azkenik. | | | | | | |
| | | | Ez dago kontraesanik edo inkoherentziarik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | | | | | |
| | | | Izenburua intentzioarekiko egokia da, eskatzen den testu motaren arabera. | | | | | | |
| | | | Argudio sendoak eta anitzak darabiltza: adibideak, kausa-ondorio erlazio logikoak, analogiak... | | | | | | |
| | | | Kontra-argudioak eman ditu, kontzesioa egoki erabiliaz. | | | | | | |
| | | | Argudioak hierarkizatu egin ditu, sendoenak hasieran kokatuz. | | | | | | |
| | | | Falaziak saihestu ditu: gehiegizko orokortzeak, topikoak, aurreiritziak, hartzailearen emozio edo interesetara jotzen duten arrazonamenduak... | | | | | | |
| | | | Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | | | | | | |
| | | | Ez ditu kausak eta ondorioak nahasi. | | | | | | |
| | | | Informazioaren garapena igartzen da, gehiegizko saltoak saihestuz (gehiegizko inferentziarik ez da behar) eta alferrikako informaziorik gabe. | | | | | | |
| | | Egokitasuna | Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | | | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| | | | Dagokion erregistroa eta lexikoa darabil, testu mota, intentzioa, testuingurua, hartzailea eta hartutako igorle rola kontuan harturik. | | | | | | |
| | | | Testuan erabilitako hizkera, argudioak eta adibideak hartzaile mota jakina kontuan hartuz egokitu ditu, eta beharrezko denean egoki inplikatu du. | | | | | | |
| | | Estiloa | Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan...). | | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| | | | Testu aberatsa da ideietan. | | | | | | |
| | | | Egituretan estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestu ditu. | | | | | | |
| | | | Lexiko eta egitura aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | | | | |

## ARGUDIO TESTUA. 1. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Ikastolan argitaratzen dugun aldizkarian *"Ikasleen txokoa"* deituriko atal bat daukagu, ezagutzen al duzu? Hilero, gela bateko ikasle taldeak aukera izaten du bertan gai baten inguruan idazteko. Oraingoan zure gelaren txanda da eta proposatzen dizuegun gaia honakoa da: **"Etxeko lanak"**.

Badakigu gai honen inguruan behin baino gehiagotan hitz egin duzuela zuen artean eta, zure kideek daukaten iritzia ezagututa, denon izenean gai honetaz zer esango zenukeen jakin nahi dugu.

Horretarako 50 minutu dituzu eta inprimaki hau besterik ez. Lehen orrian, zure testuaren PLANIFIKAZIOA egin eta bestaldean, aldizkarira bidaliko duzun TESTUA idatzi.

Agian, honako galdera hauek lagun zaitzakete zure testua egoki antolatzen:

- Zein da eztabaida-gaiaz gehiengoak daukazuen iritzi edo ikuspuntua ?
- Zer arrazoi ematen dituzue ikuspuntu hori baieztatzeko?
- Arazoari buruz bestelako iritzirik dutenek zer diote?
- Zuen ustez, zer arrazoi eman dezakete pertsona horiek euren ikuspuntua defendatzeko?
- Hori guztia kontuan hartuz, zer ondorio atera dezakezu?

PLANIFIKAZIOA

Aurkezpena
Ikasleen eta nire iritziak adierazi
Ikastolako ikasleen eskaerak irakasleei adieraztea
Ikaskideen eta nire proposamenak adierazi
Azkenik irakurleak agurtu.

**TESTUA**

Etxeko-lanak

Kaixo ni Ander naiz DBH 2-ko ikaslea eta nire ikaskideen eta nire iritziak emango dizkizugu etxeko--lanei buruz.

Gure ustez irakasleek etxeko lan gehiegi bidaltzen digute batzuen ustez klasean ez dugulako lanik egiten edo beraiek nahi dutelako. Ikasleak ez gaude ados hainbeste etxekolan bidaltzearekin, horren ondorioz ez dugulako denborarik gure jobiak praktikatzeko.

Ikasleek uste dute irakasleei ez zaiela inporta ikasleek kirola, egitea, beraiei inporta zaiena gu etxeko lanak egitea gero bronka botatzeko gaizki egin badugu.

Guk ikasleok gure eskaerak adierazi nahi ditugu: Lehenik irakasleak gehiago kezkatzea ikasleetaz. Bigarren irakasleak etxeko lan gutxiago bidaltzea denbora gehiago izateko gure jobientzat

Azkenik klaseak dibertigarriak egiten badituzte klasean lan gehiago egingo genuke

Beno irakurleok ahu da guztia etxeko-lanei buruz.

Espero dut ikasleen iritzia baliagarria izatea.

AGUR!

## PLANIFIKAZIOA

Aurkezpena

Ikasleen eta nire iritziak adierazi

Ikastolako ikasleen eskaerak irakasleei adieraztea

Ikaskideen eta nire proposamenak adierazi

Azkenik irakurleak agurtu

## BEHIN BETIKO TESTUA

ETXEKO-LANAK

Kaixo ni Ander naiz DBH 2-ko ikaslea eta nire ikaskideen eta nire iritziak emango dizkizugu etxeko-lanei buruz.

Gure ustez irakasleek etxeko lan gehiegi bidaltzen digute batzuen ustez klasean ez dugulako lanik egiten edo beraiek nahi dutelako. Ikasleak ez gaude ados hainbeste etxekolan bidaltzearekin, horren ondorioz ez dugulako denborarik gure jobiak praktikatzeko.

Ikasleek uste dute irakasleei ez zaiela inporta ikasleek kirola egitea, beraiei inporta zaiena gu etxeko lanak egitea gero bronka botatzeko gaizki egin badugu.

Guk ikasleok gure eskaerak adierazi nahi ditugu:

Lehenik irakasleak gehiago kezkatzea ikasleetaz

Bigarren irakasleak etxeko lan gutxiago bidaltzea denbora gehiago izateko gure jobientzat

Azkenik klaseak dibertigarriak egiten badituzte klasean lan gehiago egingo genuke

Beno irakurleok ahu da guztia etxeko-lanei buruz

Espero dut ikasleen iritzia baliagarria izatea

AGUR!

| ARGUDIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | 4 | **0-1**...0 puntu, **2**...1 puntu, **3**...2 puntu, **4**...3 puntu, **5**...4 puntu, **6**...5 puntu | **3** |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | | | X | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | X | | | | | |

- Eman nahi duen informazioa nolabait antolatu du.
- Ez du azaldu ideia aberastasunik eta horregatik puntu eza.
- Egin duen planifikazioa aberatsa ez bada ere, modu sintetikoan egina dago.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA
## HITZ ETA PERPAUS MAILA: ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | | X | | 6 | **0-2** ..................0 puntu, **3-4** ..................1 puntu, **5** ..................2 puntu, **6** ..................3 puntu, **7** ..................4 puntu, **8** ..................5 puntu | **3** |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | X | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |

- Testuan agertzen diren hitz guztiak ongi bereizi ditu, etxerako lanak izan ezik: *etxeko-lanei / etxeko lan / etxekolan*. Hori dela eta, zalantza laukitxoa markatu dugu.
- ***ahu*** erakuslea izugarrizko akatsa iruditzen zaigun arren, beste “h” guztiak *(gehiegi, nahi, horren, gehiago)* ongi erabili ditu, horregatik erabaki dugu puntu bat ematea.
- Txistukariak ongi darabiltza bai eta letra larriak ere

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: LEXIKOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko formajatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *jobiak ...* | | | X | | 0-1 ..................0 puntu<br>2 ..................1 puntu<br>3 ..................2 puntu<br>4 ..................3 puntu<br>5 ..................4 puntu<br>6 ..................5 puntu | |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: gai, gauza, egin, zerbait.. | | | X | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | X | | | 2 | | **1** |

- Ez du hitzik asmatu baina bai erdarakadak erabili; esaterako: **jobiak,* bronka*
- Erabili duen lexikoa oso pobrea da.

## HITZ ETA PERPAUS MAILA: MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | | X | | | 0-1-2-3.........0 puntu<br>4-5-6.........1 puntu<br>7-8-9.........2 puntu<br>10-11-12.........3 puntu<br>13-14-15.........4 puntu<br>16-17-18.........5 puntu | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | | X | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | | | X | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | | X | | | | |
| Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, “Agertu zen gizon bat diru asko zuela” bezalakoak saihestuz. | X | | | | | |
| Galdegaia zuzen erabiltzen du, bereziki ERE partikularen erabilera, esaldietako hitz-ordena zainduz. | X | | | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adib., emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | | | X | | | |
| Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. ...- eta, Bait-, -...enez gero eta horrelakoak ere erabili ditu. | | | X | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | X | | | 9 | | **2** |

- Honako esaldi honetan badago komunztadura arazoa. *“*Kaixo ni Ander naiz DBH 2-ko ikaslea eta nire ikaskideen eta nire iritziak emango dizkizugu etxeko-lanei buruz”*. Gainerako perpausetan komunztadura ongi zaindu du, adb: *“Ikasleek uste dute…” , “Guk… eskaerak adierazi nahi ditugu…”*.
- *“*Inporta zaiena **gu** etxeko lanak egitea”* eta *“*irakasleak etxeko lan gutxiago bidaltzea…”*, esaldietan nork erako izenordaina behar zuen izan.

- Deklinabide atzizkiei dagokionez, ikus daitezke akats nabarmenak: **ikasleetaz, *gure jobientzat*

- Hau izan daiteke zuzena ez den perpausaren adibidea: *"*Azkenik klaseak dibertigarriak egiten badituzte klasean lan gehiago egingo genuke"*.

- Erlatibozko perpausak eta konpletiboak ongi bereizi ditu.

- Perpausak elkartzeko emendiozko juntadura erabili du behin eta berriro eta ez besterik. Ikus daiteke baita ere, askotan perpausak elkartu dituela inongo lokailurik gabe, esaterako esaldi honetan: *"*Ikasleek uste dute irakasleei ez zaiela inporta ikasleek kirola egitea, beraiei inporta zaiena gu etxeko lanak egitea gero bronka botatzeko gaizki egin badugu"*.

- Menderagailuei dagokionez, berriz, kausazko perpausak -elako menderagailua soilik erabiliz osatu ditu: *"ez dugulako lanik egiten, … nahi dutelako, ez dugulako denborarik…".*

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

### AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | X | | | 6 | | **5** |

- Aurkezpen txukuna egin du, letra ulergarria eta izenburua testuaren gorputzetik nahiko berezita, beraz, atal honetan puntuazio osoa emango diogu.

### KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | | | X | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | | | X | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | | X | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | | X | | 2 | | **0** |

- Inoizka erakuslea erabili du **ikasle** eta **irakasle** hitzak ordezkatzeko, hala ere, oro har, errepikapen gehiegi egin ditu. Adibidez: *Ikasle, etxeko lan, *jobiak, inporta, gehiegi…* , dira, besteak beste, errepikatzen dituen hitzak.

- Erreferentzia ez du ongi mantendu. Esaldi honetan argi ikus daiteke: *"*Kaixo **ni** Ander naiz DBH 2-ko ikaslea eta nire ikaskideen eta **nire** iritziak emango **dizkizugu** etxeko-lanei buruz".*

- Aditz denboraren erlazioari dagokionez baldintza-ondorioa gaizki erabili du: **klaseak dibertigarriak **egiten badituzte** klasean lan gehiago **egingo genuke***

## KOHESIOA: PUNTUAZIOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | **0-2** ....0 puntu<br>**3-4** ....1 puntu<br>**5** ....2 puntu<br>**6** ....3 puntu<br>**7** ....4 puntu<br>**8** ....5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | | X | 6 | | **3** |

- Lehen 3 adierazleak egoki bete ditu. Esaldiak laburrak dira eta puntua erabili du perpausak banatzeko. Aldiz, komaren erabilera nahiko traketsa da: *"Guk ikasleok gure eskaera... lehenik, bigarrenik, azkenik..."* aposizio, segidak, komarik ezarri gabe idatzi ditu.

## KOHERENTZIA (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita, tesia erraz ulertzen da. | X | | | | **0-2** ....0 puntu<br>**3-4** ....1 puntu<br>**5-6** ....2 puntu<br>**7-8** ....3 puntu<br>**9-10** ....4 puntu<br>**11-12** ....5 puntu<br>**13-14** ....6 puntu<br>**15** ....7 puntu<br>**16** ....8 puntu<br>**17** ....9 puntu<br>**18** ....10 puntu | |
| Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: zuzendariari gutuna, kexa… Hobeto, tesia hasieran eman badu, argudio-kontra-argudioak ondoren, eta ondorioak, azkenik. | | | X | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentziarik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | | X | | | | |
| Izenburua intentzioarekiko egokia da, eskatzen den testu motaren arabera. | X | | | | | |
| Argudio sendoak eta anitzak darabiltza: adibideak, kausa-ondorio erlazio logikoak, analogiak... | | | X | | | |
| Kontra-argudioak eman ditu, kontzesioa egoki erabiliaz. | | | X | | | |
| Falaziak saihestu ditu: gehiegizko orokortzeak, topikoak, aurreiritziak, hartzailearen emozio edo interesetara jotzen duten arrazonamenduak... | | | X | | | |
| Behar ez den daturik edo alferrikako informazio gehigarririk ez da ageri. | | | X | | | |
| Ez ditu kausak eta ondorioak nahasi. | | | X | 5 | | **2** |

- Egia da izenburua intentzioarekiko egokia dela eta tesia erraz uler daitekeela, baina ez dio eskatutako testu motari jarraitzen. Egitura aldetik espero genuen: hasieran tesia (eta ongi egin du), gero iritzi orokorraren argudioa (gorabehera bat gela osoaren iritzi modura aurkeztuz, hartzailea ere iritzi horretara inplikatuko duen arrazoibidea) eta azkenik konklusioa;

ikasle honek, berriz, erabili duen eskema oso ongi ikus daiteke bere planifikazioan: *Aurkezpena, tesia, eskaera, proposamena eta agurra*.

- Ez du argudio sendorik erabili eta aldi berean, alferrikako edo ustezko argudio eta zentzu gabeko datu ugari erabili ditu: *"batzuen ustez klasean ez dugulako lanik egiten edo **beraiek nahi dutelako**... Ikasleek uste dute irakasleei ez zaiela inporta ikasleek kirola egitea, **beraiei inporta zaiena gu etxeko lanak egitea gero bronka botatzeko gaizki egin badugu**..." "Lehenik irakasleak **gehiago kezkatzea** ikasleetaz"*

## EGOKITASUNA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | | | X | 0 | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | **0** |
| Dagokion erregistroa eta lexikoa darabil, testu mota, intentzioa, testuingurua, hartzailea eta hartutako igorle rola kontuan harturik. | | | X | | | |
| Testuan erabilitako hizkera, argudioak eta adibideak hartzaile mota jakina kontuan hartuz egokitu ditu, eta beharrezko denean egoki inplikatu du. | | | X | | | |

- Emandako kontsignaren arabera, asmo komunikatiboa gai konkretu baten inguruan iritzia ematea zen; ikasleak, berriz, iritziaz gain, eskaerak eta proposamenak gehitu ditu.

- Erabilitako lexikoa eta erregistroa egokiak izan daitezke baina arestian esan bezala, hasieran emandako konsigna ez du errespetatu. Hartzailea aldizkariaren edozein irakurle izan beharko zukeen, baina igorle honek badirudi irakasleentzat soilik idatzi duela; gainera, igorleak talde baten izenean hitz egiteko agindua zuen, hala ere, ikasle honek, bitan bederen, gelakideen izenean hitz egiten du, bere burua kanpo utziz. Ikus dezagun: *"**Ikasleek uste dute** irakasleei ez zaiela inporta ikasleek kirola egitea…" " **batzuen ustez** klasean ez dugulako lanik egiten"*

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan...) | | | X | 0 | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | **0** |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan eta egituretan ere, estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestuz. | | | X | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | | | X | | | |

- Testua erabat pobrea da, lexikoan, sintaxian, ideietan... Oro har, estilo kaxkarra ageri du.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa........... 3 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 0 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 3 | KOH. Puntuazioa........................... 3 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa ................... 1 | Koherentzia.................................. 2 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | **1. MAILA** |
| Morfosintaxia.......... 2 | Egokitasuna ................................. 0 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | |
| Aurkezpena............. 5 | Estiloa .......................................... 0 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................ 19 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

## ARGUDIO TESTUA. 2. EREDU ZUZENDUA

KONTSIGNA: Ikastolan argitaratzen dugun aldizkarian *"Ikasleen txokoa"* deituriko atal bat daukagu, ezagutzen al duzu? Hilero, gela bateko ikasle taldeak aukera izaten du bertan gai baten inguruan idazteko. Oraingoan zure gelaren txanda da eta proposatzen dizuegun gaia honakoa da: **"Etxeko lanak".**

Badakigu gai honen inguruan behin baino gehiagotan hitz egin duzuela zuen artean eta, zure kideek daukaten iritzia ezagututa, denon izenean gai honetaz zer esango zenukeen jakin nahi dugu.

Horretarako 50 minutu dituzu eta inprimaki hau besterik ez. Lehen orrian, zure testuaren PLANIFIKAZIOA egin eta bestaldean, aldizkarira bidaliko duzun TESTUA idatzi.

Agian, honako galdera hauek lagun zaitzakete zure testua egoki antolatzen:

- Zein da eztabaida-gaiaz gehiengoak daukazuen iritzi edo ikuspuntua ?
- Zer arrazoi ematen dituzue ikuspuntu hori baieztatzeko?
- Arazoari buruz bestelako iritzirik dutenek zer diote?
- Zuen ustez, zer arrazoi eman dezakete pertsona horiek euren ikuspuntua defendatzeko?
- Hori guztia kontuan hartuz, zer ondorio atera dezakezu?

**PLANIFIKAZIOA**

Igorlea : Gela osoa (1. pertsona plurala).

Hartzailea (k): DBH2-ko ikasleak (ez dakite eztabaida-gaia).

Eztabaida-gaia : Etxeko lanak ... Gehiegi ?

Iritzia : Klasean egiten ez dena etxean bukatzea ongi dago baita ikasi duguna barneratzeko ariketa batzuk, baina ez gehiegi.

Argudioak :

- Ariketa batzuk kontzeptuak barneratzeko oso baliogarriak dira.
- Ariketa gehiegi egiteak dakarrena da, azkenean ikasten duzuna "ariketak egiteko modua" dela, eta ez duzu ezer barneratzen.
- Batzuetan lan gehiegi eta gainera azterketak.

Egitura

- Agurra eta presentazioa.
- Gaiaren azalpena.
- Iritzia eta argudioak eman.
- Konklusioa (aurrekoaren sintesia : "Beraz ... "

**TESTUA**

# ETXEKO LANAK

Duela gutxi, aldizkari honetan, eztabaida bat proposatu zen eta gure iritzia eskatzen zenez, gelakideek hitz egin ondoren, parte hartzea erabaki genuen.
Eztabaida gaia hauxe zen: "uste al duzue irakasleek etxeko-lan gehiegi bidaltzen dituztela?"
Askotan kexatzen gara irakasleek ariketa gehiegi bidaltzen dizkigutelako eta batzuetan itota aurkitzen gara hainbeste lanekin. Gainera, batzuetan, azterketa batekin koinziditzen du eta orduan bai dagoela arazo serioa!
Gure ustez, ondo dago klasean bukatzen ez denaz gain ariketa esogarri batzuk bidaltzea kontzeptuak hobe barneratzeko, baina ez da egokia ariketa gehiegi eginaraztea lehen esan dugunarengatik.
Gainera, pentsatzen dugu, lan gehiegi bidaltzen badigute, ikasiko duguna "ariketak egiteko modua" izango dela eta ez benetan atala duten kontzeptuak
Eta guretzat beste arazoi bat badago, hainbeste lan daukagunean, ezin dugula egin, ez kirolarik, ez kanpoko ekintzarik ez eta lagunekin egon.
Laburbilduz, gure iritzia da, irakasleek bidali beharko luketela gaiaren errepasorako ariketa batzuk eta ezer ez azterketa garaian

## PLANIFIKAZIOA

Igorlea: Gela osoa (1. pertsona plurala).

Hartzailea(k): DBH2-ko ikasleak (ez dakite eztabaida-gaia).

Eztabaida-gaia: Etxeko lanak... Gehiegi?

Iritzia: Klasean egiten ez dena etxean bukatzea ongi dago, baita ikasi duzuna barneratzeko ariketa batzuk, baina ez gehiegi.

Argudioak:

- Ariketa batzuk kontzeptuak barneratzeko oso baliagarriak dira.
- Ariketa gehiegi egiteak dakarrena da, azkenean ikasten duzuna “ariketak egiteko modua” dela, eta ez duzu ezer barneratzen.
- Batzuetan lan gehiegi eta gainera azterketak

Egitura:

- Agurra eta aurkezpena.
- Gaiaren azalpena.
- Iritzia eta argudioak eman.
- Konklusioa (aurrekoaren sintesia: “Beraz...”)

## BEHIN BETIKO TESTUA

ETXEKO-LANAK

Duela gutxi, aldizkari honetan, eztabaida bat proposatu zen eta gure iritzia eskatzen zenez, gelakideek hitz egin ondoren, parte hartzea erabaki genuen.

Eztabaida gaia hauxe zen: “uste al duzue irakasleek etxeko-lan geihegi bidaltzen dituztela?”

Askotan kexatzen gara irakasleek ariketa geihegi bidaltzen dizkigutelako eta batzuetan itota aurkitzen gara hainbeste lanekin. Gainera, batzuetan, azterketa batekin koinziditzen du eta orduan bai badagoela arazo serioa!

Gure ustez, ondo dago klasean bukatzen ez denaz gain ariketa osagarri batzuk bidaltzea kontzeptuak hobe barneratzeko, baina ez da egokia ariketa geihegi eginaraztea lehen esan dugunarengatik. Gainera, pentsatzen dugu, lan geihegi bidaltzen badigute, ikasiko duguna “ariketak egiteko modua” izango dela eta ez benetan axola duten kontzeptuak.

Eta guretzat beste arrazoi bat badago, hainbeste lan daukagunean, ezin dugula egin, ez kirolarik, ez kanpoko ekintzarik ez eta lagunekin egon.

Laburbilduz, gure iritzia da, irakasleek bidali beharko luketela gaiaren errepasorako ariketa batzuk eta ezer ez azterketa garaian.

| ARGUDIO TESTUA | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. PLANIFIKAZIOA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Informazioa antolatzeko sistemaren bat erabili du. | X | | | 6 | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | **5** |
| Ideia aberastasuna antzematen da. | X | | | | | |
| Planifikazioa modu sintetikoan egin du. | X | | | | | |

- Informazioa antolatzeko testuaren egituran oinarritu da, eskema egokia sortuz.
- Ideiak aberatsak dira eta modu sintetikoan adierazi ditu.

## 2. TESTUAREN ZUZENKETA. HITZ ETA PERPAUS MAILA

### ORTOGRAFIA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzak ongi bereizi ditu. | X | | | 7 | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | **4** |
| H ongi erabiltzen du: erakusleetan, zenbakietan, ohiko lexikoan... | | X | | | | |
| Oro har, txistukarien idazkera bereizten du: s/z/x eta ts/tz/tx. | X | | | | | |
| Letra larriak ongi darabiltza: izen bereziak, erakundeak, puntu ondoren... | X | | | | | |

- Hitzak ongi berezi ditu
- **geihegi* hitza, lau alditan agertzen da gaizki idatzia. Ez dirudi okertu denik, gaizki barneratutako hitza ematen du. Gainerakoak ongi erabili ditu: hitz, hainbeste...
- Txistukari eta letra larrien erabilera osotara ongi dago.

### LEXIKOA (5 puntu)

| | Bai (2) | Zalantza (1) | Ez (0) | Batura partziala | Puntuazio irizpidea | Puntuazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko formajatorrak erabili ditu, eta ez gaztelerazko mailegu faltsuak, erdarakadak edo asmatutako hitzak: **deziditu, *jobiak ...* | | X | | 3 | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | **2** |
| Lexiko zehatza eta aberatsa erabili du, eta “denetarako” hitzak saihestu: gai, gauza, egin, zerbait.. | | X | | | | |
| - a itsatsia ongi erabili du, eta ez du –a gehitu behar ez denean. | | X | | | | |

- Ez du mailegu faltsurik erabili eta lexiko aberatsa eta egokia darabil. Hala ere, *"itota **aurkitzen** gara"* adibidea erdarakada bat da. *egoten gara* forma jatorragoa erabil zezakeen.
- "A" organikoa duten hitzak ongi erabili ditu, baina *"*kirolarik"* adibidean behar ez denean –a gehitu du.
- Bestalde, *"kontzeptuak **hobe** barneratzeko"* adibidean ikusten da hobe-hobeto ez duela ezberdintzen.

## MORFOSINTAXIA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditz formak ongi erabili ditu (bereziki Nor-Nork), eta komunztadura zaindu. | X | | | | | |
| Nor eta Nork erako subjektuak ongi erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu. | X | | | | | |
| Oro har, sintaktikoki zuzenak eta osoak diren perpausak egin ditu. | X | | | | **0-1-2**.........0 puntu<br>**3-4-5-6**.........1 puntu<br>**7-8-9**.........2 puntu<br>**10-11-12**.........3 puntu<br>**13-14**.........4 puntu<br>**15-16**.........5 puntu | |
| Erlatibozko perpausak eta konpletiboak bereizi ditu, "Agertu zen gizon bat diru asko zuela" bezalakoak saihestuz. | X | | | | | |
| Perpausak elkartzeko menderagailu eta lokailu anitzak erabiltzen ditu, (adib., emendiozko juntadura gehiegi erabili gabe). | X | | | | | |
| Kausazko menderagailuetan ez du –elako menderagailua soilik erabili. ...- eta, Bait-, -...enez gero eta horrelakoak ere erabili ditu. | X | | | | | |
| Gaztelerazko ordena eta egiturak saihestu ditu. | X | | | 16 | | **5** |

- Aditza, deklinabidea, perpaus motak, oro har, ongi menperatzen ditu. Adibide gisa ikus genitzake: *"**irakasleek** ariketa gehiegi bidaltzen **dizkigutelak**o"; "…lehen **esan dugunarengatik**."; " lan gehiegi **bidaltzen badigute, ikasiko duguna** "ariketak egiteko modua" **izango dela** eta ez benetan **axola duten** kontzeptuak."; "...hainbeste lan **daukagunean**…"*

## TESTUAREN ZUZENKETA. TESTU MAILA

## AURKEZPENA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua txukun eta letra ulergarria erabiliz idatzi du. | X | | | | **0-1**...0 puntu<br>**2**...1 puntu<br>**3**...2 puntu<br>**4**...3 puntu<br>**5**...4 puntu<br>**6**...5 puntu | |
| Marjinak errespetatu ditu. | X | | | | | |
| Izenburua testuaren gorputzetik nahikoa bereizi du. | X | | | 6 | | **5** |

- Aurkezpena txukuna eta egokia da.

## **KOHESIOA: ERREFERENTZIA ETA KONEXIOA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alferrikako errepikapenak saihestu ditu. | X | | | | **0-2** ..................0 puntu<br>**3-4** ..................1 puntu<br>**5** ..................2 puntu<br>**6** ..................3 puntu<br>**7** ..................4 puntu<br>**8** ..................5 puntu | |
| Erreferentzia ongi mantendu du, elipsia edo hainbat ordezkapen modu erabiliz. | X | | | | | |
| Oro har, testuan ideiak josita daude, lokailuak eta antolatzaileak erabili dituelako. Bereziki, ondoriozko eta emendiozko lokailuak. | X | | | | | |
| Aditz denboraren erlazioa ongi darabil. | X | | | 8 | | **5** |

• Alferrikako errepikapenak saihestu ditu eta erreferentzia ongi mantendu elipsia eta ordezkapenak erabiliz. Ideiak ongi lotu ditu antolatzaile egokiak erabiliaz: Tesia eta argudioak lotzeko: *"Gure ustez… Gainera… Eta guretzat beste arrazoi bat badago…"* Sintesia edo ondorioa azaltzeko: *Laburbilduz,…* Kontrakotasuna adierazteko: *baina…*

• Aditz denbora erlazioa egokia deritzagu. Idatziaren justifikazioan edo aurkezpenean lehen aldia erabili du eta tesia, argudiaketa eta sintesian, berriz, orain aldia.

## **KOHESIOA: PUNTUAZIOA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testua paragrafo erregularretan bereizi du. | X | | | | **0-2**..................0 puntu<br>**3-4**..................1 puntu<br>**5**..................2 puntu<br>**6**..................3 puntu<br>**7**..................4 puntu<br>**8**..................5 puntu | |
| Perpausak banatzeko puntu eta jarrai erabili du, esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Subjektuaren eta predikatuaren artean ez du komarik erabili. | X | | | | | |
| Koma egoki erabili du aposizioetan, zerrendatzeetan eta antolatzaileekin. | | X | | 7 | | **4** |

• Koma, oro har, ongi erabili du, baina 4. paragrafoan, menpeko esaldiak ez ditu bereizi. *"...ondo dago klasean bukatzen ez denaz gain ariketa osagarri batzuk bidaltzea kontzeptuak hobe barneratzeko, baina ez da egokia ariketa geihegi eginaraztea lehen esan dugunarengatik"*

## **KOHERENTZIA** (10 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuaren zentzu orokorra jasotzeko moduan dago idatzita, tesia erraz ulertzen da. | X | | | | **0-2** ..........0 puntu<br>**3-4** ..........1 puntu<br>**5-6** ..........2 puntu<br>**7-8** ..........3 puntu<br>**9-10** ..........4 puntu<br>**11-12** ..........5 puntu<br>**13-14** ..........6 puntu<br>**15-16** ..........7 puntu<br>**17-18** ..........8 puntu<br>**19** ..........9 puntu<br>**20** ..........10 puntu | |
| Edukiaren antolaketa garbia da, eta eskatutako testu motari jarraitzen dio: zuzendariari gutuna, kexa… Hobeto, tesia hasieran eman badu, argudio-kontra-argudioak ondoren, eta ondorioak, azkenik. | X | | | | | |
| Ez dago kontraesanik edo inkoherentziarik (kohesioak edo errealitatea ez ezagutzeak eragindakoak). | X | | | | | |
| Izenburua intentzioarekiko egokia da, eskatzen den testu motaren arabera. | X | | | | | |
| Argudio sendoak eta anitzak darabiltza: adibideak, kausa-ondorio erlazio logikoak, analogiak... | X | | | | | |
| Kontra-argudioak eman ditu, kontzesioa egoki erabiliaz. | X | | | | | |
| Argudioak hierarkizatu egin ditu, sendoenak hasieran kokatuz. | X | | | | | |
| Falaziak saihestu ditu: gehiegizko orokortzeak, topikoak, aurreiritziak, hartzailearen emozio edo interesetara jotzen duten arrazonamenduak... | X | | | | | |
| Ez ditu kausak eta ondorioak nahasi. | X | | | | | |
| Informazioaren garapena igartzen da, gehiegizko saltoak saihestuz (gehiegizko inferentziarik ez da behar) eta alferrikako informaziorik gabe. | X | | | 20 | | **10** |

- Lehen irakurketa batean ikus daiteke testuak koherentzia baduela. Tesia erraz ulertzen da, edukia ongi antolatua dago.
- Azalpena, tesia, argudiaketa, eta azkenik, konklusioaren informazioaren garapena, egoki adierazi ditu.
- Argudiatze sendoa darabil: *“lana bai kontzeptuak hobe barneratzeko, lana bai egin gabekoa bukatzeko… baina ez gehiegi aisialdirako denbora izateko eta ezer ere ez azterketa garaian.”* Ez du alferrikako informaziorik erabili. Gainera, kausak eta ondorioak ongi bereizi ditu.

## **EGOKITASUNA** (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuak aurrez emandako planteamenduari jarraitzen dio. | X | | | | **0-1** ..........0 puntu<br>**2** ..........1 puntu<br>**3** ..........2 puntu<br>**4** ..........3 puntu<br>**5** ..........4 puntu<br>**6** ..........5 puntu | |
| Dagokion erregistroa eta lexikoa darabil, testu mota, intentzioa, testuingurua, hartzailea eta hartutako igorle rola kontuan harturik. | X | | | | | |
| Testuan erabilitako hizkera, argudioak eta adibideak hartzaile mota jakina kontuan hartuz egokitu ditu, eta beharrezko denean egoki inplikatu du. | X | | | 6 | | **5** |

- Idazleak aldez aurretik emandako kontsigna edo agindua egoki bete du: Igorle rola (gela osoa) *“kexatzen **gara**, bidaltzen digutelako”, **gur**e iritzia…”* Hartzaileari (edozein irakurleri) egokitutako hizkera, Komunikazio asmoa (iritzia ematea) Oro har, testua egoerara ongi egokitua dago.

## ESTILOA (5 puntu)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dago errepikapen nabarmenik (hitzetan, egituretan, ideietan, juntagailuetan...) | | X | | | **0-1** ..................0 puntu<br>**2** ..................1 puntu<br>**3** ..................2 puntu<br>**4** ..................3 puntu<br>**5** ..................4 puntu<br>**6** ..................5 puntu | |
| Oro har, testu aberatsa da ideietan eta egituretan ere, estilo zatikatua edo esaldi luzeegiak saihestuz. | X | | | | | |
| Lexiko eta sintaxi aberatsa erabiltzen saiatu da. | X | | | 5 | | 4 |

- Badaude hitz batzuk behin eta berriz errepikatu dituenak: ***gehiegi*** eta ***lan*** *(4 aldiz)* ***ariketa*** *(5 aldiz)*. Hala ere irakurtzerakoan ez du astunegi delako sentsaziorik ematen.
- Testua aberatsa da bai ideietan eta baita egituran ere.
- Gainera, saiatu da sintaxi eta lexiko aberatsa erabiltzen.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Planifikazioa............ 5 | KOH. Erreferentzia eta konexioa..... 5 | **MAILAK** | **GAITASUN MAILA:** |
| Ortografia................ 4 | KOH. Puntuazioa............................ 4 | **0** eta **14** puntu artean.....1. mailatik behera | |
| Lexikoa .................... 2 | Koherentzia................................. 10 | **15** eta **21** puntu artean...1. maila | |
| Morfosintaxia........... 5 | Egokitasuna ................................. 5 | **22** eta **32** puntu artean...2. maila | **4. MAILA** |
| Aurkezpena .............. 5 | Estiloa .......................................... 4 | **33** eta **43** puntu artean...3. maila | |
| | | **44** eta **50** puntu artean...4. maila | |
| **PUNTUAZIOA OSOTARA............................. 49 puntu** | | **51** eta **55** puntu artean...5. maila | |

# VI. Gibel-solasa

## IDAZKETA PROZESUA HOBETZEKO BIDEAN

Aitzin-solasean aipatu dugun ideia nagusi bati heldu nahi diogu bukaeran ere: jakin badakigu testu idatziak zuzentzea lan zail eta neketsua dela, eta are gehiago ikasleei ongi idazten irakastea. Hala ere, bi lan hauek erabat lotuta egon beharko lukete gure eguneroko jardunean, zuzenketak, *ebaluazioak*, alegia, ikasleari hobetzen lagundu beharko liokeelako, ezinbestez. Era berean, zuzenketak irakasleari informazio baliagarria eta zehatza eman beharko lioke, irakasleak ikasleen ikaste-prozesuan ildo jakin batzuk azpimarratzeko aukera izan dezan.

Horrexegatik uste dugu zuzenketa zenbat eta sistematikoagoa izan, orduan eta baliagarriagoa izanen dela ikasleen hobekuntza bideratzeko. Ezin zaio huts-hutsean ikasle bati *"gaizki idazten duzu"* esan, ikuspegi horrek hobetzeko bideak agortutzat ematen baititu. Aitzitik, proposatu ditugun zuzenketa ereduak aintzat hartuz, argi dago testu horietako bakoitzak dituen hutsuneak edo gabeziak erraz identifika daitezkeela eta ikasleari hobekuntza proposamen zehatzak egitea ahalbidetzen duela. Irakasleak eta ikasleak kontrol zerrenda hori konpartitzeak, gainera, hobetu beharrekoak askoz ere esplizituago bihurtzen ditu. Esate baterako, narrazio testuetako 1. eredu zuzenduan, honako ideiak eman ahalko genizkioke testua idatzi duen ikasleari:

### PLANIFIKAZIOAZ

- ➢ Planifikazioa sintetikoagoa egiten saiatu beharko zenuke, istorioaren haria zehazteko lagungarriago: hasierako egoera, arazoa, ekintzak eta bukaera (amaierako egoera) nondik norakoak izango diren azaldu beharko litzateke. Azken batean, sormen-lan nagusia hemen egin behar duzu.

## HITZ ETA PERPAUS MAILAZ

- ORTOGRAFIAN. Bereziki h-ren erabileran huts egiten duzu. Hori hobetzeko ariketa zehatzak egitea gomendagarria da, eta ortografia lantzeko hiztegitxo propioa eratzea, gaizki idatzitakoak jaso eta tarteka begiratzeko.

- LEXIKOAN. Euskarazko forma jatorragoak eta zehatzagoak erabiltzen saiatu beharko zenuke. Horretarako, hiztegi mailako ariketak egitea komeni zaizu: sinonimo-antonimoak, itzulpen ariketak, eta, jakina, euskaraz gehiago irakurtzen saiatzea.

- MORFOSINTAXIAN. Atal honetan ikusten dira gabezia nabarmenenak:

  - Indikatiboko aditzetan akatsak badira, eta horrek komunztadura akatsak sortzen ditu. Kasu batzuetan subjektuaren eta aditzaren numeroa ez datoz bat.
  - Nor eta Nork erako subjektuak gaizki erabiltzen dituzu.
  - Deklinabideko beste akatsen bat ere baduzu, leku-denborazko kasuetan bereziki.
  - Oro har, hainbat esaldi trakets eratu dituzu: konparaziozkoak, ERE partikula dutenak... Gehienetan gaztelerazko egiturei jarraitzen diezula antzematen da.
  - “Baina” eta “eta” juntagailuak gehiegitan erabiltzen dituzu.

Hau guztia ikusita, hainbat motatako ariketak egin ditzakezu: bizidunen deklinabidea bereziki landu, indikatiboko aditzak landu, NORK eta NOR subjektuak bereizteko ariketa bereziak egin, konparazio perpausak egoki bideratzekoak, berridazketak egin juntagailu eta testu antolatzaile anitzagoak erabiltzen ohitzeko... Jakina, arlo hau hobetzeko euskaraz gehiago irakurtzea eta itzulpen ariketak egitea komeniko litzaizuke eta, garrantzitsuena, zuk idatzitako testuak arretaz berrikustea, alderdi hauei bereziki erreparatuz.

## TESTU MAILAZ

➢ KOHESIOAN. Arlo honetan ere badago hobetzeko hainbat gauza:

- Adibide batzuetan, elementu batzuk isiltzean, beren esanahia ilun suertatzen da. Hori saihesteko, testua idatzi ondoren berrikusi eta horrelakorik gertatzen ez dela ziurtatu behar duzu.
- Gauza bera esango genuke aditzaren denboraz. Narrazio testuak, oro har, iraganean idatziko ditugu, ez bada konta-molde berezia erabiltzeko. Zure istorioa kontatzeko iraganeko adizkiak erabili dituzu, baina une jakin batzuetan orainaldira pasatu zara, haria galdu duzulako. Hori ere erraz zuzen daiteke, idatzi ondoko berrikusketan.
- Lehen aipatu ditugun errepikapenek ere kohesioan badute eragina, beraz, kontuan hartu lehen esandakoa.
- Paragrafoen banaketa erregularragoa egin beharko zenuke: ez luzeegiak, ez eta laburregiak ere, zure testuan perpaus bakarreko bi paragrafo baitira. Gainera, istorioaren zatiek paragrafoekin lotuta egon behar dute: oro har, arazoak paragrafo bat hartuko du, ekintza bakoitzak beste bana, eta amaierako egoera edo bukaerak beste bat.
- Komaren erabileran kontu handiagoa izan behar duzu, eta bere erabilera arauak errepasatu: subjektuaren eta predikatuaren artean ez da inoiz jarriko, eta aposizioak beti koma artean kokatuko ditugu.

➢ KOHERENTZIAN. Istorioaren haria erraz jasotzen den arren, justifikatu gabeko saltoak eta inkoherentziak badira. Hori planifikazioarekin oso lotuta dago: istorioaren hari orokorra pentsatutakoan zati guztien arteko loturari erreparatu behar diozu, ea logikoa den, bukaera justifikatua dagoen... Eta, jakina, testuaren berrikusketan ere oso kontuan hartzekoa da alderdi hau.

➢ ESTILOAN. Alde batetik, lexiko eta sintaxi aldetik aberatsago izaten saiatu beharko zenuke. Ez da lan erraza, baina ildo batzuk aintzat har ditzakezu: sinonimoak jartzea, testu antolatzaile anitzagoak erabiltzea, “eta” eta “baina” horren maiz agertzea saihestuz... Bestalde, planifikazioaren sormen-fasean lan handiagoa egin beharko zenuke, istorioa interesgarriagoa izan dadin: suspentsea ezarriko dion zerbait, bukaera orijinala...

Badakigu ikasle bakoitzarentzat honelako txosten zehatza prestatzea ia ezinezkoa dela gure eguneroko jardunean murgilduta gaudelarik, baina zuzenketa irizpideekin hain lotuta dauden heinean, txantiloi bat presta liteke eta ikasle bakoitzaren hutsuneei egokitu. Horrez gain, hobekuntza proposamenak ere oso antzekoak izanen dira ikasle askoren kasuan. Gabezia horiek ikasle gehienen idazketan identifikatu baditugu, gainera, horrek ekar lezakeen beste ondorio bat da klasean bertan arlo jakin bati erreparatzea eta hori berariaz lantzea, paragrafoen banaketa, adibidez, edo ortografia arauen berrikusketa...

## ZUZENKETA LANAREN MUGAK ETA ZALANTZAK

Lan honi bukaera emateko, guk geuk eta irakasle guztiok, ezbairik gabe, gure eguneroko zuzenketa lanetan nahiz lan hau irakurritakoan izan ditugun eta izango ditugun zalantzak adierazi nahi genituzke. Zeri erreparatu behar diogu lehenengo zuzenketa prozesuari ekiten diogunean? Non jarri behar ditugu lehentasunak? Zer da ezinbestez ikasleak ongi egin behar duena testua ontzat emateko?, etab.

Lehenengo galderaren erantzuna erabat irekia izan daiteke, eta irakasle bakoitzaren lan estiloak edo ohiturak zeresan handia du arlo honetan. Gure aburuz, eta horixe da zuzenketa tauletan adierazten saiatu garena, prozesuak hiru fase ezberdin izango ditu: planifikazioari erreparatuko diogu lehenik, eta gero, testuaren beraren zuzenketari ekingo diogu. Horretarako bi irakurketa behintzat proposatzen ditugu: lehenengoa, hitz eta perpaus mailako alderdiak aztertzeko, irakurketa arinagoa eskatzen duena, eta bigarrena, testu mailako ezaugarriak ebaluatzeko. Honek irakurketa sakonagoa eskatzen du, zalantzarik gabe, eta testu bera hainbat aldiz irakurtzea ekar dezake. Zuzenketarako kontrol zerrenda aurrean izatea oso baliagarria delakoan gaude.

Bigarren eta hirugarren galderei erantzutea ez da batere erraza, baina ezinbestean bi maila ezberdindu beharko genituzke: gure eguneroko lana, alde batetik, eta ebaluazio diagnostiko orokor bat, bestetik.

Lehenengo maila horretaz ari bagara, egunero ikasleekin aritzeaz eta idazketa lantzeaz, alegia, zuzenketan erabiliko ditugun irizpideak erabat baldintzatuta egonen dira. Ikasleen adinak edo ikas-mailak, gure ikasleen aniztasunak eta ikasturteko une jakin horretan berariaz lantzen ari garenak mugatu beharko ditu ezarriko ditugun lehentasunak eta gutxienekoak. Argi dago ezingo dugula berdin baloratu, esate baterako, koherentziaren alorrean

errealitatea ez ezagutzetik datorren inkoherentzia partzialen bat DBH 1eko edo 1. Batxilergoko ikasle baten testuan. Gauza bera gertatuko litzateke lexikoa edo sintaxiarekin, adibidez. Hiztegi edo egitura aldetik aberastasun handiagoa izan beharko luke batxilergoko ikasleak, beraz, DBH2ko ikasle baten kasuan ontzat emango litzatekeena agian ez da nahikoa izango bestearen testuan.

Beste egoera batzuk ere kontuan hartu beharko ditugu: hiruhileko osoa eman badugu kohesio elementuak lantzen (paragrafoen banaketa, testu antolatzaileen erabilera, puntuazioa...), ikasle horien testuak zuzentzeko momentuan horri soilik erreparatzea erabaki dezakegu, eta baremoan atal horrek puntuazioaren %100 hartzea, edo %80... Ikasleak argi izan beharko duena, azken batean, bere testuari zein kontrol zerrenda mota aplikatuko zaion, eta bereziki kontuan hartu beharreko alderdiak, gutxienekoak, azken batean, zeintzuk diren. Ildo beretik, atal bakoitzean proposatu ditugun adierazleak kendu edo alda daitezke, geure unean uneko errealitateari egokitu ahal izateko.

Lehen aipatutako bigarren mailaren kasua, ebaluazio diagnostiko batena, alegia, bestelakoa da. Egunerokotasunetik at, ikasle baten edo ikasle talde baten idazketarako gaitasuna neurtzea (ebaluatzea) izango litzateke, maila horretarako planteatuta dauden helburu orokorrak kontuan hartuz. Egoera horrek berarekin dakarren zuzenketa motak testuaren osotasunari erreparatzea eskatzen du, eta horretarako ponderazio taula orokor bat eta puntuazioaren araberako eskala bat erabiltzea. Guk hemen erabili duguna egungo adituen artean adostutakoa da[3], eta honelako ebaluazio bati ekiteko baliagarria delakoan gaude.

Hala ere, sistema honek baditu hainbat muga. Bere aplikazio praktikoan, gerta daiteke testu batek lortutako puntuazio orokorra, batzuetan, testuaz jasotako lehen inpresioarekin bat ez etortzea. Esaterako, azalpen testuetan 5. mailako eredu bat badago, eta beste ereduarekiko dituen ezberdintasunak (alderdi onak) nabarmenak dira, baina norbaitek plantea dezake: nola sailka

[3] Emandako eredu zuzenduak sailkatzeko erabili dugun 0-5 eskala Pedro Jimenok *La competencia comunicativa: producción de textos escritos* lanean erabili duenaren egokitzapena da. Bera 50 puntutik abiatu da, eta gu 55etik, baina, funtsean, 6 maila bereizten ditugu. Jakin badakigu ebaluazio diagnostikoaren emaitzen eskala 1etik 3+ mailen artekoa dela. Hortaz, idatziaren ebaluazioa egiten denean, aipatu eskala egokitu beharko da. Une hori iritsi bitartean, mailakatze zabalagoa erabiltzea erabilgarriago ikusi dugu.

genezake testu hau maila gorenenean dituen komunztadura eta deklinabide akatsak ikusita? Erabat ados gaude planteamendu honekin. Alderdi horri soilik edo morfosintaxiari, oro har, erreparatuko bagenio, testua erdizkakoa dela esango genuke. Eta, berez, atal horretan emandako puntuazioak hori islatzen du. Baina, bestalde, testua osotasunean zuzentzeak muga horiek azaleratuko dizkigu. Testua gainontzeko ataletan egokia bada, ongi aurkeztua badago, zuzena bada, ideiak ongi lotuta badaude, eskatutako testu motaren ezaugarriak biltzen baditu... morfosintaxiari dagozkion akats horiek beste guztiak baino garrantzia handiagoa du? Hori erabakitzea ez da lan erraza eta, ponderazioa erabiltzen badugu, honelako kasuak izango ditugu aurrez aurre. Hala eta guztiz ere, gure ustez zilegi litzateke planteatzea ea 5 maila horretan sailkatzeko testu batek gutxieneko puntuazioa izan beharko lukeen atal guztietan.

Bestalde, arestian aipatutako testuak edo gure jardunean aurki ditzakegun beste batzuek sortaraz litzaketen zalantza horien inguruan, oraindik ere ohiturazko zuzenketa ereduak irakasleongan indar handia duelakoan gaude. Aitzin-solasean aipatzen genuen bezala, boligrafo gorriz zuzentzera ohituta gaude, morfosintaxiari dagozkion alderdiak baitira testuaren lehen zuzenketan nabarmenenak, eta nahi gabe ere, irakasleok testuaz inpresio jakin bat izan dezagun bultzatzen gaituztenak. Baina ongi idaztea hori baino gehiago dela badakigu, beraz, nahiz eta alderdi horietakoren batean testuak gabeziak izan, osotasunean hartzea ezinbestekoa da, ikaslearen gaitasun orokorra ebaluatu behar baitugu.

Edozein modutan, errezeta magikorik ezean, erronka garrantzitsua dugu zuzenketa lanaren sistematizazioan eta irakasleon arteko irizpideak bateratzen. Irakasleontzat zalantzaz beteriko prozesu nekagarria, zaila eta esker txarrekoa baina aldi berean ezinbestez egin beharrekoa den heinean, egiten dugun lan horri ahalik eta etekin handiena lortzea izan behar dugu helburu. Bide horretan aurrera egiteko planteamenduak garatu beharko ditugu orain eta etorkizunean ere, eta horretan lagungarri izan liteke hemen azaldutakoa.

# VII. Bibliografia


- ALBERDI, Andres ((2008) *Oinarrizko Gramatika*. Ikastolen Elkartea-Elkar

- ALBERDI LARIZGOITIA, X., SARASOLA ERRAZKIN, I. *Euskal estilo libururantz. Gramática, estilo aeta Hiztegia.* (EHU)

- ALDASORO, Mikele, eta beste (2007) *Hizkuntza proiektua. Idazmen konpetentzia (Formakuntzarako material argitaragabea). Ikastolen* Elkartea.

- ALDASORO, Mikele, eta beste (2003), *Ostadar proiektua, Euskara eta Literatura*. G.I.E. Elkarlanean

- ALDASORO, Mikele, eta beste (2005), *Ostadar proiektua, Euskara eta literatura. "Zenbat arazo, hainbat konponbide" Unitate Didaktikoaren Gida. 3. zehaztapen maila.* G.I.E. Elkarlanean

- JIMENO, Pedro (2007), *Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan*. Blitz Sail Gorria, 1. zkia. Nafarroako Gobernua

- JIMENO, Pedro (2009) V*aloración de Textos escritos. Orientaciones y ejemplos* (Zirriborroa).

- JIMENO, Pedro (2009) *La competencia comunicativa: producción de textos escritos. Orientaciones para la corrección*. Cuadernos de Inspección Educativa.

Hezkuntza Ikuskaritzako Koadernoak

**Sistemaren** ebaluazioa

7